

# JAKIN

TONI MOLLA  
JOAN FUSTER

ANDONI IBARRA/JABIER OIANGUREN  
FILOSOFIAREN IZAKERA ETA EGINKIZUNA

ASKOREN ARTEAN  
JAVIER MUGUERZA: ERRESISTENTZIAREN ETIKA

JAVIER LAVIÑA  
AHAZTUAK

IBAN ZALDUA  
IRAUTZA BURGESA ESPAINIAN

IÑAKI IÑURRIETA  
IRRATI-NOBELA BATEN AZTERKETA-SAIOA

MIKEL HERNANDEZ  
ERREALISMOAREN GAURKOTASUNA

RAMON SAIZARBITORIA  
JESUS GIL MASSA  
INAKI IRAZABALBEITIA  
BEGOÑA DEL TESO  
EGUNEN GURPILEAN

71

UZTAILA-ABUZTUA 1992



# JAKIN

71

UZTAILA-ABUZTUA 1992



*Kultura eta Turismo Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

# AURKIBIDEA

Z	ENBAKI HONETAN	7
G	AIKAK	11
	TONI MOLLA JOAN FUSTER	27
	ANDONI IBARRA / JABIER OIANGUREN FILOSOFIAREN IZAKERA ETA EGINKIZUNA	49
	ASKOREN ARTEAN JAVIER MUGUERZA: ERRESISTENTZIAREN ETIKA	63
	JAVIER LAVIÑA AHAZTUAK	73
	IBAN ZALDUA IRAUTZA BURGESA ESPAINIAN	87
	IÑAKI INURRIETA IRRATI-NOBELA BATEN AZTERKETA-SAIOA	103
H	AINBAT ABURU	103
	MIKEL HERNANDEZ ERREALISMOAREN GAURKOTASUNA	117
E	GUNEN GURPILEAN	117
	RAMON SAIZARBITORIA JESUS GIL MASSA INAKI IRAZABALBEITIA BEGOÑA DEL TESO	

© JAKIN

JAKINEKO IDAZLANEZ INON  
BALIATZERAKOAN AIPA BEDI,  
MESEDEZ, ITURRIA

JAKIN

ALDIZKARI IREKIA DA ETA EZ  
DATOR NAHITAEZ IDAZLEEN  
IRITZIEKIN BAT

ZUZENDARIA

JOAN MARI TORREALDAI

ERREDAKZIO-BATZORDEA

PAULO AGIRREBALTZATEGI - JOXE AZURMENDI - JOSEBA INTXAUSTI

IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA

Tolosa Hiribidea, 103-1. C - 20009 Donostia - Tel. (943) 21 80 92 - Fax 21 82 07

1992ko PREZIOAK

BARRUAN	HARPIDEDUNA	EZ HARPIDEDUNA
Harpidetza	4.000 pta.	—
Ale arrunta 670 pta.	1.000 pta.	
KANPOAN		
Harpidetza	4.550 pta. (228 FF)	—
Ale arrunta	760 pta. (38 FF)	1.150 pta. (58 FF)

# SUMMARY

## JOAN FUSTER

TONI MOLLA

With the passing away of Joan Fuster (21.06.1992), not only has a great writer (poet and essayist) passed away but also the foremost exponent of the critical and national cons-

sciousness of the Valencians, of the Catalans of Valencia. The article by Toni Mollà, a friend and expert on Fuster, picks up on the life and work of the great Catalan writer.

## THE NATURE AND FUNCTION OF PHILOSOPHY

ANDONI IBARRA/ JABIER OIANGUREN

The authors of the article, lecturers of Philosophy at the University of the Basque Country, interview C.U. Moulines, a lecturer of Philosophy of Scien-

ce at the *Freie Universität* of Berlin, about the function of philosophy, the diversity of philosophies, the philosophy of Science and about ideologies.

## JAVIER MUGUERZA: THE ETHICS OF RESISTANCE

VARIOUS AUTHORS

Agustín Minondo, Beatriz Miranda and Juanan Barrenetxea, lecturers of Sociological Theory, comment on some aspect of the book "Desde la perplejidad" ("From perplexity") (1990) by Javier Muguerza ("Basque by nation, Andalusian by birth" as he defi-

nes himself). The authors assess Javier Muguerza's distancing from a courtly intellectual Spanish world, his intellectual support to self-determination, and his theory and practice regarding the ethics of resistance, among other things.

## THE FORGOTTEN ONES

JAVIER LAVIÑA

Javier Laviña, a lecturer at the Department of Cultural Anthropology of the University of Barcelona, exposes the phenomenon of the socio-racial discrimination of slaves of African origin who arrived in America between

the 16th and 19th centuries, and who would appear to have been expelled from history. He examines the various stereotypes applied to black slaves, describing them as being false and deceitful.

## THE BOURGEOIS REVOLUTION IN SPAIN

IBAN ZALDUA

The author of the article, a lecturer at the Department of Economic History, gathers together the various conceptions and theories on the bourgeois revolution expounded above all in the 1960's and 70's,

among which are those who accept the concept; the standpoints of those who nowadays reject the validity of this concept as a means of analyzing facts of history are also examined.

## ANALYSIS OF A RADIO NOVEL

IÑAKI IÑURRIETA

The radio novel, a genre of culture of the masses with a great tradition in certain cultures, has nonetheless constituted an unknown genre in the Basque language until "Antzoki iluna" (dark theatre), the object of this article. The author is interested in a

particular section of this radio novel, with text by Bernardo Atxaga and adapted by José Ramón Zubimendi, and examines it from the semiotic point of view as a radio product and as a means of converting a literary text into a radio novel.

## THE CURRENT IMPORTANCE OF REALISM

MIKEL HERNANDEZ ABAITUA

The author, a literary writer, argues with the novelist Ramón Saizarbitoria over the current importance of realism in literature. The author is surprised by the persistence of

controversy between the defenders and detractors of realism. He finds the negative attitude of some writers and Basque literary critics regarding realism particularly damaging.

## NEWS TODAY

VARIOUS AUTHORS

In this section, as has been customary since the beginning of the year, Ramón Saizarbitoria, Jesús Gil, Inaki Irazabalbeitia and Begoña del

Teso comment on current affairs related to the world of culture, art, science and entertainment respectively.

# ZENBAKI HONETAN

Eskuetan duzun hau bigarren aldiko 71. zenbakia da eta 1992ko laugarrena.

Ez titulu eta ez gai bateratzailerik dago zenbaki honetan. Artikulu soltez osaturikoa da, zenbat artikulu hainbat gai, urteroko ohiturari jarraituz.

Hilberri den Joan Fuster Valentziako idazle famatuaren aurkezpena eginez hasi nahi izan dugu zenbakia. Honen herkide eta gogaikide den Toni Mollà idazleari eskatu diogu lana.

Andoni Ibarra eta Jabier Oianguren filosofoek, elkarrizketa bidez, C.U. Moulines irakaslearen pentsaera azaltzen digute egungo hainbat gai interesgarriri buruz.

Agustin Minondo, Beatriz Miranda eta Juanan Barenetxea irakasleek Javier Muguerza euskal jatorriko intelektual andaluziarraren zenbait alderdi aipatzen eta aipatzen dituzte.

Javier Laviñaren lanak, aurreko zenbakiko gai nagusiaren ildo kritikotik, afrikar jatorriko esklabuek Ameriketara izandako paraderoa aztertzen du.



Iritzien bilketa eta aurkezpen-lan bat da Iban Zalduak proposatzen diguna: azken mende erdi honetan iraultza burgesa dela eta Espainian azaldu diren teorien errepasoa.

Iñaki Iñurrietak, aldiz, ikuspegi semiotikotik heltzen dio euskaraz egiten den lehen irrati-nobela baten pasarte baten azterketari.

...*hainbat aburu* sailean, Mikel Hernandez Abaituak, Ramon Saizarbitoriari erantzun gisa, literatur errealismoaren egitekoa eta gaurkotasuna errebindikatzen ditu.

Eta azkenik, *Egunen gurpilean* sailean, Ramon Saizarbitoria, Jesus Gil, Inaki Irazabalbeitia eta Begoña del Teso datozkigu berriro, azken bizpahiru hilabeteotako zenbait kultur gertakariren inguruan beren iritziak azalduz.

# GAIAK

---

TONI MOLLA  
JOAN FUSTER

ANDONI IBARRA / JABIER OIANGUREN  
FILOSOFIAREN IZAKERA ETA EGINKIZUNA

ASKOREN ARTEAN  
JAVIER MUGUERZA: ERRESISTENTZIAREN ETIKA

JAVIER LAVIÑA  
AHAZTUAK

IBAN ZALDUA  
IRALTZA BURGESA ESPAINIAN

IÑAKI IÑURRIETA  
IRRATI-NOBELA BATEN AZTERKETA-SAIOA

# JOAN FUSTER

TONI MOLA

---

**J**oan Fuster hil da. 1992ko ekainaren 21ean, bere bizitza osoan bizi izan zen Sueca-ko etxe berean —Sant Josep kaleko 10ean hain zuzen—, Ribera Baixako eskualde valentziarrean, inoiz izan den katalanezko saiakeragilerik hoberena bezala kontsideratua zegoen Joan Fuster i Ortells-ek miokardioko infartu batek jota hil egin zen. Bere desagerpenarekin ez bakarrik idazle handi bat joan zen, valentziarren —alegia Herrialde Valentziarreko katalanen— kontzientzia kritiko eta nazionalaren adierazlerik bikainena ere joan bait zen aldi berean.

Joan Fuster Suecan bertan jaioa zen, duela 70 urte. Aita karlista zuen, eta familia nahiko apalekoa izan arren, Fuster-ek

ikasketak jarraitzeko aukera eduki zuen, bere aita, tailista lanbidez, marrazketako maisu gisa ere aritzen bait zen. Baxilergoa bukatu ondoren, Zuzenbideko ikasketak burutu zituen, baina urte pare bat besterik ez zituen egin abokatu bezala lanean. Idazle bezala profesionaltzea erabaki zuen berehala eta irakurtzera —bere pasiorik edo grinarik handiena—, literatur sorkuntzara, prentsan egindako kolaborazio edo lan-kidetzetara —hauexek izan ziren bere diru-iturri bakarrak urte askotan— eta agitzio kultural, zibiko eta politikora eman zen bete-betean. Fuster berak aitortzen zuen, sarri askotan, beharrian profesionala izan zela, seguruenik, berea bezalako obra hain zabal eta bariatuaren arrazoi behinena.

## POETA

Fuster-ek bere sormen-lanak poesiaren bidetik hasi zituen, baina berehala utzi zuen genero hori saiakeraren munduan murgiltzeko bete-betean: *ideien literatura*, berari hainbat atsegin zitzaion esaldia errepikatzeko. Hala ere, Fuster poeta handia izan zen, poeta berritzailea, bai gaien aldetik eta baita formalki ere. Valentziako Unibertsitateko irakaslea den Josep Ballester-ek duela gutxi argitara eman duen *Joan Fuster, una aventura lírica* liburuak (Valencia, 1990, Tres i Quatre Argitaletxea) ondotxo frogatzen du bere balioa.

Bere poesi liburu nagusienak *Sobre Narcís* (1949), *Ales o mans* (1949), *Terra en la boca* (1953) eta *Escrit per al silenci* (1954) dira. 1987. urtean Fuster-ek bere poesia guztia argitaratu zuen *Set llibres de versos* liburuan, eta bertan argitara eman gabe zegoen bere lan poetikoaren zati handi bat ere bildu zen.

Fuster poeta lirikoa izan zen, maitasunaren poeta bat, Literatura katalanaren Urrezko Mendeko (XV. mendeko) klasiko valentziarraren eragin handia jaso zuena, eta Ausiàs March-ena bereziki. Baina, horretaz gainera, Fuster poeta ironikoa ere izan da, sarkastikoa esatera ere ausartuko ginatke, sozialagoa eta zenbait testutan baita existentzialista eta sinbolista ere. Bere irakurketarik gogokenak, katalanezko literatura-

ren barruan, Josep Carner, Salvat-Papasseit eta Carles Riba izan ziren. Kultura katalanaz landa, Paul Valery-ren irakurle sutsu eta porrokatua izan zen Fuster, *Le cimetière marin* izeneko miresten zuelarik batipat bere lanen artean, eta baita Paul Claudel eta Rabelais-ena ere, azkenari Elegia zoragarri bat eskaini ziolarik.

## SAIAKERAGILEA

Arestian esan dugun bezala, Joan Fuster-ek berehala utzi zuen albo batera poesia, bere indar guztiak saiakeran eta egunkarietako lankidetzetan jartzeko. 1944. urtean, artean Zuzenbideko ikaslea zela oraindik ere Valentziako Unibertsitatean, a rgitaratu zuen bere katalanezko lehen artikulua izango zena: “Vint-i-cinq anys de poesia valenciana”.

Zalantzarik gabe, Fuster saiakeragilea da, esaterik baldin badago, Fusterrik hoberena, Fusterrik berritzaile eta origina- lena. Michel de Montaigne —”nere Montaigne maitea”— eta moralista frantsesak, Voltaireedo la Rochefoucauld esaterako, Bertrand Russel-ekin batera —idazle baino gehiago desinfektatzaile bat zela esaten zuen Fuster-ek Russell-engandik— izan ziren bere autorerik gogokoenak alor honetan. Herrira itzuliz, beti mirestu zuen don Eugeni d’Ors-en *Glossari* lana, bere ideia intelektual eta politikoak guztiz gaitzesten zituen arren.

Saiakera generoak duen definiziorik ederrenaren ildotik, Joan Fuster-ek, bere bizitzan zehar, gairik desberdin eta bariatuen buruzko bere eritzi oparoa eskaini zigun: hasi arte plastikoetatik, *Descrèdit de la realitat* obran (1955) eta ikasketa humanistikoetaraino, *Les Originalitats* (1956), *Figures de Temps* (1957), *Diccionari per a ociosos* (1964), *L’home, mesura de totes les coses* (1967) eta *Sagitari* (1984) lanek frogatzen duten bezala; baina baita ere kulturaren historiari buruzko lanak, adibidez *Llibres i problemes del Renaixement* edota klasiko valentziarrei buruzko lanak, hala nola: “Ausiàs March, el ben enamorat” (1962), literaturaren kritika eta historia, esate baterako *Contra el Noucentisme* (1978), eta izakera sozio-politikoaz zuten saiakerak.

Bere libururik estimatuenak eta egilearen ustez, urteak aurrera egin ahala bere burua ezagutzeko aukera gehien ematen ziotenak, horrelaxe aitortu bait zuen, saiakera laburrez osatutakoak dira, esaldi zehatzak dituztenak, gai-aldetik probokatzaileak, egunkari gisa antolatutako askotan. Horrelakoak dira, adibidez, *Causersed'esperar* (1965) eta *Diari 1952-1960* (1969).

Lan-mota honetan, sakon-sakonean aztertzen dira arazorik diferenteenak: filosofikoak, politikoak, literarioak, kulturalak, linguistikoak nahiz zientifikoak: pretentsio akademiko handirik gabe, hitzaren zentzu hertsian, baina asmo didaktiko argi eta garbi batekin, inolako zalantzarik gabe. Joan Fuster-ek hainbeste miresten zituen moralista frantsesen tradiziozko bikainena jarraitzen zuen gisa horretan. Humanista baten lana da hau, inondik inora, hitzaren esanahirik klasikoenean, pertsona kulto eta erro-errotik jakintsu baten lana. Hizkera ere modurik zainduenean darabilten lanak dira, gainera.

Izan ere, Fuster-ek erabiltzen duen katalana da, Josep Pla bere adiskidearekin batera, katalan literariorik landuena eta,aldi berean, Herrialde Katalanetako batezbesteko hiztunarengandik gertuen dagoena. Literatura katalanean inoiz eduki dugun narraziozkoa ez den prosarik onenaren aurrean gaude, inolako ezbaierik gabe. Eta bere asmo didaktikoa horixez, hain zuzen, bere testuak horren modu dotorean zaintzera eramaten zuena. Bere ideia eta konbikzio linguistiko-literarioen argibide gisa, bere adiskide Josep Pla-k emandako aholkua errepikatu ohi zuen behin eta berriz Fuster-ek: "katalanez irakurtzea tortura bat izan ez dadin saia zaitetz". Eta seguruenik horrexegatik ere bai, Fuster-en testua atsegina eta burutsua da, estiloz oso arina, zorrotza eta zuzena. Josep Pla berbera eta Gaziel izan ziren Sueca-ko idazlearen kazetaritza-prosaren osakeran eraginik handiena eduki zuten idazle-kazetariak.

Sueca-ko bere barne-erbestealditik, Fuster-ek ikasketetara eta sormen-lanera bete-betean emateko erabakia hartzen duen une hartako baldintza soziopolitikoek ere baliozkoagoa eta adoretuagoa egiten dute erabaki hori, zeren eta Espainiako Gerrak (1936-1939) erabat deuseztatu eta desegin bait zituen

Errepublika garaia bitartean Herrialde Katalanek hezur amitu zituzten kultur ahalbide guztiak. Ez dago esan beharrik ere ezen literatur sortzaileek aukera eta giro eskasa baldin bazuten gerraosteko estatu espainiarrean, katalanez, galego-portugesez edota euskaraz idazten zutenak idazle klandestinoak zirela praktikan.

Eta logikoa denez, Joan Fuster-ek garaiko prentsan gazte-leraz idatziz irabazi behar izan zuen eguneroko ogia. Baina burutik pasa ere ez zitzaion egin idatzi zituen laurogeitik gora sormen-lan horietatik bakarra ere katalana ez zen beste hizkuntzaren batean izan zitekeenik. Frankismoak ezarritako zentsura politikoa izan zen bere burua *Manifiesto Komunistari atxekia zen liberal bat* bezala definitu zuen sortzaile baten etsairik nagusienetako beste bat. Gizartean esku hartzeko egiazko aukerarik ezak, tradizioarekiko haustura edo etenak eta gerra-amaierak ekarri zuen beste herrialdeekin komunikatu ahal izateko zailtasunak are zailagoa egiten zuten langintza bere ideia sozial eta nazionalistak zeuzkan gizonarentzat.

Guzti horrek argitzen du, era berean, Joan Fuster-ek saiakera alorrean egindako lehenengo ekarpenak erbesteko aldizkari katalanetan argitaratu izatea (*El Pont Blau* edo *La Nostra Revista*).

#### IZAERA SOZIOPOLITIKOA DUTEN SAIAKERAK

Egoera kultural, sozial eta politikoak berak ezinbestekoa egiten zuen Joan Fuster-ek gogokoen zituen gaietako bat herriaren beraren gaineko hausnarketa izatea, introspekzio kolektiboa eta nazionala hain zuzen ere, Jaume Vicens Vives historialariarentzat (*Notícia de Catalunya*) eta Josep Ferrater Mora filosofoarentzat (*Formes de la vida catalana*) ere izan zen bezalaxe.

Berrogeitamarreko hamarkada bitartean argitaratu zituen Joan Fuster-ek bere lehenengo saiakerak ildo honetatik. Baina hirurogeiko hamarkadaren hasieran eman zituen ezagutzera gai zibiko-politikoak ukituz ikuspegi valentziar-katalan batetik jorratzen zituzten bere lanik esanguratsu eta garrantzitsuenak.

Lan hauekin, Joan Fuster-ek bere garaiarekin erabat konprometitua dagoen intelektualaren zeregina hartu zuen bereztzat eta berehala bihurtu zen ez bakarrik artean jaioberria besterik ez zen valentzianismoaren erreferentzi puntua, baita frankismoaren kontrako oposizio osoarena ere, herri-mailan eta politika-mailan.

Fuster, inolako parekorik gabeko fenomeno literario, kultural eta politikoa izan zen testuinguru hartan, Herrialde Valentziarrean. “Valentziak, Herrialde Valentziarrak —berak salatu zuen bezalaxe— ez die jaten ematen bere intelektualei”.

Bertako literaturak emandako izen garrantzitsu bakanak gaztelaniaz idatzi zuten beren obra, Azorin-ek edo Blasco Ibañez-ek bezala. Fuster inflexio-gune funtsezkoa da, beraz, herrialdearen historian, ikuspegi hertsiki literariotik bezala baita ikuspegi soziolinguistikotik, kulturaetik, sozialetik eta politikotik ere. Joan Fuster-en idatziek berreskurapen nazionaleko proiektu oso bat inspiratu eta diseinatu zuten, nazionalismo valentziarraren sorburua Joan Fuster-en agerpenarekin bat datorrela esan ahal izateraino. Iragan historikoa argitu eta ezagutzera eman, eta oroimen kolektiboa berreskuratzeko baldintzarik egokienak proiektatu zituzten hainbat eta hainbat azterketa, ikerketa eta proiektu bultzatzaile nekazina izan zen.

Bere pentsamendu zibiko-politikoaren bi ardatzak, arazo nazionalari dagokionez, gehien aipatuak diren bere esaldietako bitan laburbildu daitezke: “Valentziar esatea da geure buruari katalan deitzeko daukagun modua” eta “Herrialde Valentziarra ezkertiarra izango da edo ez da izango”. Bi esaldiok berehala bihurtu ziren demokraziaren aldeko borrokan azken urteetako kontsigna unitarioak Herrialde Valentziarrean.

Fuster berak errepikatzen zuen, dena den, bere obraren zati hau eztabaidatuagoa izan dela irakurria baino, Herrialde Valentziarreko klase zuzendarien aldetik batipat.

Horregatik, desagertu berria den saiakeragileari egin geniezaiokeen omenaldirik bikainena litzateke bere lanak aditasunez, kritikoki baina aldi berean rasionalki irakurtzea, gizarte valentziarraren sektorerik atzerakoienek, behin eta berriz, modurik txarrean, beren interes eta baldintza sozial nahiz



politikoei begira, hainbat frustrazioren espaziozko aker bihurtu duten intelektual handiari egindako medeapen-ekintzarik onena bezala. Guztiok gara judutarrak norbaitekiko, esan ohi zuen Sartre-ren esaldia bere eginez.

Izan ere, faszismo autoktonoak, populismo erregionalistaz jantzi eta mozorroturik, ez bakarrik haserre eta gorrotorik irrazional eta anti-intelektualisten jomuga bihurtu zuen Fuster, hori gutxi bailitzan jazarri eta bitan bere bizitzaren kontra atentatza ere iritsi bait ziren (1978 eta 1981. urteetan). Joan Fuster-ek argumentuak erabiliz erantzun zuen beti: liburuekin, artikuluekin, hitzaldiekin. Horixe zen bere balore intelektualik handiena: pentsamenduan, *ilustrazioan* jartzen zuen konfidantza, elkarbizitza ulertu eta gizatiarragoa egiteko baliabide bakarrak bezala.

1962. urtean bertan jadanik, *Nosaltres els valencians* (62 Argitaletxea) eta *El País Valenciano* (Destino Argitaletxea) argitaratu zituela eta, Diego Sevilla Andrés falangistak gogor erasozion Fuster-i “Burguesía y catalanismo/Burguesia eta katalanismoa” izeneko prentsa-artikulu batekin. Eta artikulu hone-tan, bitxikeria irudi dezakeen arren, Herrialde Valentziarreko katalanistei —Fuster izaki horien adibiderik nabarmenena— naziak eta komunistak esaten zien aldi berean. Eta, noski, Barcelona-ko burgesiaren morroi gisa ari zirela salatzen zituen. Salaketa hori etengabe erabili izan da gaur egun arte. Antikatlanismoak jarraitzen bait du izaten Herrialde Valentziarrean faszismo autoktonoa biltzen duen indar nagusia.

Joan Fuster, punta-puntako pentsalaria izan da, inolako ezbairik gabe, baita Europa mailan ere. Katalanismoarekiko zuen harrotasunezko atxekimenduak galerazi dio ezagutuagoa izatea. Eta horretxek mugatu du bere obra etxe-zoko eta bazter askotan ilunegietara. Saiakera-arloan emandako bere ekarpen orokorra, bere pentsamendu-mailako lanak, kulturaren historiari buruzko bere ikerketak eta, azken finean, idazle handiaren hainbat eta hainbat alderdi eta ikuspegi *iza- era zibiko-politiko*zko eta *errebindikazio nazionalistaz kutsatu- tako* bere obrek ezkutatuak geratu dira. Horrela izanik ere, harrotasun osoz eraman zuen berak: “liburu horiek beharre zkoak ziren eta norbaitek idatzi behar zituen. Horiexek dira,

neri, une hartan, irakurtzea eta ez idaztea gustatu izango litzazkidakeen liburuak. Baina neronek idatzi nituen eta bere n edukin ideologikoa hasieratik bukaeraraino mantentzen jarraitzen dut, inolako erreserbarik gabe”.

Joan Fuster-ek eduki duen eragin zibikoa bere neurrian ebaluatu ahal izateko, hainbat langintza eta proiekturen bul-tzatzaile kultural bezala edukitako papera ere neurtu beharko litzateke eta baita herriaren aurrerapen sozial eta politikoa defendituko zuen ekintza, hitzaldi eta eztabaida orotako par-taidetza nekazina ere.

Adibide gisa, bera izan zen *Acció Cultural del País Valencià* izenekoaren sortzailea eta presidentea ere hil zen artean, katalanismo valentziarraren herri-erakunderik handiena berori, eta baita *Fundació Renau* delakoarena ere, zenbait argitalpe-nen aholkulari izateaz gainera, esate baterako *Gran Enciclopedia Catalana* eta beste batzuren.

Ez zen kasualitatez izan, guzti horregatik, Fuster-ek Herrialde Katalanetako herri-erakundeen goraipamenik altue-nak jasotzea eta, aldi berean, Kataluniako bezala baita Herrialde Valentziarreko gobernu autonomoenak ere; Premi d’Honor de les Lletres Catalanes eta Premi d’Honor de les Lletres Valencianes, Valentzia eta Barcelonako Unibertsitateetako honoris causa doktoretza-tituluez gain.

Intelektual konprometitu baten aurrean aurkitzen gara bete-betean, eta halako punturaino ezen ezinezkoa bait da Joan Fuster-en bizitzaren eta obraren artean bereiztea. Guzti horrek ekarri du Joan Fuster-ek valentziarren kontzientzia kolektiboa —soziala bezala baita nazionala ere— eraikitze-ko prozesuan eduki duen trszendentzia eta zerikusia guztiek onar-tua izatea, aldekoek nahiz kontrakoek. Kazetaria eta Joan Fus-ter-en adiskidea zen Vicent Venturak esan du, eta arrazoi osoz, Joan Fuster “txiripa genetiko” bat izan dela Herrialde Valen-tziarrarentzat.

Zalantzarik gabe, *Nosaltres els valencians* da bere lanik eza-gunena eta, baita gure herriko azken urteotako historian era-ginik gehien eduki duen liburua ere. Baina norabide zibiko-poli-tiko berriak markatu nahi horren ildotik azpimarratu behar dira, horrez gain, *Questió de noms* (1962), *Combustible per a falles*

(1967), *Hi ha més catalans encara* (1969), *Un país sense política* (1976), *El blau en la senyena* (1977), *Destinat (sobretot) a valencians* (1977), *Ara o mai* (1981), *País Valencià, per qué?* (1981) edo *Pamflets polítics* (1985), adibide gisa.

## NOSALTRES ELS VALENCIANS

Vicens Vives historialariak *Notícia de Catalunya* argitaratu ondoren, Max Canher editore katalan-alemaniarrak Edicions 62 etxearen inaugurazio gisa, Herrialde Valentziarraren megoera nazionala aztertuko lukeen liburu bat idazteko enkargua eman zion Fuster-i. Horixe izan zen *Nosaltres els valencians* (1962) liburuaren jatorria, Ernest Lluch-ek bere garaian “Herrialde Valentziarraren historiaren historiaurrea markatzen duen liburua” bezala definitu zuen (*La via valenciana*, València, 1976).

Fuster-ek lehendik liburu horretan azaldutako eritzietakoren bat edo beste atzerriko aldizkarietan aurreratu bazituen ere, *Nosaltres els valencians* liburuan adierazten du modu globalizatuan herrialdearen errealitate historiko, sozial eta politikoren bere interpretazioa.

*Nosaltres els valencians* da, horrexegatik, valentziarrok geure herrialdea kolektibitate gisa interpretatu ahal izateko daukagun lehen ikerketa serio eta zorrotza. Fuster berak borondate-aitorpen batekin zabaltzen duen ikerketa, hain zuzen: “Ez daukat hau beste autoritaterik: nere herriaren biziagatik eta halabeharregatik obsesioraino suhartu eta berotu izana. Agian horixe da nere baitan aitortzen dudana pasio jator bakarra”.

Fuster saiatzen da liburuan “zer gara?”, “zer egiten dugu?” “zer izan nahi digu valentziarrok?” betidaniko galderei erantzuten.

Eta horretarako Herrialde Valentziarraren historia aztertzen du, bere nazio-ahultasunaren arazoak eta jatorrizko nazio-amarengandik urrunduz bultzatu duten prozesu historikoak azalduz. Berreskurapen nazionalerako gida-lerro nagusiak iradokitzen ditu azkenik. Berreskurapen hori ezinezkoa izango da, Fuster-en eritziz, valentziarren katalantasuna onartu eta aitortzen ez bada.

Azken konklusio hau topiko ideologiko guztien kontra doa, eta bereziki burgesia valentziarrak —betidanik bere herriaren errealitate nazionalari bizkarra emanez bizi izan den burgesia horrexek berak— sortu eta elikatu zuen *Levante zoriotsu*-aren topikoaren kontra. Fuster-ek, bere saiakerarekin, beste herrialde bat aurkezten du, berria, kontraesanez eta ñabarduraz josia, adskripzio nazionalaren dilema horretan bete-betean sartua: edo katalanak gara, edo espainolak gara.

Liburuaren agerpena eta Fuster-en beraren irteera nazioaren esfera publikora izan zen sektore valentziar dinamikoek errebindikazio nazionalistaren inguruan bizitza sozial eta kolektibo bizi eta oparoa aurrera eramateko behar zuten akuitua edo bultzada. Halaz eta guztiz ere, Joan Fuster-i ez zitzaion atsegin bere burua nazionalista bezala definitzea: “Nazionalistak, egia esateko, ez gara gu: gure kontra daudenak baik, hain zuzen ere”. Eta izan ere, Fuster-ek bere idazlanen zati garrantzitsu bat horretantxe eman zuen, nazionalismo espainolari moztorra kentzen, *Contra Unamuno y los demás* (1975) izanik horren adibiderik argiena, bertan intelektualitate espainolaren ideologia nazionalistaren erreposoa egiten duelarik (Sánchez Albornoz, Madariaga, Américo Castro edo Unamuno bera).

Argitaratu eta hogeitamar urte beranduago ere, *Nosaltres els valencians* lanak derrigorrezko erreferentzi gunea eta bulkada izaten jarraitzen du, valentziarren identitate edo nortasunari buruzko hausnarketa intelektual bat egin ahal izateko. Soziologiaren, historiaren, ekonomiaren ikuspegitik *Nosaltres els valencians* izan da eta izaten jarraitzen du Herrialde Valentziarraren analisisa egiteko abiapuntua.

Ez dago lekurik hirugarren bideentzat: edo valentziarrak (alegia, katalanak) edo espainolak (alegia, ez valentziarrak). Inork ez du lortu oraindik ere Fuster-en tesiei argudioekin aurre egitea. Iraina eta deskalifikazioa izan dira bere etsaien eta bide batez baita herrialdearen etsaien ere arma bakarrak. Fuster-en desgrazia handiagoa izan da, beraz: ez bait du ezta erdi-purdiko solaskide arrazionalik ere eduki, etsaiak eta arerioak besterik. Rafael-Lluís Ninyoles soziologoak behin eta berriz esan bezala, Joan Fuster-en arerioek ez dute inoiz bere obra-

ren edukina zalantzatan jarri, arazo nazionalaren aurrean berak hartutako jarrera ideologikoa baizik.

Guzti horren gaineratik, Fuster-ek utzi digun emaitzak itzulerarik gabeko puntua lortua du jadanik, ez Herrialde Valentziarren bakarrik, baita gainerako Herrialde Katalanetan ere: gizarte zibilak eta partidu politiko ez-inboluzionistek bere egin dute, neurri handiagoan edo txikiagoan, Fuster-en mezua. Eta zentzu honetan esan daiteke Fuster-en obrak arrakasta lortu duela bete-betean, irainaren, bonbaren edota autonomi estatutu erregionalek ezarritako barne-muga guztien gaineratik. Inoiz ez du gizon batek horrenbesterainoko eraginik eduki gizarte baten gainean. Joan Fuster hil da. Goian bego.

## JOAN FUSTER-I BURUZKO DATUAK

### CURRICULUM VITAE

- 1922 Sueca-n (Ribera Baixa) jaio zen.
- 1946-56 *Verbo* (Alacant) literatur aldizkariaren zuzendari.
- 1947 Zuzenbide-ikasketak bukatzen ditu Valenciako Unibertsitatean.
- 1953 Joaquim Folguera Saria
- 1956 Josep Ixart Saria.
- 1959 Concepció Rabell Saria.
- 1962 Concepció Rabell Saria eta Per Comprendre Saria.
- 1962 Castellon de la Plana-ko Gaietà Huguet Fundazioko kide.
- 1968 Bere *Obrs Completes*-en lehen liburukiaren agerpena, homenaldi garrantzitsu bat eskaintzen zaio Valenciako Ateneu Mercantil-ean.
- 1970-80 *Gran Enciclopèdia Catalana*-ren aholkulari nagusia.
- 1971-77 *Gran Enciclopèdia de la Regió Valenciana*-ren aholkulari.
- 1971 *Col·lecció Lletra Menuda*-ren zuzendari.
- 1972 Joan Fuster saria sortzen da.
- 1973 *Collecció de clàssics catalans Albatros*-en zuzendari.
- 1975 Premi d'Honor de les Lletres Catalanes.

- 1976-77 Patronat d'Honor del Congrés de Cultura Catalana-ko lehendakariordea.
- 1978 Institut d'Estudis Catalans-eko kide.
- 1978 Acció Cultural del País Valencià-ko lehendakari.
- 1978 Fundació Josep Renau-ren lehendakari.
- 1979 *L'Espill* aldizkariaren zuzendari.
- 1981 País Valencià-ko letren saria.
- 1984 Honoris causa doktorea Universitat Autònoma de Barcelonan eta Universitat de Barcelonan.

## OBRA OSOAK

*Llengua, literatura, història*. Barcelona, 1968.

*Diari 1952-1960*. Barcelona, 1969.

*Viatge al País Valencià*. Barcelona, 1971

*Assaigs (1)*. Barcelona, 1975.

*Literatura i Llegendas*. Barcelona, 1977.

## HISTORIA KULTURALARI BURUZKO ESTUDIOAK

"Notes per a un estudi de l'oratòria vicentina", *Revista Valenciana de Filologia*, IV, 2-4 zk., Valencia, 1954.

*La poesia catalana fins a la Renaixença*. Mexiko, 1954.

*La poesia catalana*. 2 lib. Mallorca, 1956.

*El món literari de sor Isabel de Villena*. Valencia, 1957.

"Jaume Roig i sor Isabel de Villena", *Revista Valenciana de Filologia*, V, Valencia, 1955-1958.

*Serrallonga. Vida i mite del famós bandoler*. Barcelona, 1961.

"Ausiàs March, el ben enamorat", *Revista Valenciana de Filologia*, VI, Valencia, 1955-1962.

*Poetes, moriscos i capellans*. Valencia, 1962.

*El bandolerisme català. La Llegendas*. Barcelona, 1963.

*Heretgies, revoltes i sermons*. Barcelona, 1968.

*Literatura catalana contemporània*. Barcelona, 1972.

"Plantejaments històrics del teatre valencià", *Els Marges*, 4 zk., 1975.

*La decadència al País Valencià*. Barcelona, 1976.

- Contra el Noucentisme*. Barcelona, 1978.  
*Notes sobre el llemosí a la València del segle XVI*. Barcelona, 1984.  
*Lectures d'Ausiàs Marc en la València del segle XVI*. Barcelona, 1984.

## PROSAZKO LITERATUR OBRA

- El descrèdit de la realitat*. Barcelona, 1956.  
*Les originalitats*. Barcelona, 1956.  
*Figures de temps*. Barcelona, 1957.  
*Indagacions possibles*. Mallorca, 1958.  
*Judicis Finals*. Mallorca, 1961.  
*Qüestió de noms*. Barcelona, 1921.  
*El País Valencià*. Barcelona, 1962.  
*Nosaltres els valencians*. Barcelona, 1962.  
*Diccionari per a ociosos*. Barcelona, 1964.  
*Raimon*. Barcelona, 1964.  
*Cansar-se d'esperar*. Barcelona, 1965.  
*Combustible per a falles*. València, 1967.  
*L'home, mesura de totes les coses*. Barcelona, 1967. Hitzaurr.  
 J. Molas.  
*Consells, proverbis i insolències*. Barcelona, 1968.  
*Examen de consciència*. Barcelona, 1968.  
*Hi ha més catalans encara*. Barcelona, 1969.  
*L'Albufera de València*. Barcelona, 1970.  
*Babels i babilònies*. Mallorca, 1972.  
*Exploració de l'ombra*. 1974.  
*Un país sense política*. Barcelona, 1976.  
*El blau de la Senyera*. València, 1977.  
*Qüestió de noms i altres escrits*. València, 1979.  
*Destinat (sobretot) a valencians*. València, 1979.  
*Notes d'un desficiós*. València, 1980.  
*Indagacions i propostes*. Barcelona, 1981.  
*Ara o mai*. València, 1981.  
*Veure el País Valencià*. Barcelona, 1983  
*Panflets polítics*. Barcelona, 1985.

## POESIA

Sobre Narcís. València, 1949.

Ales o mans. València, 1949.

3 poemes. Alacant, 1949.

Va morir tan bella. València, 1951.

Terra en la boca. Barcelona, 1953. Hitzaurr. Josep V. Foix.

Escrit per al silenci. València, 1954.

## EDIZIOAK ETA ANTOLOGIAK

*Pàgines escollides de Sant Vicent Ferrer*. Barcelona, 1955.

*Antologia de la poesia Valenciana*. Barcelona, 1956.

*Recull de contes valencians*. Barcelona, 1958.

*Ausiàs March: Antologia poètica*. Barcelona, 1959.

*Un mon per a infants*. València, 1959.

*Flor d'enamorats*, Joan Timonedarena. Valencia, 1973.

*La vida de santa Magdalena en cobles*, Jaume Gaçullena.  
Valencia, 1973.

*Biblioteca valentina*, Josep Rodríguezena. Valencia, 1977.

*Caciquisme roig*, Lluís Bernatena. Valencia, 1984.

## HITZAURREAK

QUART, Pere: *Les decapitacions*. Barcelona.

BARTRA, Agustín: *Màrcias i Adila*. Barcelona, 1957.

“Introducció a la poesia de Salvat-Papasseit” in J. Salvat-Papasseit. Barcelona, 1962.

“Introducció a la poesia de Salvador Espriu” in ESPRIU, S.:  
*Obra poètica*. Barcelona, 1963.

CARNER, Josep: *Les bonhomies*. Barcelona 1964.

CESC: *Gargots*. Barcelona, 1965.

PORCEL, Baltasar: *Els escorpins*. Barcelona, 1965.

MATEO, José Vicente: *Alacant a part*. Barcelona, 1966.

“Notes per a una introducció a l'estudi de Josep Pla” in PLA, J.:  
*El quadern gris*. Barcelona, 1966.

PERMANYER, Lluís: *43 respostes catalanes al Qüestionari Proust*. Barcelona, 1967.



- BEUTER, Pere A.: *Primera part de la història de València*. València, 1971.
- “Nota —provisional i improvisada— sobre la poesia de Vicent Andrés Estellés” in ANDRES ESTELLES, V.: *Recomane tenebres*. València, 1972.
- GINER SOROLLA, Alfred: *Dol duen les flames*. València, 1973.
- SIMO, Trinitat: *La arquitectura de la renovación urbana en València*. València, 1973
- ARACIL, Rafael; GARCIA BONAFE, Màrius: *Industrialització al País Valencià: el cas d’Alcoi*. València, 1974.
- NINYOLES, Rafael L.: *Idioma i prejudici*. Mallorca, 1975.
- MONLLOR, Ovidi: *Poemes i cançons*. Barcelona, 1977.
- GARES, Josep: *Falç sense mà*. València, 1977.
- “Una postdata, i potser no calia escriure-la” in ANDRES ESTELLES, V.: *Lletra al pintor valencià Josep Renau*. València, 1978
- TROLEG, Isa: *Mari Catúfols*. València, 1979.
- LLACH, Lluís: *Poemes i cançons*. València, 1979.
- MUNTANER, Ramon: *Crònica*. Barcelona, 1979.

## ITZULPENAK KATALANERA

- FALKBERGET, John: *La quarta vigília*. Barcelona, 1962.
- CAMUS, Albert: *La pesta*. Barcelona, 1962.
- Id.: *El mite de Sísif*. Barcelona, 1965.
- Id.: *L’home revoltat*. Barcelona, 1966.
- Id.: *L’exili i el regne*. Barcelona, 1967.
- Id.: *L’estrany*. Barcelona, 1967.
- SILONE, Ignazio: *Fontamara*. Barcelona, 1967

## ITZULPENAK GAZTELANIARA

- JUAN ARBO, Sebastià: *Verdager*. Barcelona, 1970.

## KOLABORAZIOAK LAN KOLEKTIBOETAN

- Un segle de vida catalana*, Ferran Soldevilak zuzendua. Barcelona, 1961.

*El llibre de tothom.*

*Dolça Catalunya.* Barcelona, 1968.

*Història de Catalunya,* Joan Reglàk zuzendua. Barcelona, 1971.

*L'aventura editorial a Catalunya.* Barcelona, 1973.

*Per a una cultura catalana majoritària.* Barcelona, 1980.

*Reflexions crítiques sobre la cultura catalana.* Barcelona, 1983.

Euskaratzailea:  
*JABIER AGIRRE*

# FILOSOFIAREN IZAKERA ETA EGINKIZUNA

C.U. Moulinesekin solasean

ANDONI IBARRA

JABIER OIANGUREN

**E**gun C.U. Moulines (Caracas, 1946) zientziaren filosofiarako irakasle da Berlingo Freie Universität-ean. Aurretiaz ere, EEBBetako, Mexikoko, Brasilgo eta Alemaniako hainbat unibertsitatetan aritua dugu; baita Euskal Herriko Unibertsitatean ere, non Zientziaren Filosofia eta Historiari buruzko doktorego-programan parte hartzen duen. Honen lan ugaria ondotxo isladatzen dute argitaratutako ia ehun bat artikulu eta lau liburuok: *La estructura del mundo sensible* (Bartzelona, Ariel, 1973); *Exploraciones metacientíficas* (Madril, Alianza, 1982), *An Architectonic for Science*, azken hau W. Balzer eta J.D. Sneedekin elkarlanean (Dordrecht, Reidel, 1987); *Pluralidad y recursión* (Madril, Alianza, 1991).

Hirurogeiko hamarkadan ikusmolde estandarra delakoak garatutako joera filosofikoaren aurka Kuhn, Feyerabend eta beste batzuek gidatu eta bultzatutako iraultza historizistaren aztertzaile zorrotza dugu Moulines, eta, era berean, hirurogeitamarreko hamarkadaren erdialdera hasita zientziaren filosofiaren alorrera haize berriak ekarri dituen filosofo-taldearen partaide ere bai, gardentasun eta zorrotzasun kontzeptualaren aldeko eginahal analitiko batek karakterizatutako filosofi mota bat plazaratuz. Moulinesen lanak J.D. Sneed eta W. Stegmüller ditu aintzindari, teoriaren ikusmolde estrukturalistaren barruan kokatzen delarik, beraz. Ezagutza zientifikoaren errealitate sakona edo konplexua zedarritzearen asmoa duten diskurtsu orokortzaileen etsai dugu bera, eta aipatu konplexutasuna laburpen merke bezain alferretan laburtzearen asmoa dutenena, baita zientzia erreala eta teori kontzeptua zer diren eta nola behar diren izan arautzeko araudiak finkatzen saiatzen diren haiena ere. Berak zientzizigintzaren atzean dagoen egitura logikoaren filosofia enpirikoa aldarrikatuko du. Alabaina, honen lan filosofikoaren garrantzia ez da bakarrik berreraiketa metateoriko estrukturalistaren barrenean ulertu behar. Ostera, artikulu asko idatzi izan du zientziaren filosofiatik landa bestelako kultur alor anitz ere jorratuz, ideologiari buruzkoak mutur batean eta literaturari buruzkoak bestean ditu ardura eta hausnargai. Hala eta guztiz ere, guzti horien gainera dago erabaki filosofiko batekiko zintzotasun sutsu bera, eta, ondoko liburuetan aditzera ematen duena: *Exploraciones meta-científicas* eta *Pluralidad y recursión*; eta, P. Baztarrika, X. Eizagirre, A. Ibarra eta J. Oiangurenen *Zer da zientzi teoria delako hori?* (Bilbo, EHUko Argitarapen Zerbitzua) liburuaren “Zientziaren filosofiaren eginkizuna” izenburuko sarreran birlandua izan dena. Interesgarri iritzi diogu filosofiaren izakera eta eginkizunari buruz liburu horietan bildurik dauden ideia batzuen berrikusketari, Moulinesen esanetan, benetan filosofikoa den ariketa errekurtsibo bati jarraituz.

## FILOSOFIAREN EGINKIZUNA

“Zer da filosofia?” galderari “filosofoek egiten dutena” erantzun ohi da besterik gabe. Hauek, ordea, gauza arras ezberdi-

*nak egiten dituzte. Lehengo galdera, beraz, berehala datorkigu emanda, zer da filosofo izatea? eta, zehazki, zertan ari zara zu?*

Bai, nere ustez, eta Wittgensteinekin egiten dut bat hemen, filosofia iharduera, egintza bat da. Baina, zein iharduera-mota? Iharduera mediatoa. Zergatik? Aurretiaz emandako kultur ekoizpen eta egintzari buruz ari delako, hots, filosofoiak ez du filosofia bera ikergaitzat hartzen, bestelako kultur emaitzak baizik. Beraz, filosofian aurretiaz bestelako pentsalari edo intelektual edota artista, hau da, edonork plazaratutako, aditzera emandako gogapenak, ideiak edo iritziak ditugu hausnargai. Esate batez, filosofo gisa zientzilariek naturari buruz plazaratutako gogapenei, hots, zientzi teoriak direlakoei buruz, ala, filosofo gisa ere, pertsonen gogapen moral arruntei buruz, gogapen politikoei buruz, dikurtsu erlijiosoari buruz ari gaitezke; oro har, filosofoak hausnargaitzat har dezakeen makina bat gauza dago, maiz filosofiaren aurretiazkoa dena. Horrexegatik da filosofia, beste non edo non esan dudan legez, bigarren mailako iharduera edo iharduera errekurtsiboa, hausnargaitzat aurretiazko gogapenen bat duen gogapena delako, hain zuzen.

Nere kasuan, hain justu, teoria zientifikoak deitzen ditugun aurretiazko gogapen zientifikoetan murgiltzen da gehien bat nere gogapen filosofikoa.

*Karakterizazio hori ez dator bat profanoak eta filosofo bat baino gehiagok duen filosofiaren irudiarekin. Berorien ustez ezagutzera bideratutako iharduera hori ez da filosofigintzaren oinarrian dagoena. Filosofoak gehiago dirudi hausnargaitzat bere kontzientzia bera hartu eta kanpokoarekiko bere lekua bilatuko duen poeta. Zuk, ordea, zure idatzi batzuetan filosofia kultur zientzien artean kokatu izan duzu. Zein da filosofiaren tokia kultur esparruan? Eta, zehazkiago, zein haren harremana zientzia, ideologia eta abarrek osatzen duten esparru kategorial zabalarekiko?*

Jakina, neu ezin naiz bat etorri filosofia sentiberatasun erlijioso edo gutxi gorabehera mistikoren baten ordezkotzat hartzen dutenekin. Uste dut, oster, filosofia desakralizatu egin behar dela, ogibide arrunt bat legez onartuz. Kimikari, musikologo edo hizkuntzalariaren iharduerak ogibide diren bezala izan daiteke filosofigintzarena ere, beronen lana izango zelarik

beste ikergairen gogapenen ekoizpenak, edota aurretiazko emaitza filosofikoak ere, arreta bereziz aztertzearena, baina, azken egarik topatzeko inongo asmorik gabe. Noski, hari honi jarraiki eta lehen baieztu dudan legez, gogapen filosofikoaren gaia bereziki bera ez den beste alor intelektual edo kultural askori buruzko, hala nola zientzia, moralak, erlijioa, ideologia politikoa eta abarri buruzko, edo, orokorrean, baita giza eza-gutza arruntari buruzko hausnarketa denez, eta hau, hain zuzen ere, giza kultur historiaren beste ekoizpen bat denez gero, argi dago neuk filosofiaz dudan iritzia beste kultur alorrez dudan bera dela, hots, filosofia bestelako kultur ekoizpenen artean kultur ekoizpen bat gehiago baino ez dela eta, zentzu horretan, bestelako kultur zientziek erabiltzen duten metodologia berbera erabili beharko duela, hala nola ideien historia, antropologia edo hizkuntzalaritzak erabiltzen duen bera. Zentzu horretan hartzen dut filosofia zientziazat, ez kimika eta fisika bezalako natur zientzia legez, bai osterak bestelako kultur zientzia legez. Bestalde, uste dut filosofiak, egungo bere egoeran behintzat, zientzia sendoak deritzogunetatik ere eginbide asko har dezakeela, zehazki, bere hausnarketan mota matematikoko metodoak sar ditzake bestelako zientziek, hizkuntzalaritzak kasu, egiten duten bezalaxe. Eta bide honetatik atzematen dut filosofia kultur zientzien artean, eta zientzien artean ere bai, baina besteekiko alde nabarmen batekin, honen ikergaia besteena baino askoz ere zabalagoa delako alde batetik, eta bere jatorria, historia haintzat hartuz bederen, besteak baino askoz ere ideologizatua duelako bestetik. Filosofiaren jatorrizko gogapen ideologiko hori ezin da bapatean hartu eta ahaztu nahiz eta gaur egun, nabaria denez, filosofia ezin den sistema ideologiko edo erlijioso edo, azken finean, transzendenterean baten eraiketan oinarritu, aintzinean izan zen legez. Bere lekua beste kultur zientzien artean bilatu behar du.

*Horrela karakterizatutako filosofia gogapen kritikotzat jo duzu...*

Filosofiaz dudan iritzia, hain justu, filosofiaren ikuskera kritikoan oinarritua dela gustatuko litzaidake pentsatzea. Tamalez, "kritika" hitza azken urteotan hain izan da haztakatua ezen bere jatorrizko esanahia ere galdu bait du, areago, nere

ustez begi-bistan dago bere burua kritikotzat hartu duen hainbat pentsalari eta eskola, azkenean, kritika gutxien egin duena izan dela. Hori dela eta printzipioz filosofi iharduera oinarrian kritiko legez karakterizatzea gogoko nukeen arren, ez Frankfurtoko Eskola ezta Razionalismo Kritikoak ere, epiteto hau larri erabili izan duten gogapen-eskola bi aipatzeagatik, erabili izan duten zentzuan, gehienera joaz, kontzeptu-azterketa eta gogapen-zentzuan baino, edo, hobe esanda, giza ezagutzaren alorrak kanpotik landuko dituen gogapen analitiko gisa baino.

*Nola antolatzen da iharduera kritiko hori? “Dena zuria ala dena beltzaren” muturkeria filosofikoaren aurrean zu maila-kako bereizketak finkatzearen aldeko agertu izan zara, hura eginbide filosofiko jatortzat joz. Zehazta al dezakezu eginbide hori?*

Uste dut sistema filosofiko asko eta askoren oker handia diskurtsu filosofikoan bereizketa eskasegiak batzuetan, muturrekoak bestetan, botatzearena izan dela. Materialismoa *versus* idealismoa edo adimena/gorputza edo objektibismoa/subjektibismoaren aurrean eta abarreko bikoiztasunak edo dualismoak ditut gogoan. Pentsa dezagun zintzotasunez eta erraz ikusiko dugu honelako bikoizkeria merkeak noraino izan diren zoritxarrikakoak benetan behar dugun filosofia kritikoaren garpenerako, hau da, filosofia zuhur, burutsu eta askearen garpenerako. Horrexegatik beste lanen batean muturreko dikotomia horiek erabiliko dituen filosofiaren kontrako, eta “zuria ala beltza” motatako bereizketak erabili beharrean graduazioa edo mailaketa erabiliko duenaren aldeko agertu naiz. Eta iritzi honetan espainiar egile batek eraginda izan naiz, egile hau Ferrater Mora da, eta berak bere analisisian mota honetako mailaketa aldarrikatu zuen, hain justu. Integrazionismoa deitu zion. Nahiz eta, agian, izen hau ez den oso zorionekoa ihardunbidea edo metodoa behintzat nahikoa garbi azalduta utzi zuen eta benetan uste dut egungo gogapen filosofikoan berreskuratu beharko litzatekeela. Dena den, gradualismoa edo integrazionismoa, horrela nahi bada, ez da ikergai filosofikoaren ulerpen amorfo batekin parekatu behar, hots, ez dira “zuria ala beltza” moduko dikotomiak “dena da on” moduko bidebakarkerien ordez bultzatu behar, aterabidea ez dago, duela gutxiko

filosofian ere gertatu izan den bezala, mutur beltza “dena urdinaren” uniformetasunarekin ordezkatzean. Beraz eta metodologikoki, oinarritzko bereizketa batzuk onartu dituen gogapen filosofikoaren alde nago, baina, betiere, gogoan hartuz bere izketa horiek ere azpizatiketa edo adarketa batzuk onar ditza ketela, azken finean, aintzineko filosofian proposatu izan ziren dikotomia truskilen ordezko sistema askoz ere birfinduago bat proposatuz.

*Baina, zertarako balio du filosofiak? Filosofiaren izakera eta eginkizunari buruzko itauna bera ere errekurrentea da, eta hori sintomatikoa zaigu. Filosofiak bere gaia ariketa prometeikoa bihurtzen duen amaigabeko zalantzatan galdurik garapen-ideiaren kontrakoa dirudi, literaturatik filosofiara Bulwer-Lyttonek eka-rritako dictumak zentzu-zentzuko lirudikeelarik: “In philosophy, read, by preference, the oldest”. Zein da, beraz, filosofiaren xedea garapenaren sukarra, arrakasta helburu bakartzat duen norgehiagoketa eta behin eta berriroko berrikuntza teknologikoak gidatutako gizarte honetan?*

Argi dago ekarpen teknologiko berritzaile zehatzetan begiak jarrita dituen gizarte batean gogapen filosofikoaren izakera abstraktuak nolabaiteko egoneza edo nahasmena sor dezakeela, baita alferrikako handikeria legez iraindua izatea ere. Halere, bere bizitzarekiko, munduan duen lekuarekiko, egunero lanbidean erabiltzen dituen lanabesekiko gutxieneko askatasuna lortzen duen pertsonak, bai politikaria bai zientzilaria bai legegilea izanda ere, ikusiko du iaotasun tekniko batek eskain dezakeen berehalako zorientasunetik haraindi badagoela munduari aurre egiteko erabiltzen ditugun kontzeptuak argitzeko gogoia. Eta argitzeko gogo hau, nere ustez, modu sistematiko eta kritiko batez egin behar dugu, munduan eta gure gizartean betetzen dugun lekua, bai eta gure jatorriaren historia ere, argitzen lagunduko diguna. Eta bere izakera abstraktu, orokor eta erreflexiboa dela eta uste dut filosofia dela horretarako gogapen-modurik egokiena.

*Arestian baieztatutakoa zehazta dezazun eskatuko geniezazuke. Nola bilakatzen da eginbehar kritiko hori zientziaren filosofia edo ezagutzaren teoriaz aparte metafisika, etika eta abarreko beste esparru filosofikotan, kontutan izanik ere ohituraz*



*filosofiarenak izan diren zenbait alorretatik bere iker-eremuak autonomoki garatu duten zientziak azaldu direla?*

Egia da bere hasieran filosofia gaur egungoa baino nonbait gogo handiago batez aritu zela, baina hori horrela gertatu izan zen sasoi hartarako, eta zio historiko-kultural jakin batzuk medio, ikergaitzat izadiaren objektuak zituen gogapen-mota —hala nola zientzia edo, nahi izanez gero, morala eta erlijioa— eta gogapen mediato deritzagun, hots, gogapen haren gaineko gogapena denaren arteko banaketa edo bereizketa garbia oraindino egin barik zegoelako. Aintzineko filosofoek, orokorrean, gogapen-mota biak nahasten zituzten bata bestearekin, baina hori horrela gertatzen zen ordurako oraindik ere egungo espezialitate zientifikoak gehien bat sortu barik zeudelako, eta, beraz, agian arruntena eta, beharbada ere, onena zelako sasoi hartan gogoeta modu biak nahastea. Gaur egun ezin da hori egin, noski, zeren jadanik topiko huts bat ez den ezagutzen gehikuntza berak ere, ezinezkoa egiten bait du norbera ezagutzaren alor guztietan espezialista izan dadin edo norbera giza ihardueraren alor zehatz bati buruz hausnartzen ari den bitartean hausnarketa horren gainean hausnar dezan. Hau da, ia ezinezkoa da norbera, adibidez, fisikaria eta era berean fisikaren filosofoa izatea. Aztertutako gaien konplexutasunak berak ezinbidetzen du —arras kasu berezitan izan ezik— pertsona bat eta berak eginbehar bietan parte har dezan. Horrexegatik ulertzen da filosofia gogapen mediato gisa zientziaren filosofian, mintzairaren filosofian, erlijioaren filosofian eta abarretan, non esandakoa oso nabaria den, baita ohizko beste ikergaietan ere, zuek aipatutakoak barne, metafisikan adibidez.

Eta metafisikan diot bai, zeren neuk oraindik ere damaiot toki eta eginbehar bat gaurkotutako metafisika bati. Ez, ordea, kosmologia antzerako zer edo zer bati, ezta emaitza zientifikoak haintzat hartzeke soilik a priorizko arrazonamenduetan funtsatutako teoria superfisiko orokorra eta orokortzaile bat asmatzeko gogoari ere. Egin behar dena zentzuneko metafisika da, non egungo ezagutza zientifikoaren eta, oro har, giza ezagutzamodu guztiaren oinarrian leudekeen uste ontologikoak aztertuko lirakeen. Azterketa ontologikoari zentzu osoa ematen diot nik, baina, jakina, eginbehar mediato gisa ulertuta,

hots, zientzi emaitzak eta, oro har, giza kulturaren garapen eta bilakaerak mediatizatuta.

Bestalde, etikari buruzko galderari erantzungo nioke hor normatibotasun hertsia, hots, giza jokaeraren gainean ustez unibertsalak diren baloreen edo ustez unibertsalak diren aginduen plazaraketan oinarritutako etika, eta giza kulturaren bilakaeraren arabera osatutako balore edo aginduei buruzko hausnarketa gisa ulerturiko etikaren artean bereiztu behar dela. Bakarrik etikaren bigarren ulerkera edo motak dauka, nere ustez, benetan oinarritzko betebeharrak bat egungo filosofian. Aitzitik, etikaren lehen ulerkera ere eta zalantzarik gabe, besteak bezalako giza kultur egintza bat izan daiteke; azken hau, berriz, ez legoke soilik filosofoaren eskutan, zeren gutxieneko sentiberatasun moralak lukeen edozein izan baitaiteke gauza bizi-modu egokia, jarrera zuzena eta haintzat hartu beharreko balore unibertsalak zeintzuk diren formulatu, plazaratu eta adierazteko. Ez dugu, hortaz, pentsatu behar filosofoak horretarako iaiotasun edo trebezia berezirik duenik, oster, sentikortasun apur bat edukitzeaz nahikoa da edozein gizakik aipatu bezalako proposamenak egin ditzan. Haatik, filosofoa gizaki horrek aditzera emandako kontzeptu, argudio eta oinarriak aztertzeke aproposena da, duen jakintza-hornizioa dela eta.

*Nola lagun dezake azterketa filosofiko horrek, adibidez, zientziaren garapenean edo gure jarrera moralen zuzentasunaren zuriketan?*

Ba laguntzen du printzipioz aldaezin, nabari eta ez problematikotzat jotzen dugun edozein iharduerari buruzko gogapenaren ahuleriak, okerrak, inkoherentziak edota arriskuak ikusterazten dizkigun heinean. Beti suertatzen da lagungarri edozein egintzarako —egintza demagun fisiko batetik hasi eta zientzia teorikoenetik abstraktuenera heldu arte—, edo gure egunerokotasunetik at gogoetak egiteko, edo gure buruari bide benetan zuzenetik gabiltzan itauntzeko, edo arazoak birplanteatzeko edo... etab. Une kritikiko hori, kanpotik begiratze hori uste dut neuk ez dela handikeria huts bat, egintza beraren, dena delakoaren, garapen, nolabait esateko, osasuntsu eta sendoagorako oinarritzko osagaia baizik.

## FILOSOFIAK

*Jorra ditzagun orain bestelako arazo batzuk. Arestian aipatu duzunez, ez dirudi gaur egungo baldintzek zuk filosofiaz egirik ulerpenaren aldeko girorik osatzen dutenik. Zailtasunetarikoa bat, oso zabaldua eta beharbada guztien ernamuina dena, iharduera filosofikoa edonoren eskutan legokeen ariketa doxistikoa bailitzan ulertzetik letorke. Ardura ez legoke orain, beraz, klasikoen eta beraiei atxekitako eraiketa kontzeptualen azterketa eta ikerketan, norberaren uste eta iritzien joraketan, hots, autodidaktismoa delakoan baino. Zein da klasikoen eta, orokorrean, filosofiaren historiaren lekua egungo filosofigintzan?*

Filosofia hitza sarritan erabili ohi da herri-mintzairan berak adierazten duena benetan ondo zehaztatzen jakin barik, inor, adibidez, estoikotzat edo, gauza bera dena, trakiltzat edo mantsoztat jotzerakoan “honakoa filosofoa dugu” baieztatzen dugunean gertatzen den bezala; oro har, ordea, denok erabil genezake berba bat gure gogo eta aisiara. Beraz, filosofia hitzaren erabilera herritar hori hor dago, baita edonor gogoetak egitera paratuz gero filosofo izateko nahikoa duela ustea ere. Are gehiago, ez dago txarto eginda horrelako norberarenganako ariketa hori, eta jakina delarik gutxieneko trebetasun intelektuala duen edonor edozein unetan bere bizitzari buruz, inguratzen duen munduari buruz eta abarri buruz hausnar deza keela, ez da filosofia terminoaren demagun ulerpen herritar hau, gaur egun eta sistematikoki sortzen den beste edozein bezala, oso espezialdua den egintza batekin nahasi behar, honek ez bait du inolako arinkeriarik onartzen. Gogapen filosofikoak aurrean izan dituen arazo kontzeptualen etenik gabeko gogapen kritiko, azterketa zorrotz, zehatz eta argudiatutako bi mila urte baino gehiago igaro ondoren eta, batez ere, azkenengo ehun urte hauetan arras teknifikatutako ostan, arinkeria galanta litzateke aipatu edozein hiritarrek hiriko lorategiaren jazarleku batean jezarrita izan zezakeen bost minutuko mamurketarekin parekatzea. Beraz, haintzat hartzeke utzi ezin dugun gogapen filosofikoko mailaketa zabal bat dagoenez, behar-beharrezkoa zaigu gogapen filosofikoaren historian zehar egin izan diren proposamen, azterketa eta aterabide ahaleginei

buruz begirunez aritzea, haiei buruzko azterketak patxadazko gogapena eskatzen bait du, eta haien ulerpen egokiak ahuntzaren gauerdiko estula baino zerbait gehiago.

*Mende honek filosofia "hizkuntz biraketaren" zentzuan bideratu duen tradizioaz erditu da. Zein da hizkuntzaren azterketari buruzko zure iritzia?*

Filosofian betidanik izan da jarrera analitikorik, edo behintzat Sokratetik hona, hura har bait dezakegu filosofatzeko eran lehen filosofo analitikotzat, Platonen elkarrizketetatik dakigunez, haren solaskideak hartzen zituzten jarren oinarri eta benetako esanahiei buruzko galderez josterakoan. Aintzinateko beste filosofo batzuek ere, Aristotele zer esanik ez, edo oraintsuago Descartes edo Leibniz bezalako filosofoek egun filosofia analitiko deritzogunarekin nonbait aldera genezakeen metodologia bat eskaini dute. Bestalde argi dago ihardunbide edo metodo analitikoak, filosofian eta sistematikoki, aurrera jo ahal izan zuela soilik analisi horiek sistematikoki jorrazteko teknika edo, nolabait esateko, lanabesa izan zuen unetik aurrera, eta hori ez zen gertatu logikaren adierazpenik modernoena agertu arte, hau da, batez ere, Gottlob Frege logiko eta filosofo alemaniar handia jaio arte, hots, orain dela gutxi gorabehera ehun urtetik hona. Une batzuetan XX. mendearen filosofia guztian eragin duen, eta gero eta gehiago zabaldu den metodo analitiko metodo linguistiko huts batekin nahastu izan da, arazoa hitzen azterketa nolabait esateko "amateur"-ean bailegoen.

Egia esateko, Sokraterengan eta Fregerengan ez zen egon, eta egungo filosofo analitiko handiengan ere ez dago, azterketa linguistiko huts eta arrunt bat egiteko asmoa. Hizkuntzaren azterketa lehen pauso gisa edo kontzeptuen azterketara, hots, maila sakon orokorrago eta, noski, emankorragora ere heltzeko bitarteko gisa erabiltzen da.

*Eta mintzairaren analititik hizkuntzetara itzuliz, ez da, adibidez, frantziar edo alemaniar zientziari buruz hitz egiten, bai, ordea, frantziar edo alemaniar literaturari buruz, filosofiarekin ere beste horrenbeste gertatzen delarik. Hortaz, ez al du suposatzen honek konpromisu ontologiko lar bortitza hizkuntza eta filosofiarekiko?*

Egintza filosofikoa hau edo beste “herri” honetakoa edo beste delata esatearen guztiz kontra nago. Nere ustez hau edo beste herriren filosofiaz aritzea frantses fisikaz edo alemaniar fisikaz bezain zentzugabea da. Filosofiaren oinarritzko arazoak, arazo kontzeptualak eta abar herri baten ustezko “senetik” at daude, edo behar lukete egon, halako “senik” inon balego behintzat. Noski, herrialde jakin batean eta une historiko jakin batean, besteekin konparatuz, gai filosofiko zehatz batzuk lantzeko grina handiago bat sor daiteke. Esaterako, huts egiteko beldur handirik gabe esan dezakegu Aintzinatean filosofia greziar filosofia zela, kontutuan izanik garai hartan inon filosofia garatu bazen Grezian bertan izan zela eta ez Pertsian, adibidez. Eta gerta daiteke, gaur egun ere, herrialde jakin batean filosofiaren garapen berezi bat gertatu dela baieztatzea edo fisikarena edo psikologiarena, baina, beti ere, beste herrialdeetan garatuarekiko. Hortaz, *per se* emandako frantses edo alemaniar filosofiaz aritzea, frantses, alemandar edo txinatarrek bakarrik atzeman dezaketen esentzia filosofiko bat bailitzan, izaera unibertsalekoa baino izan behar ez duen pentsamendu filosofikoaren beraren kontra jotzea dela iruditzen zait. Beste horrenbeste uste dut bereizketa ustez nazionaleri buruz, baita idiosinkratikoak liratekeen ustezko beste bereizketei buruz ere, hala nola arraza, sexu edo nere ustez inoiz inon gairekin zer ikusirik ez duten ustezko bereizketei buruz. Har ezazue nere kasua adibidetzat. Neu jatorri katalandarra duen Venezuelan jaiotako filosofiako irakasle bat naiz, Mexikon urte asko eman duena eta urte askotan zehar, zehazki hamar urtetan zehar bere egintza filosofikoa Alemanian burutu izan duena. Beraz, Katalunia, Venezuela, Mexiko ala Alemaniako filosofiarren ordezkaria al naiz neu? Itaun honek ez dauka inongo zentzurik. Neu mendez mende filosofiaren historian zehar gori-gorian egon diren eta dauden zenbait arazok arduratzen nau, eta hau da, ez besterik, filosofotzat jotzerakoan edonori eska diezaiokegun guztia.

Gogapen filosofiko jakin bat hizkuntza konkretu batez, adibidez, frantseseraz, alemaneraz edo ingeleseraz plazaratzera koan jakina da egon badagoela frantses, alemaniar, ingeles edo euskal filosofia batez aritzeko modu arrunt bat. Haatik ez dut uste benetan eraginkorrak diren gai eta arazo filosofiko

gehienak lantzeko arazo gehiago izan dezakeenik hizkuntza batek besteak baino. Hizkuntz natural guztiek dituzte arazo filosofikoak egoki jorrazeko akats berberak. Egia esateko eta filosofo analitiko askok frogatu izan duen legez, mintzaira natural guztiak lirakeke berdin-berdinak, hau da, txarrak eta eskasak. Fregeri esker dakigu, hain zuzen, oker kontzeptual asko gertatu izan dela mintzaira naturalaren erabilera ardurabako eta nahasi bategatik. Eta, Wittgensteinek esango zuen legez, gramatika-tanta batekin ari gara arazo filosofiko handiarekin gabiltzalakoan. Hau, berriz, ez da inongo mintzaira naturalaren berezko akatsa, zeren eta akats hori berdin-berdin izan dezake frantsesera, alemanera, edo ingelesera erabiltzen duen edozein filosofok. Beraz, ez dugu ahaztu behar ez dirudiela dagoenik frantsesera edo alemanera ama-hizkuntzatzat duten pertsonen oinarrizko ideia-egitura ezberdinak dituztela baieztatzeko inolako arrazoirik. Zeren, azken finean, mintzaira guzti horiek enbor beretik bait datoz eta ez bait dago joskera eta hitzen arteko aldeak munduaren ikuskera erabat ezberdinetik datozela pentsatzeko inolako arrazoirik. Azken uste horri zentzugabekeria deritzot, baita erraz errefutagarri ere, ahots filosofikoa gertatu izan den mintzaira natural handi guztietan adierazi ahal izan direlako, hain justu, jarrera filosofiko ezberdin guztiak. Frantses filosofia deitua izan den horretan ere ez da egia bertan murgildutako filosofo guztiek pentsaera merke eta azientifiko bera jorratu zutenik. Frantsesez elekatzen den filosofo bikain asko dago, eta Frege, Wittgenstein edo Carnap batek erabilitako metodologia bera jorratuz.

*Dakusagunez, filosofia "egoki" eta "desegokien" arteko bereizketa onartuko zenuke. Dena dela, filosofiak joera eta edukin-esparru zabal, ugari eta anitza agertzen du. "Filosofia" markaren azpian Kant eta Heidegger, Wiengo Zirkulu eta Hegel... bezalako filosofo ezberdinak leudeke eta, esandakoagatik, agian horietako batzuk eralkitzea komeniko litzateke. Uste al duzu zeuk, Popperen legez, Hegel eta Heideggeren mintzaira filosofikoetan dena dela posible, argudioak barik baieztapen hutsak baino ez daudela eta, hortaz, nazismoak aurrerantz jo zezan lagungarri suertatu zirela? Aipatu gertakizun zehaztetik harago, zein da ideia filosofiko eta konpromisu politikoaren arteko lotura?*

Noski, nere ustez filosofo guztion eginbeharririk lehenena, norberaren pentsamendua modu garden, zehatz eta autokri-

tikoenean adieraztea dena, ohartuta ala ohartzeko saldu duen filosoforik egon da egon. Hegel eta Heidegger ez dira, inolaz ere, argitasun kontzeptualaren txapeldun, eta, zalantza barik e re, sarritan Hegelengan ohartzeko izan zela baieztza bageneza, Heideggerengan ohartuta izan zela baieztza genezake, nola eta mintzairak, berez problematikoa eta nahasia den mintzaira naturalak, jartzen dizkigun segadak areagotuz eta mintzaira arrunta berez dena baino berbeta marapilatuago bat asmatuz. Hori oker filosofiko larria dela azpimarratu nahi dut, nahiz eta egile hauengan eta arazo batzuekiko intuizio emankor eta interesgarri batzuk aurki ditzakegun; ordea, berriz diot, eskakizun filosofiko gorenari dagokionez ez ziren behar den mailara heldu.

Hegel eta Heideggeren mintzairaren *delirium tremensak* kutsu irrazionalistako eta, azken finean, gizateriaren aurkako filosofietara bultzatzen zutenari dagokionez ez nago oso ziur. Ideien historiaren ikuspuntutik hartuta behintzat oso ikerketa gaitza suerta daiteke. Hegelen kasuan ez dut uste horre la denik, dakidanari eta nere gogapenei kasu eginez bederen. Heideggeren kasuan, ostera, nabari dago berak agerikoa eta guztiz onartuta zeukala ideologia nazionalsozialistaren aldekoa zela eta bere heriotzerarte izan zela ere bai, guzti hau orain arte ostendu gura izan den arren. Baina, agian, zalantzaren mese-dea eskaini beharko genioke beraren filosofiari, hau da, baliteke Heideggerek bere pentsamendu filosofikoan garatu zituen intuizio interesgarri batzuk eta, tamalez, kontrol bariko mintzaira baten azpian ezkutatu zituenak, ez izatea, halabehar rez, haren ideologia faxistaren ondorio. Baina, dena den, alde batetik oso gai konplexua dela eta bestetik, horri buruz erabateko iritzia emateko benetan prestatuta ez nagoela uste dut.

*Ohitura bat da filosofia analitikoaren osteko egoera hartzea egungo ikerkuntza filosofikoaren unea azaltzeko. Aurten (1991n) joera analitikoaren izen handia eta zuk intelektualaren eredu-tzat jotzen duzun Rudolf Carnapen mendeurrena ospatzen denez, ondorengo itaunak aproposa dirudi: norantz doa filosofia?*

Ba hori oso konprometitua eta ihardesteko arras gaitza den itauna da. Ez dauzkat aztiaren dohainak eta, beraz, guztiz gaitza zait filosofiak norantz joko duen iragartzea, inorantz badoa

behintzat. Nahikoa argi atzematen dudana, ostera, hartu beharreko bidea da, beste gauza bat izanen delarik azkenean hartuko duena, noski. Uste dut filosofiaren bideak, lehen ere isladatu izan dudanez, gero eta gehiago eta sistematikoago gardentasun kontzeptualaren alde jokatzearena izan behar duela. Hori berori bait da Rudolf Carnapen xedea eta, beharbada, XX. mendeko filosofiaren izenik paradigmaticoenarena. Hau da, geroan ardura filosofikoaren alor ezberdinen arazo zehatzetan isladatuko den oinarrizko xedea, hots, gure eta besteen ideien gardentasun gorenaren lortzera bideratuta egon behar duena, nahasteak, norbere buruarekiko iruzurrak eta mistifikazioak ekidinez.

## ZIENTZIAREN FILOSOFIA

*Zeure benetako arduraren murgilduko gara orain, zientziaren filosofian, hain zuzen. Berari buruz duzun ikuskerak orain arte elkarrizketa honetan orokorki jorratutakoa zehazta lezake. Beraz, eta lehenik eta behin, zein da zientzilari eta zientziaren filosofoaren arteko aldea? Nahikoa arrunta da zientziaren filosofoen artean eta, bereziki, izenik ospetsuenen artean “ezagun diren teoretararen lotzen duten gerriko dogmatikoak gainditzeko zientzilari gizagaixoen ezintasunarekiko”, eta abarrekiko urri-kaltasun jarrerak hartzearena, atzematen al duzu zeuk zientziaren filosofia oraintsu aipatu dudan zentzuan ulertutako egin-tza arauemate edo normatibo gisa?*

Zientziaren filosofo eta zientzilarien arteko harremani buruz esan behar dut arestian filosofia bigarren mailako iharduera edo gogapen bezala, hau da, iharduera errekurtsibo bezala aurkeztean aditzera eman dudana ikuspuntu orokorretik dakusadala; iharduera errekurtsibo hori, kasu honetan behintzat, lehen mailako gogapen zientifikoari, hots, natur zientzien kasuan izadia eta gizarte-zientzien kasuan gizartea azaldu, aurritsan, edo nolabait gobernatzeari ekiten dionari legokio. Beraz, filosofoak ez du helburutzat zeruetan edo atomoan, kromosometan edo giza garunean, gizarte primitiboetan edo mintzairan gertatzen dena azaltzea, alor ezberdinetan zienti-



lariek erabiltzen dituzten teoriak, metodoak, kontzeptuak eta irizpideak aztertzea baizik. Eta hori guzti hori zientzilariaren lana osatzeko asmoz soilik. Orduan, mailaketa argi bat dago hemen, eta ez dago, halabeharrez, filosofo eta zientzilariaren artean gehiegizko gurutzaketa edo lekualdatzerik. Jakina, filosofoak indarrean dauden eta egon diren emaitza eta ekarpen zientifikoekin jakinaren gainean egon behar du, hain justu. Ezin du, bapatean, zientzi teoria bati buruz ezer ere esan aurretiaz ez baldin badauka jakintza honek historian zehar izan den eta, bereziki, egun denari buruz gutxieneko ezagutza faktiko edo zehatzik. Baina, berriz diot, filosofoaren eginbeharra ez dago, inolaz ere, bera eta zientzilariaren arteko norgehiagoketan.

Bestalde, egia da zuek baieztatzen duzuen legez, mende honetan zientziaren filosofiaren zenbait joerak, zientzilariaren iharduera propioaren gainetik agertu asmoz edo, jarrera erabat arauemale edo normatibista bat hartu duela. Zientziaren zenbait filosofok izan du bere burua zientzia egokiaren eta zientzia desegokiaren artean bereizteko gauzatzen, hots, zientzi jokoaren egokiaren "araua" plazaratzeko gauzatzen. Zientziaren filosofiaren eginbeharrekiko ikuskera arauemale honi oker deritzot, edo oker baino gehiago, antzu, aski jakina bait da, filosofo batek, gura izanez gero, jokoaren zientifiko egokia zein den arautuko digun araudi bat asma dezakeen arren, haintzat inor gutxi hartuko duela, eta are gutxiago zientzilariak berak. Zientzia bere barne-dinamikaren arabera bilakatu da, eta filosofoarentzat benetan interesgarri dena, bilakaera horri buruzko iritzi arauemaleak plazaratzen aritea baino gehiago, lehenengo zientzia zer den arreta handiz aztertu eta zientziaren egiturari edo diren zientzi teoria guztien arteko aldeei buruzko teoriak, edo, geuk diogun legez, metateoriak formulatzea da. Zientziaren filosofiari buruzko nere ikusmoldea, beraz, erabat antinomatibista da, eta, nolabait hermeneutikotzat, edo honen kutsadurarik ez duen beste definizio bat erabiltzekotan, zientzi teoriaren ulerpen edo interpretazio-lantzat joko nukeena. Horrek ez du esan nahi, noski, zenbait zientzi teoria edo metodo zientifikoren azterketaren une zehatz batean filosofoak ezin izanen duenik ikertzen ari den gaien oker, huts, nahaste edo bestelako akatsik ikusi, literaturaren teoriko batek edo literatur kritiko batek Pío Barojaren elaberri batean estilo-akatsak

edo bestelako gorabeherak ikus ditzakeen era berean... eta zentzu horretan, hain justu, bota dezake filosofoak iritzi arauemalerik, eta hau guztiz zuzena da, baina ez oinarrizko egin-beharra, ezta haren lanaren benetazko xedea ere, ostera, gehienara jota ekarpen "kolateral" izan daiteke, zientzilariak gura izanez gero haintzat har dezakeena ala ez, azken kasu honetan ere ez delarik gauza handirik galduko.

*Zientziaren filosofoaren lana karakterizatzeke analogia oso argigarria erabili izan duzu. Zientziaren filosofoaren lana matematikariarena rekin alderatu duzu, alderaketa hau talde biek amankomunean dituzten balore estetikoetan oinarrituz. Aipatutako antzekotasunak zehazta zenitzan eskatuko genizuke.*

Topiko oso zabaldua da gaur egun pentsalari askorengan, matematikariak barne, matematikak edukin estetiko handia duela baieztatzen duena; uste honek matematika artearen parean jartzen du, baina ez musika edo pinturaren maila berean, musika eta pintura bera ere ez daudelako maila berean. Iritzi horrek, azken finean, arte-mota asko dagoela eta matematika horietariko bat dela baino ez du baieztatzen. Hortaz, matematika ere bere berezitasunak dituen arte-mota da, bereziki, matematikagintzak sortzen dituen balore estetikoak, zehaztasun kontzeptual, argudiaketaren funtsatze eta bereizte kontzeptualaren eskakizuna dela eta, bestelako arte batzuetan baino sistematikoki eta erabakiorkiago lotuta daudelako; bestalde, berauek dirake filosofia definitzen duten dohain berberak. Honek ere ahal den zehaztasun kontzeptual handienarekin eta funtsatutako argudiaketa zehatzenekin jokatu behar du, eta jokaera honek damaigu, hain zuzen, balore estetikoaren antzerako zer edo zer eta, era berean, ezagutzazko balorea dena. Hau da, teoria matematiko batek edo interpretapen filosofiko batek osa dezakeen artelanetik eta, berez, atsegin estetiko iturri izan daitekeenetik, ezagutza-modu berezi batera hel gaitetzeke, modu batez matematikoa eta bestez filosofikoa dena. Baina, dena den, filosofia eta matematikaren artean aipatutako antzekotasunak daude, arte-mota bi horien artean arte-mota bi horien eta besteen artean baino bortitzagoak direlarik, haietan ez bait dute hauetan bezain eginbehar garrantzitsurik zehaztasun eta funtsaketaren eskakizunek.

*Matematikaz aritzeak, filosofiari buruzko hausnarketa oro - korretik zientzia enpirikoaren hausnarketara garamatza. Zure ikerketen arabera zientzia enpirikoak berezko errealitate bat izanen luke, bere buruari soilik begira, edo, idatzi batean baiez - tatu duzunez, bere baitatik irteterik ez duena. Hau ez dator bat zientzia munduari begira dagoela, hots, bere burutik at dagoe - naz zurituta dagoela baieztatzen duen iritzia orokorrarekin. Ikus - kera bien ondorio epistemologikoak oso sakonak dira. Zein da zure iritzia zientziaren izakera eta eginkizunari buruz?*

Bai zientzia formaletan eta baita zientzia enpiriko guztietan ere, matematikak —eta, hain justu, hein handi batean matematikaren izakera nolabait artistiko edo sortzaileak— duen eragin gero eta handiagoak erakusten digu natur edo gizarte-zientzien ezagutza zientifikoa ezin dela gertakariei buruzko datu edo enuntziatu-z errenda soil baten mailan egon, hau da, ezin dela entziklopedia antzerako zerbait izan. Matematikak fisikaren teoria handietan, biologian eta gizarte-zientzia askotan duen funtsezko eraginak gero eta gehiago frogatzen digu benetazko ezagutza zientifikoa izakera arras sortzailea eta irekia duen egintza dela eta ezin dela datu bilketa soil batera mugatu, inoiz positibista eta enpiristek uste izan zuten legez. Are gehiago, “datu”, “sentsuen datu” edo “datu enpirikoaren” nozioak gutxieneko zehaztasunez ere defini daitezkeenik zalantzan jartzen dut nik. Egiatzko zientziak oro teoriaketa batean datza. Honek adierazten du errealitatearen ulerpena irekia dela, errealitate horri buruzko ikuskera ezberdin guztiak onartzen dituela zientziak; eta matematika erabili ahala nabariagoa zaie izakera edo jite ireki hori. Horrexegatik, hain zuzen, baztertu behar dugu zientzia datu edo gertakari-bilketa gisa ulertzen duen ikuskera entziklopedista merke hura. Zeren eta hura ez zen sekula izan, eta egun are gutxiago, zientziaren egiatzko eginbearra. Honek ez du ukatzen ordea, mende honetan positibismoari oso loturik sortu diren metodologia jakin batzuek bere garrantzi historiko handia izan dutela filosofiaren barneko gehiegikerien kontrako jokaeran. Haatik, zientzigintzaren izakera oker ulertu zutela onartu behar da, hura datu enpiriko bilketa hutsarekin parekatzerakoan. Azken hau agerikoa da induktibismo eta positibismoan, baita Popper eta honen jarraitzaileen artean ere, eta nahiz eta hauengan

esandakoa ez dagoen harengan bezain garbi, kutsua behintzat igertzen zaie iharduera zientifikoa, xedetzat dituen eta, adibidez, Popperrek zioen legez, teoria oso bat faltsutzerara ere hel daitezkeen datu erabakiorrez osatuta dagoela mantentzerakoan. Nere ustez, zientzi garapenaren ikusmolde hau erabat atzerakoia da eta ez du haintzat hartzen, prezeski, bata bestearen atzetiko teoria eraiketak errealitateari buruz isladatzen duen ikuskera guztiz ireki eta ulergarria. Egia da nonbait egun lehen baino gehiago dakigula, baina ez, halabeharrez, datu gehiago ditugulako, datu horiek lehen baino hobe eta orokorkiango ulertzen ditugulako baizik. Zientzi aurrerapena ez dator gero eta banakako datu gehiago izatetik, gero eta konplexutasun kontzeptual handiago bat lantzetik baino.

*Aurrerapenaz ari zara. Lortutakoak lortuta, ostera, zientziaren aurrerapenak gizateria mugarik ez duen muturreko egoerara eroan du. Zientzilari ospetsu askok bere ahotsa altxatu du egoera honen aurka, zientziaren ekarpenik aurreratuenak, egun, gerraterako erabiliak direlako salatuz. Uste al duzu zientziaren "erabilpen egokia" deritzonari mugak jartzea dagoenik?*

Inongo zalantzarik gabe uste dut zientzigintzak, bestelako giza egintzak bezala, gizartean oro har onartutako irizpide moral zehatzen menpean egon behar duela. Inork ere ez luke utziko, adibidez, sukaldariren batek jateko eder eta gozoak presta ditzan, horiek dastatzeko parada zutenengan gaixoa edo heriotza eragingo balute. Era berean, zientzi egintzak ere eta une zehatz batean izan dezakeen erakargarritasunak erakargarritasun, badauka bere arriskurik; hori dela eta, honen eraginpean bizi diren pertsona eta taldeei ekar diezazkiekeen ezbeharrak haintzat hartuz gero behintzat, moral eta sozialki gobernatua behar luke izan. Haatik, ez dut uste hori filosofook jorratu beharreko arazoa dugunik. Ametsa arazo horrekiko zientzilariak berak garatutako sentiberatasun edo zuhurtasun batean legoke, bere burua, nolabait esateko, autokontrol delako baten menpean jarriz eta bere eta gizarte osoaren begien aurrean pertsona guztiz ardurabako gisa erabat desprestigiatuta ez geratzeko mugak beraiek jarri behar dituztelaren kontzientzia hartuz.

Erakunde zientifikoak eta, batez ere, zientzi talde handiek, oraingoz bederen, bere burua gobernatzeko duten gaitasunak

ez nau batere etsitzen. Banan-banan hartutako zientzilari asko arazoaren jakinaren gainean dagoen arren, hain dute bere inguruko egoera *big science* delakoak, hots, maila handiko ikerketak, edo, azken finean, buru nabarmenik ez duen egitura batek nahaspilatuta ezen aipatu arriskuak ikusiko balituzte eta, hortaz, hasitako bidea bertan behera botatzeko gogoia izanen balute ere, maiz, ezin izanen zuen ezertxo ere egin. Indarrean dauden ikerkuntz egiturak oso boteretsuak dira. Hori dela eta, zientzilariak bere eginbeharrez izan beharko zuen sentiberatasun edo begirunea, beharrezkoa izanik ere, ez zatekeen nahikoa zuek aipatzen duzuen eta, jakina, egungo gizarteak konpontzeko duen arazorik bizi, larri eta zailenatariko bat denari aurre egiteko nahikoa, egungo gizartea gizarte zientifiko edo tekniko-zientifiko bat delako, hau da, funtsean zientzi garapenak eragindako gizarte-mota bat delako, eta, beraz, gizarte-antolakuntza mota honek dakartzan arriskuen jatorria gehien bat garapen zientifikoan bertan dagoelako.

Berriz diot, beraz, ez dela nahikoa izan, eta, ziur asko, ez dela nahikoa izango zientzilarien sentiberatze moral hori, beren buruak gizasemetzat hartuz gizalegez joka dezaten. Baliteke etorkizunean zientzi garapenak XX. mendean zehar sortu dituen deformazio moralak ekiditeko eta geroan ere errepika ez daitezen beharrezko izatea Estatuak bermaturiko legedi berezi bat, zientzi ikerkuntzaren mugak marraztuko dituen. Ostera, ahalik eta arinen jorratua izan behar den arazoa dugu hau eta, zalantzarik gabe, eztabaida eta liskar franko ekarriko du, baina azken aukera hau hobe da ostrokarena egiten jarraitzea baino; uste dut, ordea, egunen batean Estatuak ere zer esanik izanen duela guzti honetan. Dena dela, ez dut uste filosofo edota zientzilariaren artean bakarrik eztabaidatzeko arazoa denik honakoa; eztabaida publiko zabal batera irekita egon beharko luke.

## IDEOLOGIAK

*Filosofiaz, zientziaz eta abarrez aritu gara. Amaitzeko, beraz, ezin alboratu orain gutxi arte pil pilean egon den ideien historia.*

*XX mendea aurkaritza anitzeko mendea dugu. Ikur bateko mugi -  
mendu iraultzaileek eraginda hasi eta ikur iraultzaile ez uste izan  
den bezain ezberdinek eraginda bukatuko duela dirudi. Zeuk  
egun Berlinen duzu bizilekua. Talaia pribilegiatu horretan aipatu  
azkenengo ikur-aldaketa horien lekuan lekuko zara, beraz. Horrez  
gainera, azkenengo seihilabetekoan Leipzigen izan aritu zara ira-  
kaskuntzan. Zer deritzo zientziaren filosofo batek egoera horri,  
hau da, marxismoaren une larria, Ekialdearen hondamena,  
herrien birpizte eta berrindartzea Estatuarekiko, eta abarri?*

Horra da bai, “berlindar” gisa aldaketa politiko, sozial eta ideologikoko une arras harrigarri eta guztiz ustegabekoak hurrenetik bizitzeko parada izan dut, eta hori guzti hori ere, gizartean gerta daitekeen beste edozein aldaketa legez, nere hausnarketa filosofikoaren objektutzat daukat.

Aitzitik, azpimarratu behar dut arazoa hain dela konplexua ezen oraindino ez bait daukagu gertatutakakoari buruz gutxieneko azterketa egoki eta osatua egiteko urruntasun edo alde historiko nahikoa. Hortaz, zera baino ez dut baieztatuko ikusitakoaren arabera, orain dela hamarkada asko buru kritiko eta zorrotzenek jadanik zekitena, hau da, teoria marxista edo gizarteari aurreplangintza bat egokitzeko ahalegina, maila enpiriko-sozialean behintzat frogatuta dagoenez, azkenik ere, hutsala suertatu dela. Horren arabera baieztatu daiteke teoria marxista ziurrenik, gizartea eta forma ekonomikoiei buruz, zentzu enpirikoan desegokiak diren funtsezko ideiekin aritu izan dela, berauek ez dutelako gizartea teoria horrek nahi izan duen eran bideratu.

Bigarren galderari dagokionez, Ekialdeko Europako herrialdeetan gertatu den nazionalismoaren birpizteaz esan dezaket egungo garaiko gizarte zientzietan —teoria politikoan, esaterako— oraindik ere oso zabaldua dauden aurriritzi teoriko batzuk, adibidez, nazio-nortasunerako sentiberatasuna aintzineko gauza atzerakoia dela dioena, kolokan jartzen dituen heinean gogapen filosofikorako gai interesgarri deritzodala. Ekialdeko European jazotako mugimenduak ez dira bakarrik gizartearmantolakuntza marxistaren aurkakoak izan, beharbada, gehiago izan dira bere nazio-nortasunari eutsi nahi izan zaizkion eta nortasun horri ondoriorik larrienak jasanez tinko

eusteko prest egon diren herriak “internazionaltzeko” gogoaren aurkakoak. Nere ustez gizartea eta giza kulturaren etorkizuna azaltzen saiatuko den edozein teoriak etnia, edo, nahiago bada, nazio-nozioa haintzat hartu beharko du oso, hura ez dut eta, inolaz ere, ahitutzat jotzen, nozio hori barik ezin dira eta Ekialdeko Europan edo Hirugarren Munduan edota Mendebaldeko Europan ere, gertatzen ari diren prozesu politiko, sozial edota kultural asko azaldu eta argitu.

*Aipatu dituzun gertakari guzti horiek oinarritzat dituzten egitura ideologikoen bere garrantzi filosofikoa isladatzen dute. Zeuk ideologiaren azterketara zabaldu duzu tresneria metateoriaren egokipena, haiek ere teoria ideologikoa bainan aztertuz. Posible al da ideologiak zientziaren teoriak bainan aztertzea?*

Bai, uste dut zientziaren eta ideologia politiko-sozialen artean kontzeptu eta egitura-mailako antzekotasun edo puntu amankomun batzuk badaudela. Alde edo ezberdintasun haundirik ere badago, ordea. Hala eta guztiz ere, zientzia eta ideologiaren arteko aldea, betidanik alde izugarri eta are gaindiezintzat jo izan denez, eta nere ustez erabatekotasun horretan eusterik ez dagoen bereizketa denez, neuk, printzipioz edo gaitzetsiaren alde eta onartuaren kontra egitearren, interesgarri iritzi diot ideologiak zientziaren filosofian zientziaren sistema teorikoak aztertzen diren era berean aztertzeari, hau da, adibidez, sistema ideologikoen horien oinarritzako printzipioak zeintzuk diren identifikatuz, zein euren kontsistentzi maila, argudiaketan lortutako zehaztasuna eta, azken finean, nolabait esatearri, zein erabilitako egitura-mota. Uste dut hemen zientziaren teoriaren eta, nolabait esateko, doktrina ideologikoen artean ikerketa konparatzaile baterako ikerkuntza alor zabala dagoela, eta hain zuzen, paradigma ideologikoen pareka daitezkeen zientziaren paradigmei buruz, batez ere, Thomas S. Kuhnen ikusmoldeak zientziaren filosofian berriki garaturiko ideietan jadanik isladatuta dagoena. Haatik uste dut geroan ere jarraipena eman behar zaion bide interesgarria dela hau, eta nere aldetik ere hemen ekarpenen bat egiteko gogoia aitortu behar dut.

*Marxismoa bezalako totalitate ideologikoen hondamena ate berriak ireki ditu. Pentsakera jakin batzuek, esaterako, errealitate objektiborik ez dagoela azpimarratzen dute. Zein da zure iri-*

*tzia erlatibismo moral edo erlatibismo soziologikoari buruz? Zeuk hura dialogikoki eutsiezintzat jo duzu, zergatik?*

Erlatibismoak indar berritze bat izan du azkenengo boladan bai, agian, lehentsuago nioen legez, hein batean positibismoa edo induktibismoa edota razionalismo kritikoa bezalako eza-gutza zientifikoari buruzko ikuskera lar hertsien porrota dela eta. Baita ere beste hein batean marxismoak zuen gizarte-antolakuntzarako egitasmoaren ahitzea dela eta, nahiz eta hau justifikapena baino gehiago azalpena den. Nere ustez, erlatibismoa oraintsu aipatu ditudanak baino epistemologia antzu eta hutsalagoa da. Eta iritzi honen ziorik nagusia erlatibismoa berak damaigu, zeren erlatibismoa beti amaitzen bait da gurpil zoro baten jirabiran. Hortaz, iritzi, baieztapen edo metodoak oro bere egilearentzat soilik baliozkoak direla baieztatzen duen jarrera erlatibistak hobe egingo zuen bere burua ere irizpide horren pean jarriz. Jakina, “dena da erlatibo” irizpidea ere erlatibo da, erlatiboaren zale hori inkoherentea ez den bitartean, behintzat. Eta, halakotan, hots, inkoherente izatekotan, berarekin eztabaidatzea ere alferreko lana. Oстера, bere irizpidearekin bat badator onartu beharrean egongo da edozein jarrera epistemologikoari egokitzen zaion erlatibismoa bere epistemologia erlatibistari ere aplikatzerik badagoela eta, beraz, ontzat hartu beharko ditu jarrera ez erlatibistak ere, zeren eta onartuko ez balitu kontraesantetan eroriko litzateke. Hori dela eta, beste nonbaitean<sup>1</sup> jorratu dudana jarrera erlatibistaren gaineko argudiaketa edo errefusapenaren zehaztasunetara jo gabe, laburtuz adierazi gura dut erlatibismoa buruhilketa intelektual antzerako bukaerara garamatzen jarrera dela, hau da, “dena da on” motako jarrera ontzat joz gero “ezer ere ez da on” motako jarrerak ere indar hartzen duela, eta, hortaz, mututasun osoarenak ere bai.

1. *Pluralismo y recursión*, II.1. Kap.



# JAVIER MUGUERZA: ERRESISTENTZIAREN ETIKA

ASKOREN ARTEAN \*

---

Javier Muguerzak argitaratu duen “Desde la perplejidad” (PCE, Madrid, 1990) liburu berriak merezi du iruzkin txiki bat hausnarketa sortarazteko, batez ere mundu abertzaletik egingo zaion irakurketaren ondoren. Muguerzari buruz informaziorik behinena dugunontzat (*Consejo Superior de Investigaciones Científicas* delakoan Filosofia Institutuaren zuzendari), Kultura Ministeritzak eta Ikerketa Konstituzionaletarako Zentruak liburu mardul hori argitaratzeko eman duten diru-laguntza ez da eragozpen, jakiteko bertan betiko Muguerza zehatza eta zindoa aurkituko dugula, benetan garrantzitsua den guzti hartan. Ohitura intelektualak, eta beraz moralak, nekez lortzen direnez, ez dira bapatean bertan behera uzten. Horrexegatik oso “Muguerza” gutxi dira, bakarra dela ez esatearren.

Trantsizioko garai hain gertu eta hain urrun haietan, ohizko gauzatat har zitekeen Javier Muguerza ikustea bai Bergarako UNEDen eta bai sortzen ari zen Zorroagan, alde batetik Madri- len eginak zituen adiskide zaharreatatik, eta bestetik euskal arazo nazionalaren hedapen soziala eta izakera eskuztatze- ko zeukan interes bereziatikat, beronek trantsizio-prozesua azkartu ez ezik honen azken muga egokia ere auzipean jartzen zue- lako. Erraz ahazten zituen jende gehiegik estatu frankistaren nazionalizazioak, erakundeen eta sinboluen jabetza demokra- tiko berezia eta, ondorioz, hauekiko identifikapena baino ez zenak, itzuri egiten ziola estatu nazioanitzaren gaiari, eta beraz beronen berdinketa nazional ezinezkoari. Ahaztura honetatik datoz arazo politiko eta moral batzuk, ezinbestean hunkitu behar dutenak, prozesuaren neurri tragikoaren aurrean, hun- kimen zantzurik duen pentsalari zorrotza.

Muguerza garai batean filosofia anglosaxoi analitikoaren aldarrikatzaile nagusia izan bazen ere, espainiar mundu aka- demikoan nagusi zen eskolastikaren aurrean zorrotzasuna- ren alde jokatzuz, Kuhnen “Iraultza zientifikoaren egitura”ren gorakadak Popperen paradigma positibista eta faltsutzailea hautsi erazi eta ondoren eztabaida sortu zuelarik, berehala konturatu zen zorrotzasun zientzizaleak hartua zuen neurri mitologikoaz. Oinarrizko abiaburu dogmatikoak, positibismo fo ma guztiek partekatzen zutena, “falazia naturalista”ren sala- ketak edo “izate”tik abiatuz “izan beharra”ren ondorioztapen ezi- nak, ezkutarazi egiten zuen ideologia edo mitologia zientziza- leak buruturiko ondorioztapen errazegi hura. Zientifikoek, zientifiko gisa, garbitasun metodikoa aldarrikatzen zuten ritualki, eta honek ez zien galerazten, praktikara gerturatzen ziren orduko, ideologorik arruntenak bezala jokatzea.

Muguerzak filosofia analitikoan zuen trebetasunak eta filo- sofia politiko, moral edo praktikoak sortzen dituen arazoengatik zituen kezkek, bitartekari intelektual, politiko eta akademikoan- ren eginbeharra hartu erazi zioten itxuraz sekularizaturiko “kristau eta marxista” jendearen arteko eztabaidan, garai har- tan hain indarrean, ez bait zen “analitikoaren eta dialektikoaren” arteko elkarriketa baizik, ezinbestean bihurtuko zelarik “libe- ral eta marxisten” artekoa. Ez dezagun ahaztu, gaur egun

hausnarketa teoretiko zurrinak irudi lezaketen haiek ulertzeko, bere garai historikoan (frankismoaren amaiera ekidinezin eta berehalakoan eta ondorioz artean jaio gabe zegoen erregimen berriaren eraikuntza unean) ezarri behar direla.

Jadanik bere lehen liburuan, “La razón sin esperanza” (Madrid, 1977), 1967tik 1974era bitartean idatziriko artikuluen bilduma zen hartan, erakusten ditu bizitza osoan bidelagun izango dituen kezkek: arazo etiko praktikoak, hau da, politikoak, eta hauen azterketarako erabiltzen duen zorrotasun intelektuala. Zorrotasun intelektual honek eramango du zientziaren edo arrazoiaren mugez oharteraztera, arrazoiak ez bait du beste funtsapenik bere dituen funtsetan sinestea baino. Eta zientzia, zientzia den heinean, ez da gai ideologia eta mitologiarekin amaitzeko. Aukeraren zani daude hauek berriro agertzeko, eta aukera hau praktikara jotzearekin aurkezten zaie. Horregatik ahalegintzen zen etengabe Muguerza une berean adierazten, distantziatu beharra razionalitate erabiltzaile garaikidearen itxura hartzen duen arrazoiaren mitologizazioaren aurrean, eta arrazoi baten behar itzuriezina, ulertzeko eta, kasurik hoberenean, mugatzeko nihilismo oro, hala funtsatuko delarik garaiekin bat datorren praktika hori. Honekin pentsamenduaren betiereko arazoetara itzultzea baino ez du egin: egiazko metafisikara.

Honen erakusgarri ona litzateke “De inconsolatione philosophiae”, iruzkitzen dugun lanaren bigarren zati gisa ageri den elkarrizketa metafilosofikoa: “Desde la perplejidad”, aurretik ere ezaguna zena, M.A. Quintanillak zuzendutako “Diccionario de filosofía contemporánea” (Salamanca, 1976) hartan arduratua zuelako, garai hartako belaunaldi baten adierazpen filosofikoa izan zelarik. Metafisika onak betiereko arazo moralak planteatzen ditu, beti daudenak azken konponbide baten eske, zeren eta honetarako gidari izan behar duten moralak eta intelektuak beti eta egoera orotan bait daude borrokan. Arazo moralak betierekoak direla jakiteak, badaezpadako distantzia bat hartu erazten du, benetako konponbidearen aldarrikapenean amore ematen ez duten eskola beti berrizaleen baieztapenen aurrean. Hortik, geruza analitiko, marxista edo neoneietzschetarraren azpian gordea, beti berri denaren aurka,

Muguerzak pitxakada bat ur hotz botatzea, egia zahar eta eternalak gogoraraziz, filosofian bidailagun dituenen bihotzerreak lasaitzeko.

Bere azken liburuari zuzenki lotuz orain, nabaritzen den lehena hasierako arazo hura berriro aurkitzea da, eta hari buruz iharduteko asmo zorrotza. Benetako arazoek ez dute inoiz buru argia gogaitzen, ezta hunkiberatasuna lausotzen ere, eta behin betirako erantzunik ezean, zalantza sortzen dute berriro. Hortik aintzinakoek jakintza praktikoarekin edo zuhurtziarekin zeukaten seta, ezezagunak zituztelarik, ondorioz, arrazoi teorikoaren eta arrazoi praktikoaren arteko amildegiak sortzen dituen arazo modernoak eta “izana” eta “izan beharra” aldentzen dituen leizea.

Liburuko atal luzeena, “III. Para una crítica de la razón dialógica”, lan-multzo batek osatua da, azken urte hauetan eztabaida eskolastiko-akademiko hits eta antzuak piztarazi dituzten polemika bi haiei buruzkoa: John Rawlsen “La Teoría de la Justicia” (1971) hartan oinarritutakoa, eta Jürgen Habermasek bere “Teoría de la acción comunicativa” (1981) harekin iradokia. Esan liteke Muguerzak burutzen eta azkentzen dituela eskola-polemika ahitu bi hauek. Rawlsek zein Habermasek berez eman ahal izan dutena, kasurik hoberenean ere, beren funtsa ezkutuak ulertzeko bulkada baino ez da. Orain benetan hartu behar dira arazo teoriko-praktiko errealak, pentsamenduaren tradizio hoberenaren kezka izan direnak. Ezin bestekoa da Kantengandik Rouseaurengana itzultzea, Cassiren bidez edo Straussen bidez, eta hark piztarazia, tradizio hoberenean funtsatutako gatazka berreskuratzea, garai demokratiko berrien ikuspegitik: Demokrazia Nazionalaren funtsapena. Iraultza marxistaren paradigma ahitu delarik, berriro sortzen da “ezinezko gailendua”ren arazo: Nazioa. Begia duenak, eta gutxieneko hunkimena, ez du egunkariak edo teletistikak ikustea baino. Nahiz eta beti dagoen, egon den eta egongo den “ikusitako ezin duen begirik...”. Horrexegatik, Rouseauek berak, ez zuen eragozpenik izan bizi izan zituen garai intelektualduak iraintzeko: “sentitzen dut, beraz, banaiz”. Uztartzen da sentimendu hori, azken batean, bizikera edo bizilege batekin, kultura batekin: Montesquieu eta Hegelen “L’esprit general” edo “nazional” harekin.

Hirugarren zati hau “azken-hitz teologiko-politiko” batekin amaitzen da. Iharduten da lan honetan historian zehar teologia-politikoak planteatu dituen arazo eterno haiei buruz. Tamalgarria da, baina, hiru autore ren (Kolakowski, Bloch eta Horkheimeren) ikuspegitik egitea, desitxuratu egiten bait dute hauek beronen uztardura tradizionala, klasiko zahar eta berrietan aurki dezakegun oharren argia txirotzen delarik. Hauen aldetik dagoen “aurreiritziaren apologia” edo “tradizioaren begirune gupidatsua” ez da alferra, aitzitik, giza bizitzaren oinarri moral ezabaezintzat hartzen da. Honek ez du eragozten arazoak bere eginbeharra izatea beharrezko sinesmenak unean uneko eskaera historikoetara egokitzerakoan. Salvador Ginerrek “giza erligioa”ri buruzko artikulu bat argitaratu berri izatea, eta liburu baten berehalako argitaralpenaren iragarpena, abagadune ederra izan daiteke betiereko arazo teologiko-politikoak berriro aztertzen hasteko, Rousseaturen erara birplanteatuak eta garai demokratikoen ikuspegitik, “giza erligioa” postulatzeko bait da demokrazia nazional ezina eta ezinbestekoaren elementu euskarri eta osagarri gisa.

“Otros diálogos” izeneko IV. zatian, bere inguruko argitaralpenak iruzkintzen ditu, “do ut des” ekidinezina edo elkarrekiko laudorioen gizartea (dituen ezberdintasun zehaztu haiekin eta askotan sasi eztabaida itxuraz kritiko gutziekin ere), morrontzena edo, antza denez jende askorentzat, irakaskuntza mundutxoan partekatzeko ezin bestekoak diren eskupekoena. Balio sinbolikoen merkatuan, merkatu orotan bezala, txanpon ahulak indartsua ordezkatzeko joera du. Zenbat morrontza jasan behar den! Zein gutxik lortzen duen, Javierre k ondotxo dakien bezala, zurigabe irtetea morrontza horretatik!

Azkenik, pasarterik laburrena (I. eta V. idazpuruek osatua) eta funtsezkoena dena, mundu abertzale zalantzatsuentzat duen gertutasunagatik. Bertan aurkezten digu filosofia “bizitza-egitamu” gisa, edo nola saiatzen den “lanbidea” eta “zale-tasuna” uztartzen, Javier Muguerzaren beraren adibide besterenezinean. Ekindinezina gertatzen den autopropaganda bakarrik legezkotu daiteke gizabanakoak izan dezakeen balizko adibidetasun sozialaren kasuan. Garaitutako behaztopoak azpimarratuak geratzen dira balizko ibiltari haiei laguntzeko eta

bidaiak merezi duelako baieztapen intelektual eta bitalak hasberrien morala hobetzea du helburu. Azken batean, ondorioztatuko luke (filosofiaren bidezidor ezberdinetan barrena luzaz ibili ondoren) filosofia filosofia praktikoa dela, edo morala, ezer ez bestela. Badaki ondo oinarritua dagoela, eta behin eta berriro agintzen digu oinarri hau zehazten saiatuko zaigula. Pozarre n gauzka itxuiten, eta lehiatzen dugu laguntza eman dezan lehenbailehen, elkarrizketa Teorikoaren maila hobetzeko, bizi garen sasoiaren neurriko iharduera bat ahalbidetuko duena.

Atal hauetan, hain zuzen, maila esoteriko edo inizatiko batetik abiatuz beste exoteriko edo, hasiera batean behintzat, mundu orok ulertuko duen maila batera iragango da, eta lau haizetara aldarrikatuko du Muguerzak zerk erremintzen duen gorputz eta arimaz: “gatazka nazionalak”, eta zehazkiago, euskal abertzaletasunak. Erremintzen du, eta zuhurtziaren mugak gaintzera darama honek.

27. orrialdean, jadanik, lehen keinu inizatikoa egiten digu. Gogorazten digu Muguerzak, “nortasun nazional berri” baten artikulazioaren inguruan: “Hegelek egun batez “historiarik... eta filosofia akademikorik gabeko herri” deitu zituen haien erresistentzi ahalmen numantziarra”. Gogoratu behar da Marx eta Engelsek hegeldar izaten jarraitu zutelako honetan.

“Demokrazia zuzena”k eta “demokrazia ordezkaturia”k sortutako arazoak iruzkindu ondoren, arrazoi teorikotik arrazoi praktikora igaroko da; badaki demokrazia demokrazia nazionala dela eta, espainiar demokrazia herabe eta ergela zuritu behar duelarik, esango du: “oraindik hauskorra den Espainiako demokrazia parlamentariari egingo zaion kritika demokratiko oro, nire ustez, oinarritu behar da, iraulketa orori aurka egingo bazaio, sistema demokratiko honen alde edo moldezko defentsan”. Baina aipatu esaldian honako testua tartekazten du: “salbuespena egingo delarik, beronen partaide izatera, eta espainiarrak izatera ere, ukatzen diren nazionalismo haietatik datorrenarekin, hala egin bait dezakete legezkotasun guztiarekin” (194 or.). Ez da gutxi madrildar mundutxotik datorren batek esateko. Pentsatu behar dugu, atzera begira, usteak ustel gertatu direla, “Palmar de Moya”n, jadanik urrun dagoen 78ko saio haietan, adi zegoela burutsuren bat.

Amaiera iristen denean, “Conversaciones con Ignatius M. Zalantzamendi”, V atalean —liburuaren aurkibideari emandako lehen begitaldian ere nolabaiteko morbo intelektual eta morala sortua ziguna—, piztutako itxaropenak bete-betean gorputzten dira. Topatu dugu, azkenik, “giltzarria”, edo haragi eta hezurreko Javier Muguerzaren oinaze ziren arazo teoriko-bital-moralak.

Zalantzamendik —Estatu Batuetako mendebaldean bertan kokatzen den fikziozko pertsonaiak, eta Javierrek bere irudimenean “Euskaletxea”n ezagutzen duenak— irratarako elkarriketa bat egiten dio Muguerzari. Honek bere kabuz egiten du aitortpena, gogoz eta lau haizetara, ez dizkio inork hatzamarra ahoan sartu behar, ezta “hirugarren maila”koa ezarri behar ere. Ez dira Rousseuren “Aitortpenak”, ezta “Ameskeriak” ere, baina interesgarriak dira; interesgarriak direnez, batez ere EHU/UPVn bizi den giroan, “ubi patria, ibi bene” (nire aberria non, nire ongia hantxe) sentitzen eta pentsatzen dutenak, asaldaturik bait daude bertan, tenteltzat edo hartzen dituzten lankideen artean, ez dutelako betiereko ikasgai lurtar hura ikasi: “ubi bene, ibi patria” (nire ongia non, nire aberria hantxe).

Bizi garen sasoi honetan, gortegizon bihurtu diren iraultzaile ohiak hain ugariak direlarik, ezinbestekoa du Muguerzak “distantziak erakustea”. Galdetzen zaiolarik ea oraindik ere “ezkertiar”tzat duen bere burua (664 or.), erantzuten du: “egia esan, edozein ezkertiar zaharrek ustekabeko txikienean kargu publiko bat eskuratzeko arriskua duen garai hauetan, nahiago dut esan, bizitza osoan zehar eskuindarra izan naizela, hori bai, nire erara”. Distantziak erakustea da bat errespetatua izateko eta, neurri batean, kutsadura gortezaletik salbu gelditzeko era bakarra.

Ondoren ezin du ironia ekidin, antifrankista espainiarren aurkakotza ohoretsuaren aurrean, eta gaur eguneko hainbeste “gorri” eta “gorrixka”ren gezurrezko martirio pertsonalaren aurrean. “Benetan nekagarria izan zen Franco zaharrez eta ohean hil zedin lortzea. Ahituta amaitu genuen”. Mundu guztiari eta batez ere belaunaldi berriei gogora eraztea komeni diren gauzak dira, espainiar demokraziaren sorrera mitologi-

koari buruz hainbeste asmakeria baldar egiten denean. Ia uler-tezin bihurtzen bait dituzte, unibertsitatearen esparruan ere, berez ulerkaitzak ziren damokraziarako iraganbidearen prozesu amaiezinenaren lorpen eta ezariak, espainiarra bezalako estatu nazioanitz batean.

Hain arantzatsua den gerla zibilaren gaia aipaturik (36koa, askori 36an gerla bat izan zela gogora erazteko), aurpegia aterratzen du, nahiz eta bertan hausteko arriskuan jarri —baina arrisku hau inolako aitzakiarekin saihestu gabe, baliabide errazegia bait da gutxieneko trebezia duen edonorentzat—. Ez dezagun ahaztu auto-elkarrizketa bat dela. Baina ez dezagun, halaber, ahaztu, filosofo moralala dela, eta beraz etengabeko “paideia” erakusgarri batera behartua dagoela: “senide arteko gerla hartan erruz erabili bazen ankerkeria, bi taldeen aldetik, halaber erabili zen erruz eta mugagabe zintzotasuna eta esku-zabaltasuna ere”. Onartu behar zaio ausardia, hainbeste progre ponteigel horien artean, katedratikoa edo CSICeko kide sonatua bada ere, azken hauek, beren heziketa-maila gorenean, asko jota “Frankforteko Eskola”ra baino ez bait dira iristen, Habermasen gidaritzapean. Beronen nortasun nazionalei eta nazio-ostekoei buruzko txostena, adibide paradigmaticoa da progre sasiletratu guzti hauek dituzten ezintasun intelektual eta moralena, ezin bait diete aurre egin, eta beraz ulertu, munduko bi gauzarik serioenei: Estatuari eta Nazioari.

Eta ez da lasai gelditzen bere hasierako biraoarekin. Berrito ekiten dio Muguerzak: “gerla zibila egintza basatia da, baina senide artean beti dago adiskidetzeko aukera”. Non gelditzen da “klase borroka” hutsegin ezina? Progretxo inozo eta errugabeen jarrera guztiaren oinarri ezkutua? Javierrek badaki zertaz ari den, “klase borroka” beti dago esparru nazional batean baitaratua. Bere ahalmenean bezala bere mugetan, ulertzen ez duenak ez du inoiz ezer seriorik ulertuko. Denbora luzea da Hans Kohnek argi eta garbi utzi zuela estatu nazional gisa antolaturiko nazio orok bata bestearen atzetik datozen une sortzaileetan aldarrikatzen duela: “senidez osaturiko nazioa gara!”. Zer ez genuke emango gutako askok Euskadin ere ahobatez aldarrikatu eta entzutearren: “sendiez osaturiko nazioa



gara!”. Esan beharrik ere ez dago, ondoren berehalaxe, beste edonon bezala, borrokan hasiko ginатеkeela elkarrekin.

P ropaganda ofiziala edo sasiofiziala sinesten badugu, nazionalistena ez den Estatu europazaleenean bizi garelarik, eta munduko jakintsu ahobero kosmopolitenak ditugularik, Javierrek hitz egiten duen bezala hitz egitea “tradizio filosofiko nazional”ei buruz (668 or.), nahi diren zehaztasun guzti haiekin ere: berriro biraoka aritzea da. Gauzak horrela bait daude, hala-beharrez. Bazter ditzatela aurreiritziak santujale ezjakinek —unibertsitateko modernotasunaz eta aurrerazaletasunaz mozorrotu horiek— eta ikas dezatela behingoz.

“Izana” eta “izan beharra”ren arteko amildegi teoriko, eta ez praktikoa, gogoratzen du, gaur egun benetan arriskutsua dena ez dela “*izanaren ahaztura*, baizik eta *izan beharraren ahaztura*”, behin eta berriz adierazten du, eta ondoren, harira ekartzen ditu “etika” eta “etikotasuna”ren arteko ezberdintasunak piztarazten dituen arazoak. Honen bidez iradokitzen dira kontzientzia oneko “españolitoa” izateko zailtasunak. Zein historia nazional gogor, urrun eta gertua hartu behar den bere gain! Ez da zaila ulertzea, zein zaila den espaniarrarentzat bere izate nazionalaz argudiatzea! Eguzkia sartzen ez zeneko Inperio nazioanitz batetik beronen zatikatzerara, berezko ezgaitasunaren ondorioz; eta estatuan bertan aurkari ziren ezaugarri nazionalak zirela eta, “gerla zibilez” betea egon den historia; eta kanpoko gerla moderno bakarra ere ez, “ahaide nazioa gara” hura zuritzeko.

Ez da horregatik harritzekoa ondoren honakoarekin aurkitzea: “bere burujabetasunaren alde ari den herrialde txiki baten abertzaletasuna guztiz errespetagarria iruditzen zait eta ez nuke ezer *zintzotasun abertzaleare*n aurka edukiko, bertute herritarrak norabidetuko lituzkeen iturri gisa” (689 or.). Benetan harrigarria dena, aurrerantzean aldatz behera abiatzea da: Euskal Herria sartzen da eszenan bete-betean.

Aldez aurretik sentipen nazional nahasi batzuen aldarrikapena egin ondoren, “nik ere gogoko dut nazioz euskalduna naizela zehaztea, jaiotzez andaluza banaiz ere, eta Max Aubek dionez, *bat batxilergoa egin duen lekukoa* dela ahaztu gabe, onerako edo txarrerako, Madrilen egin bait nuen”, argi geratuko da, sentsibilitate teoriko-praktiko zorrotza eta batere eskua-

tsegina ez denaren jabe dela, ezinbestean bait doakio ondotik, bere buruarekiko begirunearen partaide gisa, bestearekiko begirunean taxutu den gizakiari. Gainera, berak aitzindari-tzen duen “erresistentziaren etika”k eta nazio txiki bateko kideek asimilaketari jartzen dioten erresistentziak badute antzekotasunik, eta balio praktiko-adibidegarri honek txundidura sortzen dio. Ez da ustekagabeko gauza prest egotea herri honekiko bere aintzinako jatorriarekin uztartzeko. Berak ia basamortuan predikatzen duena —zorroztasun intelektuala morala den heinean eta alderantziz— egunero ikusten du herri honetako alde garrantzitsu batean.

Esan behar duena erabat esateko, inozotasunaren baliabide zaharra erabili behar du, itxuraz ergel samarra eta ondorio askorik gabekoa, baina batzuetan zilegi duena bizitza eta izen ona onartzen zaion jendeak. Gauza jakina izan da beti jeinu eta jakintsuei halako zorakeria eta ergelkeria batzuk barkatu behar zaizkiela!

Konfederazioa, autodeterminazioa eta burujabetasuna —beraz, euskal “subiranotasun nazionala”— sartzen dira auzian, eta hori hainbeste ponteigel asmo onekorri burmuina eta bihotza lausotzen dien bortizkeria infernuzkoa hor egon arren. Yoyesi egiten dion aipu exoteriko berak, ezin dezake usteldu benetako irakasgaia: “arrazoi etikoengatik nago erabakia autodeterminazioaren alde”. Ez dezagun ahaztu etika honek pentsamenduaren tradizioz hoberenean eratu den intelektuaren legeztatapenean egon gogo duela. Apur bat geroago indarrez baieztatuko du: “*Euskal arazoa* euskaldunek konpondu behar dute eta euskal jendea izango da euskaldunek halako konponbidearekin nora iritsi nahi duten erabaki beharko duena eta, halaber, estrategiak eta lortzeko epeak” (690 or.). Abiaturuak baieztaturik, ondorio logikoak gorabiderik gabeak dira. Utz diezaiogun irakurleari bere ondorioak ateratzen. Gogoratu baino ez, Javier Muguerzak ondotxo dakiela autodeterminatzeko, bai maila nazionalean zein pertsonalean, berau egiteko askatasuna eduki behar dela. Dena ez dago norberaren mendean eta batzuetan ezin dira gorde bizitza ondo sustraituaren jarrera zainduak. Ez legoke, beraz, soberan, Brechekin gogoratzea —Muguerzak ere behin eta berriz erabiltzen duena—

“injustiziaren aurka oihukatzen duenari ere urratzen zaiola ahotsa”.

Zalantzamendik aidean hartzen du Muguerzak egindako Brechten aiputa, lehenago bezala aitorturik: “ezin gara beti e re moralak izan”, eta agian “Zeruan pertsona ona” rangan pentsatuz berretsiko du: “ezin gara beti moralak izan” (685), tradizioaren hitzetan ekarriko digularik gogora Maquiavelliren “behar politikoa” edo Montaigne eta Pascalen “s’abêtir” behar orokorrago hura.

Gainera Muguerzak lehenago ere jarria zuen agerian, ingurumaria orokorrago batean, etika isildu egiten dela elkarrizketarako subjektua onartua izateko bortizkeria beharrezkoa edo ezinbestekoa egiten denean. Egokitasun osoz gogora erazten digunez: “Hegelek oharterazi zigun *onarpen borroka*, heriotz borroka izatera irits zitekeela, eta dirudienek Kantek berak ere ez zituen gauzak oso bestela ikusi” (327). Ondorioz, Muguerzaren arabera: “Ezin badu etikak bortizkeria zuritu ezin du gaitzetsi ere, baldin eta erabiltzen dutenei elkarrizketarako aukera ukatu bazaie, zeren elkarrizketaren bideak ukatzea beren baitan helburu izateko baldintza ukatzea baino ez da, baldintza hau gabe ezina bait da beren ekintzen etikotasuna epaitzea bera ere” (328). Biltzen ditu 372 orrialdean 224 eta 225 ohar lotsati batzuk eta zehazten du, *Herria Eliza 2000*-n idatzituen lan bat gogoratuz, aurreko arazoak euskal arazoari egokitzen zaizkiola.

Soziologo garen aldetik, geure ezadostasuna erakutsi beharrean gaude Weberk, etikaren eta politikaren arteko harreman korapilatsuen gainean burutzen duen maisu azterketaz egiten duen irakurketa, izan ere “politikak egintza bide berezia du boterea, eta honek berekin dakar bortizkeria” (Weber). Muguerzak dio: “Weberen gainetik ere, ziurrustearen etikak indarrean iraungo du eta balioko digu gogoratzeko giza egintza ondo asko izan daitekeela tragikoa”. Guretzat ez dago halako aitzakiarik. Ziurrustearen etika horrek duen etorkizun berehalakoari(?) buruz Weberek duen ikuspegia goibela da, baina erantzunkizunaren etikaren osagarri beharrezkotzat hartzen du, “benetako gizakia, *bizitzasmo politikoa* izan dezakeen gizakia hezitzeko”. Oso ondo daki, hala ere, honetan datzan arazoaz eta duen

betiereko gaurkotasunaz. Izan ere, Weberen obra guztiak erakusten digu gutxi daudela historian arazo hau berengain hartu dutenak, ez bakarrik teorikoki, baizik eta praktikoki ere bere nerantzunkizunetan, kontzientzia argiago eta tragikoagoaz, eta kontzientzia bera hausteko arriskua onartu dutenak.

Lan honen lehen erredakzioko izenburuak (“Mundu abertzale zalantzatsutik, agerikoaren aldeko etengabeko borroka horretarako”) aipatzen zuen zalantza, ez dagokio neurri berean Javier Muguerzaren zalantzari —jakina intelektualki partekatzen duguna, nahiz eta bizitzan ez dugun astirik itxura egiten ibiltzeko— baizik eta Estatuan eta bere unibertsitateetan nagusi diren eremu intelektual haienari; eta zehazki EHU/UPV honetan, gure eguneroko ogia izan beharko luketen hainbat egia garbi gogoratzera kanpoko bat —eta Muguerza— etorri behar zaigunean sortzen den zalantza da. Esker oneko gatzaizkio Muguerza jaunari horregatik.

Gure nazioaren egoeratik, uler daiteke “Honoris Causa” horiei ematen zaien garrantzia eskasa, hain maiztasun handiz asaldatzen bagaituzte ere. “Erresistentziaren etika” ihardunbide duen batentzat, ondotxo dakigu zein balio gutxi duen mundu honetako harrandiak, mundu honek Filosofiaren balio konparaezinari ematen dion balio gutxiaz ere dakigun bezala. Begirune intelektual eta moralaren neurritan balio dezakeenerako, esan beharko genuke norbaitek merezi badu, hori Javier Muguerza dela. Ziur gaude estimatzen jakingo duela.

Euskaratzailea:  
*ANDER ITURRIOTZ*

\* Agustín MINONDO, Beatriz MIRANDA eta Juanan BARRENETXEA dira artikulu honen egileak

# AHAZTUAK

JAVIER LAVIÑA

---

1807ko uztailaren 27an, 18 kanoiz armaturik, 300 toneladako untxi bat abiatu zen Liverpool-eko portutik Afrikarantz. Britainia Haundian beltzen tratua debekatu aurretik abiatu zen azken untxia zen. Amaitu egiten zen legalki 400 urte iraun zuen merkataritza. Baina beltz-tratataritza ez zen benetan bukatu. Brasilek, portugaldar koloniak, Kubak, espainiar koloniak, eta independentzia lortu berria zuten Amerikako Estatu Batuek algodoi edo azukre-plantazioetarako ebano-kargamentuak jasotzen jarraitu zuten. Ingelesek, ehun urtez beltz-tratataririk handienek, libre utzi zien bidea trafikari iparramerikar, euskaldun, katalan eta portugaldarrei. Hauek, britainiarrek Afrikako kostaldeetan ezarritako zaingoa saihestu

behar izan zuten. Halere, beltz-tratararitza erreprimitzeko egin ziren saio guztiek porrot egin zuten, esklabuek plantazioetara iristen jarraitu bait zuten XIX. mendera arte, 1889ra arte Brasilen kasuan, edo 1886ra arte Espainiaren kasuan.

Baina, non daude kolonietan inork egin nahi ez zituen lanak egiteko Atlantikoa zeharkatzera bortxatuak izan ziren milioika gizon eta emakumeak? Amerikara XVI. mendetik XIX. mendera arte iritsi ziren esklabuak eta europar garapenaren giltzarri izan zirenak,<sup>1</sup> zuzenki plantazioetan egin zuten lanari esker eta zeharka esklabu-trafikoak sortzen zituen etekinei esker, historiatic kanpora egotziak izan dira.

Ezaguera historikotik Amerikako beltzen baztertzeak ez du esan nahi, hala sinesterazi nahi diguten arren, esklabuek funtsezko eragina izan ez zutenik Amerikako gertaera politiko, sozial eta ekonomikoaren garapenean.

Amerikako afrikar jatorriko populazioez eginiko azterketak diskriminazio sozio-arrazial fenomeno batez markatuak egon dira eta nabarmendu egin dira Friedemann-ek<sup>2</sup> dioen “beltzaren ikustezintasunean”.

Beltzaren ikustezintasun-prozesua zientziaren izaera hegemonikoak eta Afrikarekin eta Amerikarekin lotutako ezaguerak emana dator. Europarrek filtratu egin zituzten alteritateari buruzko informazioak,<sup>3</sup> ezaugarri bereziak emanez beren informazioetan agertzen ziren kultura eta gizabanako guztiei.

Errealitate amerikarrari buruzko ezaguera “zientifikoa” erabili zen Afrikan gertatu zen hedapen-prozesuan eta justifikatu egin zen Europa ren hedapen koloniala afrikar kontinentean asmo *zibilizatzaileak* aitzaki gisa erabiliz. Friedemann-ek, lehen aipatutako lanean, ezaguera zientifiko europarrak duen Afrika ren irudi esteriotipatu hau erakusten digu, naturalista dani-markar batek, Insert-ek alegia, zioenean Afrika osoa ezagutu beharra zegoela europar gorakada zibilizatzaileak afrikarren ohitura barbaroekin bukatu baino lehen. Talde konkistatuei eman zitzaizkion ezaugarri espezifikoek osatu zuten ezaguera zientifikoa. Ezaguera honek, aldi berean, estereotipoa osatzeko eta, ondorioz, talde meneratu guztiak karakterizatzen duen ikustezintasun-prozesua indartzeko balio izan zuen. Estereotipoa erabili izan zen, eta oraindik ere erabiltzen da, kultura

garaitzailearen beharren menpeko errealitatearen deskribapen-elementu gisa.

Afrikar jatorria zuten populazio esklabuei atxeki zitzairen izaerak mantendu egin zuen europarrek Karibe osoan, edo hobeto esanda, afroamerika osoan garaturiko plantazio-ekonomiaren eskema.

## GEZURRA ETA ENGANIOA

Amerikan, esklabistek beren dotazioekin mantentzen zuten harremanari esker, ikusezintasun eta estereotipo-prozesua indartu egin zen. Esklabuekiko eguneroko errealitateak eraginik ihes egiten zuen europar mentalitateetik XVIII. mendeko europar gorteetako saloietan sortutako salbaje onaren mitoarekin antzaren bat zuen guztia.

Plantazioetako jauntxoek ederki asko zekiten zeintzuk ziren erabili behar zituzten teknikak eta nola erabili behar zituzten esklabuaren menekotasuna lortzeko. Beraz, sozializazio-prozesu osagabeak edo dekulturazioak, dekulturazioaz esklabuek produktiboagoak izan zitezela jasan zuten kultur sustraigabetasuna ulertuz, eta aldi berean transkulturazio-prozesu bat burutuz, hau da, ondorio bera eragin behar zuen talde meneratzailearen balore-sisteman barruratzea, esklabuaren *desagertzea* ekarri zuen aldi kolonialean eta beltzarena errepublika garaian, subjektu historiko gisa.

Estereotipoak esklabuaren karakterizazio-elementu gisa balio izan zuen. Hain zuzen ere, beltza Amerikan bere *arrazari* zegozkion, eta aldi berean, esklabutza justifikatzeko balio zuten birtute eta bizio-sail baten jabe zen. Baina ez zen elementu egonkor bat izan, ez denboran, ez espazioan, eta talde meneratzailearen beharren arabera aldatua izan zen. Honenbestez, portugaldar espedizioek ezagutzen zuten afrikar barbaro eta salbajea, lanaren bitartez, elementu zibilizagarri bihurtu zen.

Europarretorerarekin Amerikara eman zitzaion hasiera gaztelauek eta portugaldarrek Kanariatan eta Cabo Verden

esperimentatu zuten plantazio-sistemari eta indartu egin zen lanaren ikuskera elementu zibilizatzaile gisa. Amerikar esperientzia berrian oinarrituz, espainiarren meatz nahiz plantazioetan lan egiteko eramanak ziren afrikar etnia bakoitzaren estereotipoa apurka-apurka zehaztuz joan zen. Horrela, 1532ko irailaren 28an galerazi egiten da Wolof izeneko beltzen inportazioa: “Por ser como diz que son soberuios e inobedientes, y reboluedores, e incorregibles.”<sup>4</sup> Zedula, Amerikan esklabuen lehen matxinada handia gertatu zenean emana izan zen, eta eman ere, wolofarrekin sor zitezkeen gatazka berriak saihestu nahian eman zen.

Esterotipoa eta ikustezintasuna errealitatearen asmakizunetik pasatu zen, eta pasatzen ari da oraindik; Ferrer de Couto<sup>5</sup> tesi honen adibide argia dugu eta, areago, ukatu egiten zuen espainiar kolonietako esklabutza, zera idatzi zuenean: “Los propietarios de Cuba tratan a sus siervos como a sus hijos, concediéndoles deferencias extraordinarias... El dueño de un precio rústico en Cuba es una providencia para el siervo. Por eso los siervos tienen una vida tranquila y feliz, de que disfrutan a la sombra benéfica de la nación española, que les ha conducido a la religión cristiana... a cambio del trabajo que buenamente puedan hacer.” Kuban esklabutarik ez bazen, zer dela eta hitz egiten da esklabuez? Azkenik, lan berean, ez zegoela esklabutarik, beltzen lan antolatua baizik, baiezen du.

Zedulak eskaintzen dituen bezalako informazioak, talde zehatz bat definituz, edota Ferrer de Coutorenak, kristautzea esklabuaren zibilizazioan funtsatuz, izan ziren beltzaren estereotipoa osatu zutenak, eta oinarri gisa erabili zituzten plantazioetako jauntxoek afrikar etnia bateko edo besteko beltzak aukeratzean, esperientziaren eta afrikar talde bakoitzari atxekitzen zitzaizkion ezaugarrien arabera.

Bestalde, errealitate bat ezkututzen denean ukatu egiten da errealitate hori sortu zuen gertaera historikoaren subjektua. Hizkuntz arlotik egoerak definitzen ez baditugu, edo izenez aldatzen baditugu, adierazlea desagertzean ez dago adierazirik eta, ondorioz, ez da existitzen. Hau izan zen Amerikako beltzek jasan zuten eta jasaten diharduten egoera.



Beste errealitate baten asmaketa, bat datorrena metropoliaren interesekin Ferrer de Coutoren kasuan, edo jauntxoen interesekin, izan da beltzaren ikustezintasun-prozesua Amerikan markatu duena.

Estereotipoa, hots, beltzaren karakterizazioa Amerikan, leku bakoitzeko egoerei egokituz joan zen. Honenbestez, XVI. mendean *matxinatu* gisa definituak izan ziren beltzak XVIII. mendean *alfer* eta *salbaje*-tzat joak izan ziren.

1789an Koroak esklabuen eskubide eta betebeharrei buruzko legeria orokor bat ezartzea erabaki zuen. Legeria hau “Código Negro Carolino” gisa ezagutzen da<sup>6</sup> eta Amerika kontrolatuago izateko Koroa burutzen saiatu zen erreforma-prozesu baten barruan kokatu behar da.

Maiatzaren 31n eman zen argitara Amerikan “Real Cédulas e instrucción circular a Indias, sobre la educación, trato y ocupación de los esclavos” delakoa. Bertan jaso eta eguneratzen ziren hala Partidak nola Amerikan era sakabanatu batean argitaratu ziren zedula guztiak. Esklabutzaren balorazio moraletan sartzen ez zen arren, edota beltzen harrapaketen legetasuna Afrikan planteatzen ez zen arren, esklabutzaren zio legalak ezartzen zituzten Partidek jasotzen zuten bezala, onartu egiten zen zuzendu eta zibilizatu beharreko esklabuaren giza kondizioa. Errege-Zedulak esklabuen bizitza, lanaldia, kristautzea, jazkera eta egindako okerren arabera ezarri behar ziren zigorrak arautzen zituen. Azken finean, esklabua, hein batean, jabeen kontrolpetik at geratzen zen, hauek behartuak bait zeuden justizia lokalari edo udaleko sindikatuari esklabu bakoitzari ematen zioten janariaren, ezartzen zituzten zigorren edota dotazioetan gerta zitekeen beste edozein gertakariaren berri ematen. Esklabuen lanari dagokionean, honek nekazaritzarekin lotutakoa izan behar zuen. Hirietan bazeuden eta etxeko lanei loturik ez bazeuden, justiziak erabakitzen zuen zein lan-motari lotu behar zitzaizkion. Kodean eguzkitik eguzkirako lanaldia ezartzen zen eta bi ordu libre egunean esklabuak beren onurarako lanei lotzeko. Argi dago arautegi hau kanpora begira egina zegoela, ez Amerikan aplikatua izateko.

Kodearen lehen artikulua baliagarritasun eta etekin-ideiaz beterik daude. Kasu honetan, baliagarritasuna lan gisa ulertzen da eta etekina gizarte eta gizakiarentzako gauza osasungarri gisa. Uste dut gauza azpimarragarria dela lana balore sozial gisa agertzea subjektu sozial guztientzat era orokor eta aplikagarri batez. Esklabuen kasuan, beti hartu izan da lana elementu *zibilizatzaile* gisa, baina XVIII. mendetik aurrera, kapitalismoaren ezarpenarekin esklabuarengandik etekin handiena espero zenez, lan-baldintzak gogortu egin ziren eta, ondorioz, lan-era berriekiko gaitzespen bat eman zen. Guzti honen eraginez zimarroiak ugaritu egin ziren eta lanaren aurkako boikota areagotu egin zen.

Legez manumisorako eskubiderik ez zuten zahar eta gaixoei askatasuna emateko erregimena da Kodeak azaltzen eta arautzen duen beste gauza bat. Neurri honekin eliteentzat talde arriskutsuak osatzen zituztenen eta garai hartan “vagamundos” eta “malentretados” gisa ezagutzen zirenen ugaltzea saihestu nahi zen.<sup>7</sup>

Kode beltzaren publikazioak esklabuaren egoera planteatu zuen jabeen artean. Errege-Zedulak markatzen zituen kontsiderazio guztiak burutuz gero esklabuzaren errentagarritasuna kolokan jartzen zenez, jabeak aurka jarri ziren Errege-Zedularen ondorioak gutxitzeko.

Caracaseko aberatsak, kakao-hazleak, eta Habanako sakarokratak kexatu egin ziren koroaren aurrean Kode beltzaren publikazioaz.

Jabeen protesta honetan, eremu kolonialen arabera era desberdinez argumentatzen da legea betetzeko ezintasuna eta azpimarratu egiten da kodearen aplikazioak eragingo zuen hondamendi ekonomikoa eta gatazkakortasun soziala.

Plantatzaileen artean sortu zen protesta hau jaso dago *Kubako Artxibategi Orokorrean. Errege-Kontsulatu Saila*, 150/7.405 (“Representación extendida or don Diego Miguel de Moya y firmada por casi todos los dueños de ingenios de la jurisdicción, en enero 19 de 1790”).

Habanako aberatsek egiten duten lehen kontsiderazioa ekonomikoa da eta miseri mundu bat iragartzen dute Errege-Zedula

aplikatzera iritsiz gero. Habanaren kasuan kontutan izan behar da garai honetan azukrearen gorakada hasi zela<sup>8</sup> eta koroak nahi zuen lan esklabuaren erregulazioak lanaldiaren murrizketa suposatzen zuela. Esklabuen jai-egunetako lana, sakarokraten aldetik, askatasunaren oinarritzko faktore gisa justifikatu zen. Aberatsen ustetan esklabuek igandeetan lortzen zituzten frutuekin askatasuna eros zezaketen; esklabuek jai-egunetan egiten zuten lana debekatuz gero, “volverán a exercitar las fiestas en torpezas y delinquencias”. Bestalde, aberatsek, Kuban prest zeuden apezzen arabera, beren zerbitzarien osasun espiritualaz arduratzen ziren.

Jantzi eta elikadurari dagokionez, inolako legeren beharrik gabe, jabeak eskuzabal agertzen ziren. Esklabuek langile libreak baino hobeto jantzi eta jaten zutela zioten. Kohartatuen kasua adierazgarria da. Hauek, beren jabeekiko sentitzen zuten maitasun eta begiruneagatik, ez zituzten bertan behera uzten haziendak. Bestalde, Habanako jurisdikzioan zeuden libertoen kopuru handia nahikoa adierazgarria zen esklabuek euren beharrei eskaintzeko denbora libreza zutela konturatzeko. Horri esker, hain zuzen ere, lortzen zuten beren askatasuna erostea. Ondo elikatuak egon ez balira dirua janaritan gastatuko behar zuketena eta ez askatasuna erosten.

Jabeek arreta handia jarri zuten esklabuek euren gorputz eta espiritua zain zezaten. Emakumeek ingenioetan lan egiteko aukera planteatzera iritsi ziren “a fin de que propagando licitamente se eviten los pecados nefandos y brutales”.

Legea betetzeak hazienden bideragarritasun-eza ekarriko zuen eta, ondorioz, nekazaritzaren, merkataritzaren eta estatu beraren porrota.

Caracaseko jabeek, Kabildoan bildurik, lehen kexa bat agertu zuten 1790eko apirilean (Actas del Cabildo de Caracas. Archivo del Concejo Municipal. Caracas 1790). Bertan Errege-Zedulari publikazioak eragindako gatazken berri ematen da. Jabeen ustez, kode berriak esklabuaren artean sortu zuen egonezinaren eraginez haziendetako maiorak askok bertan behera utzi behar izan zituzten euren lanak ezin zituztelako esklabuak kontrolatu. Esklabuen *kualitate* berri bat agertzen da: ozartasuna. Ozartasun hau zela aitzaki, kakaotegi han-

diek legea baztertzea eskatu zuten. Hilabete batzuk berandua-go, 1790eko ekainaren 14ean (Ikus Actas...), Kabildoa berriro bildu zen eta gai bera aztertu zuen. Bertan, “el mal temperamento de los individuos esclavos” azpimarratzen zen, legearen eta ordenaren arteko elkartzintasuna eraginez, aldaketak ohituren lasaitze bat eragiten zuelako. Esklabua berez “desmesurado, abusón e insolente” zen. Akats hauek “odio y abominación de sus amos perjuicio de la sociedad y daños imponderables al estado” eragiten zuten. Kabildoarentzat esklabutzak sortutako erresistentzia eta arazo sozialak ez ziren kuestio sozial bat, esklabuen izaera beraren elementu bat baizik.

Jabeen protestan beste topiko bat agertzen zen, esklabuek esklabutzari buruzko edozein errege-zedulaz egiten zuten interpretazio faltsua, alegia. Esklabuen ustez, errege-zedulak jabeek bete nahi ez zituzten askatasun-aginduak ziren. Interpretazio faltsu hau esklabuen *ezjakintasunak* eragiten zuen.

Alferkeriak eta nagikeriak ere esklabuaren izaera osatzen zuten. Bizio hauek, itxuraz esklabisten interesen aurka egon zitezkeenak, esklabu alfer eta nagi bat ez bait zen lanerako gauza, argudio zibilizatzaile gisa erabiltzen ziren. Esklabua alferra eta nagia zenez, gizarte eta gobernu onarentzako ohitura egokiez jabetzeko baliagarri gerta lekion lan-antolakuntza bat *behar* zuen. Azkenik, Caracaseko kabildokoeak era honetan definitzen zituzten esklabuen bizioak: “urto, rapiña, embriaguez, altanería, insolencia, lascivia, homicidios, y otros de igual naturaleza que les infectan” (Archivo del Concejo Municipal, Actas del Cabildo de Caracas, 14 de Junio de 1790).

Habanako sakarokratek, *humanitatez* beterik, koroari helearazi zioten kexan ikus daitekeenez, esklabuei ematen zieten gorputz-zigorra beharrezkotzat jotzen zuten haiek zibilizatzeke, izaeraz, “bárbaros, osados, ingratos a los beneficios. Nunca dejan los resabios de la gentilidad; el buen trato los insolenta su genio duro y áspero y muchos de ellos no olvidan el horror de la transmigración Pithagórica con que se alimentaron desde su infancia. Por eso temen poco ser homicidas de sí mismos; son propensos a la desesperación, al tumulto, al robo, a la embriaguez, alevosos, incendiarios e inclinados a toda clase de vicios” (Representación...) bait ziren. Esklabuak kalifikatzeko

erabilitako adjektibo-mordo hau jabeek esklabuei zieten beldurraren adierazle argia da. Errebelamendua, zimarronajea edo erresistentzia, jabeen ustez, ez zen esklabutzatik eratorzen ziren egitura-kausen ondorio, *beltzen izaeraren* ondorio baizik. Esklabuari zegokion estereotipoa osatzeaz gain, jabeen aberkeria justifikatzeko balio zuen.

Esklabutza esplotazio-sistema gisa mantendu ahal izateko, beharrezkoa zen bortxakeriara eta terrorera jotzea esklabuak altxa ez zitezen. Errekurtso hau Amerikan afrikarren dekulturazio-prozesuan integratua zegoen eta nahitaezkoa zen menderatuen alienazioa lortzeko.

Garrantzizkoa da estereotipoaren osakuntzan soma daitekeen gertakari duala azpimarratzea. Alde batetik, etnia batzuk bizioz edo lanerako birtutez bete ziren —kongoak lanerako onak eta molderrazak ziren, iboak eta wolofarrak bihurriak eta beren burua hiltzeko joera zuten—, baina bestetik, jabeek beren interesen arabera definitua zegoen izaera orokor bat ematen zieten esklabuei. Horrela ezkutatu zen Amerikara iritsi zen afrikar errealitate anizkuna, eta beltza, subjektu gisa, ikustezin bihurtu zen. Beltzak jabearen interesen arabera bakarrik hartu zuen parte historian, hau da, esklabu gisa.

Jabeek esklabuen beldur ziren, kopuruz zuriak baino gehiago zirelako, antolatu egin zitezkeelako, Santo Domingoko kolonia frantsesean egin zuten legez. Esklabutza-sistemaren aberkeriak esklabuari uzten zion irtenbide bakarra erantzun biolentoa zen.

Jabeek atabikotasunari, indar ezezagunei, beltzek bakarrik kontrolatzen zuten espirituen munduari zioten beldurra ez zen protesta erregizakuntza baino, esklabuak gizatasun-kutsu minimo bat mantentzeko zituen bide eta era bakarrak. Etsipenaren biolentziak bakarrik ematen zion duintasun-seinale bat irain handienera egotziak izan zirenen bizitzari. Beltzaren ikuspezintasunak hildakoek beltzen komunitatearen baitan zuten presentzia aktiboarekin kontrastatzen zuen.

Afrikara itzultzen ziren suizidek, Mackandal —bihurria eta transformazioaren azitia— bezalako esklabuek, bizirik irauten zuten esklabuen oroimenean eta bultzatu egiten zituzten beren

helburua —askatasuna— lor zezaten. Zigorra ez zen errebelamenduarekin, liberazioaren itxaropenarekin amaitzeko gai izan. Esklabuaren barne-muinetatik, ezarritako ordenaren aurkako sublebazioa bilatzen zen, jaberik eta esklaburik izango ez zuen sistema berri bat sortzeko itxaropena.

Danborra, festa eta esklabuek sortutako erresistentzi erlijioak haziendetako esklabuen arteko komunikabide gisa erabiliak izan ziren altxamenduak eratzeko, abereki atereak izan ziren kontinentea gogoratzeko, berriro ere gizaki bihurtzeko.

Euskaratzailea:  
JON BERGARETXE

1. WILLIAMS, E.: *Esclavitud y capitalismo*. Habana, 1975.
2. FRIEDEMANN, N.: "Negros en Colombia: Invisibilidad y presencia". *El negro en la historia de Colombia*. 69-91 or. Bogota, 1983.
3. BESTARD, J.; CONTRERAS, J.: *Bárbaros salvajes y primitivos*. Barcelona, 1987.
4. ENCINAS, D. de: *Cedulario Indiano*. IV. Liburua, 383. folioa. Madrid, 1946.
5. FERRER DE COUTO, J.: *Los negros en sus diversos estados y condiciones: tales como son, como se suponen que son y como deben de ser*. 8-11 or. New York, 1868.
6. ORTIZ, F.: *Los negros esclavos*. 408-415 or. Habana, 1975.
7. IZARD, M.: "Vagos prófugos y cuatrerros". *Boletín Americanista*, 41. zk., 179-202 or. Barcelona, 1991.
8. MORENO FRAGINALS, M.: *El ingenio. Complejo económico social cubano el azúcar*. 3 Lib. Habana, 1978.

# IRAULTZA BURGESA ESPAINIAN

IBAN ZALDUA

---

Lehenik esan behar dugun gauza hau da, alegia Espainia-ko *Iraultza Burgesa*-ren inguruan eman den eztabaida teorikoen berri ematea, eta baita ere azkenaldi honetan iraultza burgesa-ren kontzeptu horri egiten ari zaion zenbait kritika azaltzea.

Lehenik esan behar dugun gauza hau da, eztabaida horretan erabili izan den *Iraultza Burgesa*-ren kontzeptua, marxismoak sortutako kontzeptua izan dela, edo beste era batera esateko, materialismo historikoaren barnean aurki dezakegun iraultzen teoriaren barruan koka daitekeela. Guzti honen oinarriak Marx-ek bere *Ekonomia politikoaren kritikarako ekarpena* liburuan idazten zuen pasarte famatuan daude,<sup>1</sup> bere beste zenbait lan aparte utzita. Aspaldian marxismoak aipatutako zenbait produkzio-molde eta iraultza, zalantzan jartzen dira

gaur egun (adibidez, produkzio-era asiatarra, iraultza feudala, etab.),<sup>2</sup> eta, horretaz, oraindik osasunez irauten duen bakarra (oso eztabaidatua den iraultza sozilista alde batera utzita) Iraultza Burgesa da, hau da, feudalismoaren eta kapitalismoaren artean dagoen iragaitzan gertatu beharrekoa, esan nahi bait da, historiaren momentu eta leku batean, produkzio-molde feudalaren arabera garatzen ari ziren indar produktibo kapitalistak produkzio-molde feudal horrekin kontraesanean jartzen direla, eta orduan Iraultza Burges bat ematen dela. Ordurarte boteretik kanpo zegoen klase burgesak botere politikoa eskuratuko zuen, klase feudalari kenduz, eta jarraian Erregimen Zaharreko maila guztietan, ekonomian, gizartean, zuzenbidean, ideologian, etab. alegia, kapitalismoari jartzen zizkion trabak deuseztaten saiatuko zen, produkzio-molde kapitalista rentzat aurrera egiteko bide guztiak zabalduz. Azken finean, feudalismo edota feudalismoaren hondakinak deuseztatzerator Iraultza Burgesa. Horrela, era berean, marxisten ikuspuntutik feudalismoa zertan datzan jakin beharko genuke, eta honetan teorilari eta historialari guztiak ez datoz bat. Esaterako, Alvarez Junco-ri jarraituz, eta Dobb-en eta Sweezy-ren arteko eztabaida famatua kontutan harturik,<sup>3</sup> Dobb-entzat eta bere jarraitzaileentzat feudalismoa jaun feudalaren eta jopuaren arteko erlazioan oinarrituko litzateke (nola jaunak ekonomiaz kanpoko bitartekoen bidez, kentzen dion aborokina jopuari); honela, Iraultza Burgesa erraz koka daiteke herrialde bakoitzean jopuen askapena ematen denean, hau da, hauek nekazari aske edota proletalgo bihurtzen direnean; nobleak estamentu izatetik, jabe soilak izatera pasatzen direnean; lurrak, zama feudal guztietatik libre, merkatura irteten direnean, etab. Sweezy-ren eta bere jarraitzaileen feudalismoari buruzko interpretazioa, aldiz, zabalagoa da (maila tekniko bajua, merkatal erlazio gutxi, deszentralizazioa, jaunaren eskubide juridikoak, eta beste zenbait elementu gainegiturazko aipatzen dituzte...) eta horrela, eman beharreko aldaketak askozaz orokorragoak izan beharko ziratekeen, ekonomi, gizarte eta politika-arloetan; hauetatik asko aldi berean eman ez zirenez gero, Iraultza Burgesa prozedura luze bihurtzen da huentzat, edota Iraultza Burgesaren ordez, trantsizio-garai luze bat aurkezten dute. Espainiako historiografiaren barnean emango



den eztabaidaren mamia bi ikuspegi ezberdin hauen islada izango da nolabait, nahiz eta beste zenbait faktore ere kontutan hartu beharrekoak izan.

## EZTABAIDA

Honekin, arazoaren egoera zein den (edo izan den) azalztera pasatuko gara. Esan beharra dago eztabaida moduko honen mamia 60ko eta 70eko hamarkadetan eman zela, eta azken urte hauetan, aldiz, asko baretu dela, Iraultza Burgesaren kontzeptua jasaten ari den kritikekin batera. Eztabaida horretan parte hartu zutenek, bestalde, Iraultza Burgesaren kontzeptu marxista onartzen zuten, baina ez zuten guztiek era berean ulertzen, eta hor aurkituko dugu eztabaida “klasiko” honen arrazoia.

Eztabaida honetan azalduko zaizkigun jarrera nagusiak bi izango dira bereziki, baina anekdotikoa bada ere, aipatu beharrekoa da hirugarren bat, Nafarroako historialari-eskolak mantendu duen ikuspuntua, hau da, Iraultza Burgesa Espainian XVIII. mendean gertatu zela, Carlos III.aren garaian hain zuzen ere. Ikuspegi hau ez da inolaz ere marxista, eta Rodríguez Casado edota José Luis Canellas historialariek sostengatu dute.<sup>4</sup>

Bi ikuspegi *klasiko*-etara itzuliz, esan beharra dago Espainian denbora luze batez nagusi izan direla, Iraultza Burgesik izan ez zenik, edota izatekotan ere, garai luze batean zehar garatuko zela esaten zutenak. Hauen artean, eta Pérez Garzón-i jarraituz,<sup>5</sup> Pierre Vilar, Tuñón de Lara, Tamames, Solé Tura, Josep Fontana (bere zenbait lanetan), etab. agertu ziren jarrera honen defendatzaile nagusi modura, bereziki 50eko eta 60ko hamarkadetan. Hauentzat, oro har, nahiz eta zenbait aldaketa garbi egon, burgesiak ez zukeen boterea eskuratuko eta oso ahul mantenduko zatekeen mende horretan zehar, boterea lurren jabe zen oligarkia baten eskuetan zegokeen bitartean; bitartean egitura ekonomikoak atzeraturik jarraitzen zuten, nekazaritzan oinarrituz eta merkataritza eta industriaren garapen minimo batekin. Halaber, Frantzian ez bezala, burgesiak

ez zukeen lortuko erregimen demokratiko bat Espainian eta oligarkiak edo nobleziak jarraituko zukeen agintzen: burgesia ahulegia izan zen benetako Iraultza Burges bat aurrera eramateko, eta nolabaiteko konponketa batera ailegatuko zen oligarkia lurjabe horrekin. Guzti honi erantsi behar zaio, lurjabego handiak jarraituko zuela nagusi izaten nekazal egituran, eta kazikismoa giza erlazio feudalen jarraipentzat joko dute.<sup>6</sup>

Ikuspegi oso honen oinarria, Pérez Garzón-ek dioenez, Espainiako bi Errepubliken porrotaren ondorioa litzateke hein handi batean, bai errepublikanismo burgestxikiaren aldetik (Costa, Sánchez Albornoz...), bai II. Errepublika garaitik aurrera PCEk (PSOEk, Alvarez Juncok eransten duen bezala)<sup>7</sup> eratu zuen programa ideologikoaren aldetik. Momentu horretan partidu hauek Espainian Iraultza Burgesak porrot egin zuela esango zuten, oraindik kapitalismora iragatea ez zela lortu (eta hortaz langilegoaren lehenengo helburua kapitalismoa eta demokrazia burgesa lortzea zela, jarraian Iraultza Sozialista aurrera eramateko: Errepublika defendatzeko indar demokratiko burgestxikiekin eratutako batasuna defendatzen zuen ikuspegi honek). Planteamendu hauek, zeinak PCEren kasuan 1975 arte mentendu bait ziren, eragin haundia izan zuten aipaturiko historialari aurrerakoi horiengan. Guzti hau, Pérez Garzón-ek dioenez, Iraultza Frantsesak izan duen pisu ideologikoagatik ere gertatuko zen, Iraultza Frantsesa izan bait da, betidanik, Iraultza Burgesaren paradigmatik gorena; nolabait ere, historialari hauek Iraultza Burgesa demokrazia burges baten lorpenarekin identifikatuko zuketen, Frantses Iraultzaren lorpenetik handiena izan zenarekin. Espainian XIX. mendearan garai luze batez oso sufragio zentzitario mugatu bat baizik ez zen lortu.

Bestalde lurraren arazoa dugu: latifundioak nagusi izaten jarraitu zuen Espainiako parte handi batean. Historialari hauek, latifundioaren nagusitasun hau egitura feudalen iraupenarekin lotzen dute. Espainian ez zen eman, Frantzian gertatu zen bezala, nekazalgoaren iraultza, hau da, nekazal jabego txikia indartuko zuen iraultza, nobleziaren, jaunen eta "señorio"aren kontra joango zena. Espainian ez zen gertatu aldaketa hau, eta beraz Iraultza Burgesa ez zen garaile atera. Fon-

tana-k Erregimen Zaharreko nekazal erlazio ekonomikoak deuseztatzeko bi aukera zeudela dio:<sup>8</sup> alde batetik, bide iraultzailea (“vía revolucionaria”), zeinaren bitartez jaunei lurra kendu eta bertan lan egiten zuten nekazariak bereganatzen bait zuten, Frantzian gertatutakoa alegia (hemen ez bait zen bereiztu jaurgo solariegoa eta jaurgo juridikzionala, hau da, nobleek lurren jabegoa eta bertan bizi zirenen gain zituzten eskubide juridikzionalak, bat kontsideratu ziren, eta feudalismoa deuseztatzerakoan, dena aldi berean deuseztatu zen: eskubideak eta jabegoa, orokorki); eta beste aldetik, Fontana-k bide erreformista (“vía reformista”) deitzen duena, Espainian inposatu zena azken finean, hemen jaurgo juridikzionala jaurgo solariegotik bereizi zen, eta deuseztatu ziren bakarrak eskubide feudalak izan ziren, lurren jabegoak jaunena izaten jarraitu zuelarik. Bereizketa honek nahasketa ugari ekarri zituen, nobleek ondo aprobetxatu zituztenak, jaurgo juridikzional zirenak jaurgo solariego bihurtuz, adibidez. Desamortizazioa egiteko hautatu zen bidean ere gauza bera ikus daiteke: Estatuak, desamortizatutako lurak banatu ordez, subastan saldu zituen, nekazalgoaren gehiengoaren eskuetatik urrunduz.

Korronte honen barruan, beste ikuspuntu bat Jordi Solé Tura-k bere *Catalanismo y Revolución Burguesa* liburuan ematen diguna da. Honek ere Espainiako Iraultza Burgesaren porrotari buruz dihardu,<sup>9</sup> prozesu luze eta zapuztu bat izan zela esanez. Nolabait iraultza burgesa eta iraultza industrial baterraten ditu, beraz, bigarrenak porrot egin zuenez Espainian, Iraultza Burgesik ez zela izan dio (guzti hau aurreko egileek esaten zutenarekin lotuz: egitura ekonomikoen atzerakuntzarekin eta nekazal ekonomiaren nagusitasunarekin), baina aldi berean Katalunia aparteko kasu bezala azaltzen du: han iraultza industrial bat eman zela esanez, han kapitalismoa garaile izan zela, etab. esanez; dena den, honek kontraesan bat suposatzen zuen Espainia atzeratu, nekazari eta oraindik feudalariek... burgesia katalandar honen iraultza zapuztuko zen, estatu-mailan botererik eskuratzea ezingo bait zuen lortu. Guzti honek katalandar nazionalismoaren sorreran zerikusi handia izango du Solé Tura-rentzat, zeren botere estatal hori lortu ezinean, katalandar burgesia nazio berri bat errebindi-

katzen hasiko bait da, han Iraultza Burgesa benetan aurrera eramateko.<sup>10</sup>

Aurrerako jarrera zalantzan jartzeko beste ikuspuntua aztertuko dugu orain, 70eko hamarkadan sortu eta sendotu zena alegia, eta behar bada gaur egun arte indarririk handiena izan duena.<sup>11</sup> Funtsean, honek aditzera dakarrena zera da, Iraultza Burges bat izan zela Espainian, 1834-1841 bitartean eman ziren aldaketa juridikoak muintzat hartu behar direlarik (1835-1837 bitartean bereziki, Mendizabalekin). Korronte hau jarraitu zuten historialariak ugari dira, adibidez Enric Sebastián eta bere "Valentziako eskola" aipa daiteke.<sup>12</sup> Jarrera honen partaide argia dugu Jordi Maluquer de Montes ere.<sup>13</sup> Honen ustez instituzio feudalek bi eraso nagusi jasaten dituzte XIX. mendean hasieran, Independentzi Gerratean eta Hirurteko Liberalean alegia, eta ekintza iraultzailea 1833tik aurrera, Fernando VII.a hil eta gero, batipat 1835-1837 urteetan bateko zen, politika askoz moderatuago baten bidez, baina batzuetan hainbat Junta Iraultzailerren eraginaren menpe ere bai. Prozedura honetan aristokraziaren zati garrantzitsu bat burgesian integratuko zen.<sup>14</sup> Maluquer-entzat (gero Clavero aztertzerakoan sakonkiago ikusiko dugun bezala) 1836-37 urteetan ematen diren aldaketa juridikoen Erregimen Zaharra deuseztatzen dute, lehengo nekazal egiturak beren hartan mantenduz, baina aintzinako lurjabe nobleak, lurjabe burges bihurtuz. Hemendik etorriko da produktore txikiaren egozketa azkarra, oraindik ia batere industrializaturik ez zegoen lurralde batean honek dakartzan ondorioekin. Aldi berean, espainiar Iraultza Burges honetan kanpoko faktoreen garrantzia azpimarratzen du.<sup>15</sup>

Dena den, ikuspegi oso honetan Bartolomé Clavero-ren tesiak izan dira gaia gehien sakondu dutenak eta baita eztabaida gehien sortu dituztenak ere. Clavero jaunak Zuzenbidearen arloa jorratzen du, eta hau bere planteamenduetan argi azaltzen da. Bere lanaren lehenengo urratsak *Mayorazgo. Propiedad feudal en Castilla (1369-1836)* liburuan agertzen zaizkigu, hau da, instituzio juridikoen baten azterketa diakroniko batean. Clavero -rentzat, lan horretan, Iraultzaren puntu garrantzitsuenetako bat primutzaren ("mayorazgo") abolizioan datza, hau da, desbinkulazioa deitzen ohi dena: ekonomia feu-

dal aurreratuaren elementu garrantzitsua denez gero, etxaguntzaren suntsidura Iraultza Burgesaren momenturik gorenatzat joko du, jabego-eskubidearen arloan behinik behin.<sup>16</sup> Honekin, aurreko korronte historiografikoak iraultza industrialaren eta iraultza burgesaren artean egiten zuen nolabaiteko identifikazioa zalantzan jarri nahi du, Clavero - rentzat aldaketak ez bait dira aztertu behar produkzio-indarraren arlotik, produkzio-erlazioen aldetik eta bere ispilu den Zuzenbidearen arlotik baizik. Clavero-ri guztiz garrantzizkoa iruditzen zaio iraultza aurreko gizartearen ezaguera on eta finko bat edukitzea, Iraultza Burgesaren oinarriak ezagutzeko eta noiz-nola gertatu zen jakiteko:<sup>17</sup> “ekonomia” edota “zuzenbidea” bezalako kontzeptuak bereiz ezin daitezkeen gizarte batean (Erregimen Zaharrean alegia, bereizketa hori kapitalismoaren ondorioz etorriko bait zen),<sup>18</sup> nekazaria lurrari lotuta dago, eta klase meneratzaileak kentzen dion soberakina (“excedente”) bitarteko edo bide estraekonomikoen bidez egiten du, koertzioaren bidez, koertzio hau juridikoa delarik<sup>19</sup> (kapitalismoan gertatzen ez dena, hemen plusbalia bide ekonomikoen bitartez kentzen bait zaio langileari, lan-merkatuaren barnean). Iraultza Burgesa, Clavero-entzat, aurreko baldintza horiek deuseztatuz, erregimen kapitalista baterako oinarriak jarriko lituzkeena izango litzateke, lanaren eta soldataren arteko erlazioen nagusitasunarekin.<sup>20</sup> Beraz, gizarte prekapitalista horren ekonomia-aren kontzeptzio juridikoa hain garrantzitsua zenez gero, Iraultza bide juridikoaren ildotik joango zen, kasu honetan (1835-37 urteetan betirako hartu ziren beste neurriekin batera, adibidez desamortizazioa, gremioen deuseztatzea, merkatal askatasuna, etab...) primutzaren behin-behineko suntsiduran gauzatzen delarik<sup>21</sup> (neurri guzti hauek 1812-1814 eta 1820-1823 denboraldietan ere aurrera eramane ziren, baina ondoren gertatutako erreazio absolutistek lorpen guzti horiek ezabatu zituzten, horregatik Clavero -rentzat ez dira momentu iraultzaileak baizik, benetazko Iraultza Burgesa 1835etik aurrera eman zelarik), hau da, 1835-1837 bitarte horretan, Mendizabal gobernuan zegoela. Lurraren egoera juridikoaren aldaketarekin batera (primutzaren abolizioak traba guztien bukaera suposatzen zuen, lurra eta lurraren inguruan ematen ziren erlazioak zentzu kapitalista batean aldatzen bait ditu; merka-

tura irteten dira: gogora dezagun primutzak nobleen lurren hipoteka galerazten zuela. Bestalde, noble baten ondareak oso-osorik pasa behar zuen oinordeko bakar baten eskuetara; lur horiek inkonfiskableak ziren eta arrendamendu laburretara behartzen zituen nekazariak, Gaztelan bereziki...) gizarte-arloan e re aldaketa bat ematen da, zeren, lehen aipatu dugun bezala, nobleak jaun izatetik jabe izatera pasatzen bait dira, hau da, burgesiarekin bat egiten dute.

Clavero -ren ikuspegi honek kritika gogorak jaso ditu, Martínez Shaw-renak adibidez. Honen ustez Clavero-k indar produktiboen garapenaren azterketa baztertu egiten du eta Iraultza noiz izan zen argitzen badu ere iraultzaren prozesua alde batera uzten du, etab.<sup>22</sup> Josep Fontana-renak izan ziren kritika gogorrenak: adibidez, Iraultza Burgesaren momentua 1835-37 bitarte horretan jartzea, eta berarentzako askoz ere garrantzi handiagoa duen 1823-33 hamarkadari, berak ikertutakolari hain zuzen ere, kasurik ez egitea.<sup>23</sup> Baina gehien bat salatzen duena hau da, Clavero ikuspegi juridikoetan baino ez dela oinarritzen, hots, gainegitura bakarrik aztertzen duela, egitura ekonomikoa eta gainegitura aldi berean aztertu ordez. Clavero-ren eredu, eredu geldo bat bezala agertzen da Fontana-ren iritziz, alegia, bere eredu hori guztiz tekniko edota metateorikoa dela aurpegiratzen dio, ez dagoela datu historikoetan oinarrituta, baizik eta Althusser-en edo Hindess-en eta Hirst-en lanen antzeko zerbait egin nahi duela<sup>24</sup> (ez dio garrantzirik ematen —Claverok— produkzioaren gorabeherari, Erregimen Zaharreko klase meneratzailea nobleziak eta burgesiak osatuko lukete, etab.).<sup>25</sup> Azken finean, ikuspuntu marxistatik egiten dion kritika bat da: Fontana-rentzat Clavero-k ez luke errespetatuko Marx-ek eta Engels-ek feudalismotik kapitalismora doan trantsizioa dela eta, Iraultza Burgesaz egiten zuten azalpena.

Eztabaida, gutxi gorabehera, une honetan gelditu zen, edo behintzat ez da askoz ere gehiago entzun, marxismora hurbiltzen diren zenbait saialdi heterodoxo alde batera uzten badi-tugu,<sup>26</sup> nahiz eta aipagarria izan Fernández de Pinedo eratzen saiatzen den sintesia, Clavero nahikoa kontutan harturik, baina kritikak azaldu zituen hutsuneak nolabait bete nahian: XVIII. mendetik zetorren prozesu ekonomikoa aztertuz, ikus-

ten du nola XIX. mendea ailegatzera aurreko mendeko lurjabeak eta merkataritzan ari zirenak ere pilatutako kapitalaren inbertsioak egiteko posibilitateak murriztu zirela (bai nekazal arloan, errendimenduak jaitsi zirelako; bai merkataritzan, XVIII. mendearen bukaerako gudak zirela medio...), gehien bat lurrak saltzen ez zirelako (gogora ditzagun binkulazioa eta amortizazioa), Estatuaren krisialdia juroen balioa jaisten zuen, etab. Hau izango zen XIX. mendearen hasierako mugimendu iraultzaileen oinarria, eta 1835-37ko Iraultza Burgesa ekarriko zuena azken finean.<sup>27</sup>

Egia esan, ikusi dugun guzti hau nahikoa eztabaida nominalista batean erortzeko arriskuan egon zen, nahiz eta bertan parte hartzen zutenek beren iritziak argi bereiztu besteen iritzietatik. Hau dela eta, hurrengo atalean, Iraultza Burgesaren kontzeptuari berari, azken urte hauetan egin zaizkion kritika batzuen azalpena egitea komenigarria iruditu zaigu, arazoa zein bide berritatik zuzen daitekeen nolabait antzemateko.

## “IRAULTZA BURGESA” KONTZEPTUAREN KRITIKA BATERAKO

Gainbegirada bat bota diegu Iraultza Burgesari buruz Espainian nagusi izan diren jarreiei. Bi jarrera hauek materialismo historikoaren inguruan egin zen eztabaida batetik sortu ziren eta, berez, “Iraultza Burgesa” kontzeptua onartzen zuten; gertatzen zena zen, modu ezberdinean ulertzen zutela berori, ikusi dugun bezala. Baina azkenaldi honetan kontzeptuak berak kritikak jasan ditu, historiaren gertakizunak aztertzeke tresna baliagarri izaten jarraitzen duen galdetzen dio zenbaitek bere buruari. Kritika hau nahiko zabala da, eta ikuspuntu ezberdinetatik egin dena; hemen gutxi batzuk aipatzea baino besterik ez dugu egingo, eta nahikoa azaletik, gauzak gutxi gorabehera nondik nora doazen ikusteko.

Adibidez, 70eko hamarkadaren hasieran, ikuspuntu marxista argi batetik gainera, Poulantzas-ek zalantzan jartzen zuen ordurarte iraultza burges “tipikotzat” jotzen zen Iraultza Frantsesa benetan horren eredu gorena izatea, alde batetik ez zuelako gutziz ezarri produkzio-molde kapitalista beste pro-

dukzio-moldeen gainera (nekazal produkzio txikia deitzen dena izango bait zen garaile...); bestalde, Iraultza honek, ez zuen Britainia Haundikoak edo Alemaniakoak adina indarrik eskuratu, burgesiak ez zuelako boterea nobleziarekin banatu, baizik eta burgesia txikiarekin eta nekazalgo txikiarekin, ahula eta iraunkorra izango ez zen elkartasun batean; Iraultza Frantsesa ulertzeko hain garrantzitsua den jakobinismoa, ez zen soilik edeologia burges bat izango, beste mota batzuetako elementuak bait ditu bere baitan, “sans-culottisme”tik datozkionak alegia, askoz ere “sozialagoak” direnak, etab.<sup>28</sup>

Iraultza Frantsesa dela eta, ahaztu ezina da, bestalde, Furet-en eta bere eskolaren ekarpenak, materialismo historikoa-ren ikuspegiaren kontra gogor jokatu dutenak; beste gauza askoren artean, hauxe mantenduko lukete, berez ez zela izango Iraultza hau burgesiak nobleziaren barne-kontraesan eta tirabirak izango zirela, azken finean Iraultza nobleek hasi zutela... gerago pasa zena Iraultzaren barne-dinamikak berak eragindakoa zatekeen, nolabait ere sortutako desorekek eraginda.<sup>29</sup>

Era berean, Arno J. Mayer-en ikuspegia interesgarria dela pentsatzen dugu, honek Erregimen Zaharreko iraunkortasunaz hitz egiten bait du:<sup>30</sup> Europan ekonomia industrialak nekazal ekonomiari ez zitzaionik nagusitu XIX. mende osoan esanez abiatzen da, eta nobleziaren eragin ekonomiko, sozial eta politikoa ez zela desagertu esaten du, aitzitik batzuetan indartu ere egin zela dio, lehengo mendeetatik zuzenean zetozen monarkia batzuen barnean eta babesean; kultura eta ideologia oso-osoan nobleziaren eraginen menpean egongo ziren, eta burgesia, egile honentzat, ez zen gai izan bere ideologia propioa eratzeko.

Baina kritika hauek ez zaizkio soilik “Iraultza Burgesa” kontzeptuari egin, marxistek erabili ohi duten Iraultzen teoriara ere zabaldu bait dira oro har. Horrela, 1848ko Frantziako Iraultza tradizionalki iraultza proletarioen lehenengo saio edo abiapuntutzat hartzen zen; baina iraultza hau zergatik gertatu zen Frantzia eta ez ekonomi arloan askozaz ere aurreratuagoa zegoen Britainia Handian aztertzerakoan, Craig Calhoun honako ondoriora iristen da: iraultza hau aurrera atera zutenak, alegia, ez zirela izan sortuberrira zen fabriketako langile-  
ria eta partaidea, baizik eta industria horrek suposatzen zuen



produzio-era berriak arriskuan jartzen zituen artisautza zahar-  
raren partaideak (Britainia Haundian ez zen emango iraultza-  
zarik, proletalgo-kopuru handiagoa zegoelako, egoera berrie-  
kin askoz ere konformeago zeudenak, eta nolabait ere arti-  
sauak baino “erreformistagoak” zirelako: artisau horiek izango  
ziren, Britainia Haundian, kartismoaren oinarria).<sup>31</sup> Garai eta  
arazo berdina aztertuz, Stedman-Jones-entzat kartismoak  
inguru industrialetan eta artisauen herrietan edukiko zuen  
indarra, bietan, era berdintsuan; arazoaren gakoa, nolabait  
ere, arlo politikoan aurkitzen du: Ingalaterran ez zen iraultza-  
rik gertatuko politika-mailan Estatuak oreka handiagoa lortu  
zuelako, “klase ertainak” burgesia txikia bereganatuz eta kar-  
tisten errebindikazioetatik baztertuz aldi berean. Frantzia ez  
zen hau gertatu, eta burgesia txikiak (eta handiaren zati batek)  
herri xehearekin batera hartuko du parte mugimendu iraultzailean.<sup>32</sup> Bi azterketa hauek ezberdinak badira ere, Iraultzen  
teoria klasikotik nahikoa urrun daude: lehenengoan protago-  
nismoa hartzen duten klaseak ez dira normalean onartuak  
izan direnak; eta bigarrenean gatazka maila politikora (gaine-  
giturara) bidaltzen da.

Guzti honek Iraultzen teoria, eta bere barnean Iraultza Bur-  
gesa ~~aren~~, berritu behar dela erakutsi du, edo behintzat irtenbi-  
de berriak aurkitu behar zaizkiola, eta horien artean interes-  
garria iruditu zait “Historical Sociology” korronteko partaide ba-  
tzuena gogoratzea, T. Scokpol-en eta E. Kay Trimbetger-ena ale-  
gia. Hauek iraultza soziala eta “goitik” eragindako zenbait irault-  
zen kasuak aztertuz eta konparatuz (Frantzia, Errusia eta  
Txinakoak, alde batetik; Japoni eta Turkiakoak bestetik) zera  
aurkitzen dute:<sup>33</sup> iraultzak eragiten dituzten arazoak ez dau-  
dela egitura ekonomikoaren barnean sortzen diren kontrae-  
san eta tirabira politikoetan. Kontraesan hauek bi arazo nagus-  
i ren ondorio izango lirатеke, hala nola, kanpoko beste poten-  
tzia batzuen konpetentzia (guda, presio ekonomikoen bidez...),  
barruko ekonomiaren inperatiboak areagotuko lituzkeenak;  
eta, bestalde, Estatuko klase meneratzailearen barnean horren  
ondorioz sortuko lirатеkeen zatiketak. Beste aldetik, iraultzak  
aurrera eramango lituzketen klaseak ez lirатеke izango tradi-  
zionalki kontsideratu direnak, hau da, burgesia eta proletalgoa  
(klase-burrukaren bidez), baizik eta, oro har, “goitik” eragindako

iraultzetan, aurreko erregimenetik zetozen talde burokratiko-militar batzuk; eta iraultza sozialen kasuan, klase--burruken bidez egin badira ere, talde gidariak uste izan den baino garrantzi handiagoa izango lukete, eta honekin lotura nekazalgoaren paper garrantzitsua aipatzen dute (marxistek askotan ahazten zutena), eta era berean aipatzen dute iraultzen ardura ez zutela hartuko inoiz produkzio-medioak kontrolatzen zituztenek. Eta azkenik, iraultza hauen emaitzei dagokionez, esaten dute Marx-ek uste zuela, gehienbat, aldaketek (azkarrenek behintzat) egitura aldatuko zutela, baina ikertzaile hauentzat Estatuaren egitura da gehienbat aldatzen dutena, beti burokratizatuagoa eta zentralizatuagoa irtetzen delarik prozesu iraultzailetik.

Iraultzen azterketa berri honetan, gutziz garrantzizkotzat dute arlo hauen azterketa sakonagoa (Marx-en teoriaren kontra nolabait): Estatuaren independentzia edo autonomia, ez dela egitura ekonomikoaren isladapen soila; nekazalgoaren egoera eta iraultzan nola parte hartzen duen; eta Estatuaren sistema internazionala (nolabait ere Wallerstein-en ideiekin lotuta), kapitalismoaren ezaugarri erabakior bezala (Estatuaren arteko kompetentzia oso inportantea izango litzateke iraultza baten porrota edo garaipena esplikatzeko...)<sup>34</sup>

Nolabait ere, nahikoa tentagarria iruditzen zaigu iraultzen eskema hau Espainiako kasura zabaltzea: burgesia ahul bat, iraultzarik bultzatu ez zuen nekazalgo bat, aristokraziak goitik eragindako aldaketa moderatu batzuk, nazioarteko egoera oso berezi eta erabakiorra, etab., baina ez da momentua, ezta modua ere, datu asko falta bait zaizkigu. Aurreko eskemak bere akatsak eta hutsuneak baditu ere, eta aurki daitekeen ordezko eredu bakarra ez bada ere, ontzat hartu behar da, gu reustez, Iraultza Burgesaren eskema "klasikoa" eztabaidan jartzen ari dela, zaila bait da (eta are gehiago Espainiaren kasuan), esate baterako, prozesu horretan burgesia bat aurkitzea, iraultzaren protagonista nagusi bezala; eta aurretik datozen jarraipenak, argiagoak direla batzuetan, hausturak baino. Eta hau nabaritzen hasia da unibertsitateko programetan. Eztabaida moduko hau, Iraultza Burgesarena alegia, beste eztabaida zabalago batean murgiltzen ari da gero eta gehiago, "modernizazio" edo "eboluzio" prozesuak zer-nolakoak diren

deskribatzen saiatzen denaren barnean, eta hortxe iraultzen teoria batek bere lekua izango luke seguru asko; baina iraultzen teoria orokor bat, ez burgesa soilik, aldaketa mantsoak eta jarraipenak alde batera utzita, hausturak ere gertatzen bait dira (nahiz eta esan hauek gehienetan Estatu edo politika mailan gertatzen diren). Iraultzaren teoria hau beste zenbait gairen ondoan aztertu beharko litzateke: adibidez, Estatuaren papera modernizazio-prozesuetan, aurreko denboretako jarraipenen zergatiak bilatzea, ekonomiaren aurrerakuntzarekin dauzkan harremanak, etab. Baina guzti hau beste lan baterako gaia litzateke.

1. "En un determinado estado de su desarrollo, las fuerzas productivas materiales de la sociedad entran en contradicción con las relaciones de producción existentes, o lo que no es sino su expresión jurídica, con las relaciones de propiedad dentro de las cuales se habían movido hasta entonces. De formas de desarrollo de las fuerzas que eran, se convierten en trabas a esas fuerzas. Entonces se abre una era de revolución social. El cambio de la base económica trastorna más o menos rápidamente toda la colosal superestructura..." in Karl MARX: *Contribución a la crítica de la economía política*. Madrid, 1970, 37 or.

2. Cf. ALVAREZ JUNCO, José: "A vueltas con la Revolución Burguesa" in *Zona Abierta*, 1985, 36-37 zk., 81-106 or.

3. *Ibid.*, 90 or. eta hur.

DOBBen eta SWEETZyren arteko eztabaidarako ikus HILTON, Rodney: *La transición del feudalismo al capitalismo*, Barcelona, 1982<sup>4</sup>

4. Cf. PEREZ GARZON, Juan Sisino: "La revolución burguesa en España: los inicios de un debate científico 1966-1979" in TUNON DE LARA, Manuel: *Historiografía española contemporánea. X Coloquio del Centro de Investigaciones Históricas de la Universidad de Pau*, Madrid, 1980, 106 or.

5. *Ibid.*, 98 or. eta hur.

6. Adibidez, "En España la liquidación del Antiguo Régimen se efectuó mediante una alianza entre la burguesía liberal y la aristocracia latifundista, con la propia monarquía como árbitro, sin que hubiera un problema paralelo de revolución campesina. Lejos de ello, los intereses del campesinado fueron sacrificados, y amplias capas de labriegos españoles (...) se levantaron en armas contra la revolución burguesa y reforma agraria que se hacía a sus expensas, y se encontraron lógicamente, del lado de los enemigos de estos cambios...", in FONTANA, Josep: *Cambio económico y actitudes políticas en la España del siglo XIX*, Barcelona, 19752, 162 or.

Aipagarria da, ikuspuntu honen adibide eta laburpen ona delako, VILAR, Pierre: *Historia de España*, Barcelona, 1986, 22, 85 or. eta hur.

7. PEREZ GARZON, Juan Sisino: op. cit., 98 or. eta hur.; ALVAREZ JUNCO, José: op. cit., 99 or.

8. FONTANA, Josep: op. cit., 149-155 or.

9. SOLE-TURA, Jordi: *Catalanismo y Revolución Burguesa*, Madrid, 1974, 4 or. eta hur.

10. Honela idazten du: "Al secular erfuero de la burguesía industrial catalana por ejercer su hegemonía en el bloque dominante, sin conseguirlo en ningún momento, corresponde en el plano político e ideológico un planteamiento que va del asalto director al poder central (hasta el periodo abierto en 1868, en líneas generales) al asalto periférico (fase nacionalista)", *ibid.*, 14 or.

11. PEREZ GARZON, Juan Sisino: op. cit., 118 or. eta hur.

12. *Ibid.*, 129 or. SEBASTIAREN zita hau ematen digu: "Para 1834-1843 el milenario régimen feudal español se había derribado definitivamente, al quebrarse el sistema coercitivo durante una larga crisis, manifestada durante el bienio 1834-1835 y velozmente acelerada durante los ocho primeros meses de 1836. Es la tercera y definitiva fase del proceso revolucionario burgués (...) la revolución jurídica, aspecto capital de la revolución burguesa..."
13. MALUQUER DE MOTES, Jordi: *El socialismo en España 1833-1868*, Barcelona, 1977.
14. *Ibid.*, 37. or.
15. "... tuvo lugar prematuramente, es decir, antes de su propia madurez, a raíz del impacto de una serie de inducciones generadas desde el exterior...", *ibid.*, 50. or.
16. CLAVERO, Bartolomé: *Mayorazgo. Propiedad feudal en Castilla (1369-1836)*, Madrid, 1974, 412 or.
17. CLAVERO, Bartolomé: "Para un concepto de revolución burguesa" in *Sistema*, 13 zk., 1976, 47 or.
18. *Ibid.*, 39-42 or. Oso interesgarriak dira hemen ere sistema kapitalistaren aurretik Estatuaren iza-teaz edo ez izateaz planteatzen duena.
19. (El sistema de basarías) "...en la relación de señorío o relación económica feudal, entendida como aque-lla relación en que el trabajador (...) está sujeto (...) a una serie muy variada de derechos particulares superiores que beneficiaban, directamente, a los sectores sociales dominantes, que suponen la expropiación jurídicamente consagrada del producto de su trabajo..." in Bartolomé CLAVERO: "Política de un problema: la revolución burguesa" in CLAVERO, B.; RUIZ TORRES, P.; FERNANDEZ MONTALBAN, F.J.: *Estudios sobre la revolución burguesa en España*, 3-48 or., Madrid, 1979, 29 or.
20. CLAVERO, Bartolomé: "Para un concepto...", op. cit., 43. or.
21. (La Revolución Burguesa consistiría en) "...la transformación integral —de régimen jurídico y de contenido 'socioeconómico'— del mismo DERECHO DE PROPIEDAD DE LA TIERRA, el cual de haber constituido un derecho a la apropiación directa (...) del producto del trabajo ajeno (...) pasa a serlo tan sólo de participación indirecta, ya no coercitiva (RENTA DE LA TIERRA, que exige un régimen liberal de la propiedad)...", *ibid.*, 49 or.
22. MARTINEZ SHAW, Carlos: "Sobre el feudalismo tardío en España: algunas acotaciones a Bartolomé Clavero", in *En Teoría*, 1980, 4 zk., 163-186 or. Clavero-k erantzun bat zuzendu zion ere: CLAVERO, Bartolomé: "Sobre la idea de revolución burguesa: algunas puntualizaciones a Martínez Shaw", in *Zona Abierta*, 26 zk., 1980, 123-134 or.
23. FONTANA, Josep: "Sobre revoluciones burguesas y autos de fe", in *Mientras Tanto*, 1 zk., 25-32 or., 1979, 25 or.: "...yo considero necesario investigar con mucho detenimiento el periodo que va de 1823 a 1833, donde cree que se encuentran las claves para explicar lo que se legisla después."
24. Estrukturalismoaren inguruan eman zen eztabaida honetarako oso interesgarria da liburu hau: THOMPSON, E.P.: *Miseria de la teoría*, Barcelona, 1981.
25. FONTANA, Josep: "Sobre revoluciones burguesas y...", op. cit., 28-29 or.
26. Adibidez, ARTOLA, Miguel: *Antiguo Régimen y revolución liberal*, Madrid, 1978.
27. FERNANDEZ DE PINEDO, Emiliano: "Coyuntura y política económica" in FERNANDEZ DE PINEDO, E.; GIL NOVALES, A.; DEROZIER: *Centralismo, Ilustración y agonía del Antiguo Régimen (1715-1833)*, 9-173 or., Barcelona, 1984, 161-166 or.
- Aipagarria: "Fue un conflicto entre una clase en formación, la burguesía, y el resto de los estamentos privilegiados, fracciones de la nobleza y del clero, unos y otros numéricamente minoritarios en medio de una masa indiferente. De ahí que la sublevación de un pequeño ejército, de ciertas ciudades o una invasión exterior pudieran cambiar el régimen", 166 or.
28. POULANTZAS, Nicos: *Pouvoir politique et classes sociales*, París, 1971, 184-191 or.
29. FURET, François: *Pensar la Revolución Francesa*, Barcelona, 1980, 130-148 or.
30. MAYER, Arno J.: *La persistencia del Antiguo Régimen*, Madrid, 1984.
31. CALHOUN, Craig: "Industrialización y radicalismo social. Los movimientos obreros de Francia e Inglaterra y la crisis de mediados del siglo XIX", in *Zona Abierta*, 1985, 36-37, 179-178 or.
32. STEDMAN-JONES, Gareth: "La crisis de mediados de siglo y las revoluciones de 1848: un comentario crítico", in *Zona Abierta*, 1985, 36-37 zk., 179-198 or.
33. SKOCPOL, Theda; TRIMBETGER, Ellen Kay: "Revoluciones y desarrollo histórico del capitalismo a escala mundial", in *En Teoría*, 1981, 6 zk., 29-47 or.
34. Gure iraultza burguesaren kasuari dagokionez, zita hau interesgarria iruditu zaigu: "...Las revoluciones desde arriba o desde abajo que han contribuido a impulsar el desarrollo capitalista burgués, no han sido 'hechas por' una burguesía con conciencia de clase...", *ibid.* 44 or.

# IRRATI-NOBELA BATEN AZTERKETA-SAIOA

"Antzoki iluna: su-kolorea zuen emakumea"  
(Bernardo Atxaga & Jose Ramon Zubimendi)

*IÑAKI IÑURRIETA*

---

**J**oan zen neguan "Antzoki iluna" izeneko irrati-nobelen multzoa (zazpi kontakizun dira, 45 atal guztira) eman zuen Euskadi Irratiak, bederatzi astetan zehar, astelehenetik ostiralera, eta egunero bi aldiz (eguneko atala errepikatuz alegia) eguerdiko 1,30etan eta gaueko 10etan. Nire azterketarako "Su-koloreko ilea zuen emakumea" izeneko kontakizuna aukeratu dut, zazpietatik bigarren eman zena. Orduerdi inguruko lau atalek osatzen dute; lau egunetan eman zen, beraz.

Kontakizunaren haria laburtuz, esan dezagun Urizar izeneko herri txiki batera su-koloreko emakume misteriotsu bat iristen dela behin batean, eta herritarren artean jakinmina sortarazten duela; Makario xelebrea eta don Alejandro medikua daude horien artean, eta biak maiteminduko dira etorri berriarekin. Baina neska Martin Ugarte indianoarekin ezkontzekotan da,

hau Ameriketatik etorri bezain laster. Halako batean agertzen da senargai hori, eta oso gaisorik agertu ere; don Alejandrok bizia salbatuko dio, horrekin maite duen emakumea galtzen duela jakinik. Eta amodio-atsekabeak bere horretan bukatu behar duela ematen duenean, emakumeak (Ines du izena) senargaia salbatzearen truke egindako promesa bete eta arras sendatua geratuko da don Alejandro galai: su-koloreko ile luzea moztuko du Inesek, eta han agertuko den emakume ezezaguna ikustean erabat pasako zaio maitemina enamoratuari; ez ordea Makariori, honek berdin jarraituko du aurrerantzean, ilea berriz ere haziko dela eta.

## PLANTEAMENDUA

Medio gisa irratiak aukeratu dut, eta irratiaren barruan jenero edo modalitate ondo berezitu bat: irrati-nobela. Badu erakarmenik aukeraketa honek, batetik eta batez ere, euskaraz eman den lehen irrati-nobela saio bat delako aztergaia; bestetik, irrati-nobela jenero bezala literatur jeneroetatik gertu samar dagoelako, eta horrek nolabaiteko hurbiltasuna ematen diolako gurekiko; last but not least, kontakizun hauen sortzailea Berna rdo Atxaga delako, eta honek halako “balio erantsi” berezia suposatzen duelako.

Asmoa edo xedea definitzerakoan, era batera baino gehiagotara egin liteke:

- Batetik, irrati-nobela, masa-kulturako jenero (erdaraz) tradizio handikoa eta ondo kodetua izaki, semiotikaren ikuspegitik aztertzea. Beste jenero herrikoi (popular) batzuk bezala (komikia, fotonobela, nobela arrosa...), estilizazioarako, tipoe-tarako joera nabarmena agertuko lukeenez (hipotesi hori onartzen dut hasieran behintzat). Alegia, komikiaren kasuan *iko-notasunaz* (iconicidad) hitzegiten den bezala,<sup>1</sup> hots, jantzi kodeak, eszenografi kodeak, ideografiak eta abar bereizten dira bezala, antzeko zerbait atzematea gure ihardun honetan.

- Ni ere inginkizuna definitzeko beste era bat hauxe litzateke: material idatzi bat irrati-produktu bihurtzeko prozesuaren deskribapena, ikuspegi semiotikoz (ahal den neurrian). Edo,

bestela esanda, literatur lan batek (horixe bait zen hasieran Atxagak idatzitako kontakizun-multzoa, nahiz irratirako enkar-guz idatzia izan) irratirako egokitzean izan dituen egokitza-pen-aldaketen deskribapena.

Eta asmo horiek nola bete planteatzerakoan, aztergaiaren izen jenerikoak berak erakusten digu nondik nora jo: *irra-tinobela* hitz konposatuak azterketaren bi adarrak erakutsiko lituzke bere osagai bietan:

– *Irrati* batetik, aztergaia irradi-produktua den aldetik aztertea; irratia, beste komunikabide eta medioetatik bereizten den aldetik, zer-nolako ezaugarriak ezartzen dizkion arakatzea.

– *Nobela*: irradi-nobelak beste jenero narratibo batzurekin batera, amankomunean, dituen ezaugarri edo kodeen azterketa: antzerkiarekin, fikzio idatzi (ipuinak, nobelak) nahiz filmatuekin (filmeak, telefilmeak, ...) amankomunean dituen kode eta ezaugarrien azterketa alegia. (Alde honetatik sekuentziak, funtzioak, aktanteak eta abar bereizi beharko lirateke).

## IRRATI-PRODUKTUA

### DEFINIZIOA

Irrati-produktu izateak espazioan ez baina denboran zehar garatzen den produktua izatea esan nahi du batetik, eta bestetik entzumenaren bidez jasotzen den produktua, inolako euskarri bisualik edo bestelakorik gabe.

Gauzak horrela, kontuan izan beharko da irradi-produktuaren iheskortasuna,<sup>2</sup> oraindik gutxi-asko Guttenberg-en galaxiaren baitan ohituta gauden honetan; literatura idatzia-ren produktuei kontrajarriko litzaieke, beraz, alde honetatik. Horrekin batera, kontuan izan beharko da halaber irudiaren kultura gero eta dominanteagotik at geratzen den produktua dela, eta beraz, bere materia soinuaren alorrekoa erabat. Alde honetatik zine, telebista, bideo produktuei kontrajarriko litzaieke. Gure kasuan, soinuaren materia horrek hiru forma nagusi hartuko lituzke: hitzak (hizkuntza artikulatua), musika eta hotsak (efektu-hotsak...).

Beraz, *denboran* zehar luzatzen den *soinu-jarioa* genuke, zeinetan *ahotsak* (hizkuntza artikulatua), *musika* eta *hotsak* tar-tekatzen edota nahasten diren, gutxi gorabehera egitura klasikoa lukeen *kontakizuna* osatuz (pertsonaia bat(zur)en gora-beherak *hasiera, garapena eta burutzapenean* zehar-”planteamiento, nudo y desenlace”).

#### DENBORAREN ARAZOA

Irratiaren soinu-jario etengabearen baitan zati bat beteko luke aztergaitzat hartu dudan irрати-nobelak. Soinu-jario hori era guztietako programek osatuko lukete: informatiboek, entretenimenduzkoek, kulturalak eta abar.<sup>3</sup> Irrati-nobela, jenero gisa, entretenimenduzkoen sailean sartzen dela emango dugu (“Lucecita” edo “Simplemente María” bezalako espainiar produktuak, edota ingelesen “soap-opera” direlakoak sartzen diren bezala, alegia). Alde honetatik, kontsiderazioa merezi luke zein denbora-zati hartzen duen aztergai dudan irрати-nobelak. Egunean bi aldiz ematen zen atal bakoitza, “ordu-puntetan”, nola-bait esateko. Horrek halako tratamendu berezia esan nahi luke, programatzaileen helburu edo asmoei zor litzaiokeena. Entreenimenduzko programa izanik, entzulego gehieneko orduetan, egunean bi aldiz emateak halako pisu berezi bat ematen dio irрати-jario guzti horrekiko, segmentu pribilejiatua bailitzen. Hainbat faktore sartuko lirateke hor, hasi egilearen oihartzunetik (Bernardo Atxaga, aurreko urtean Espainiako Kultur Ministeritzak eman ohi duen Narrazio Saria jasotako idazlea), eta programa hauen helburu pedagogikoraino (HABE erakundearen koproduzioa da “Antzoki iluna”; irratiz eman ondoren euskaltegietan material gisa erabiltzeko pentsatua). Arnheim-ek dioen bezala,<sup>4</sup> irratia beste zerbaitegin bitartean entzuteko medioa izan arren, garbi dago aztergai dugun produktu hau nabarmendu egin nahi izan dela, entzulegoaren arreta berezia erakarri nahi izan dela.

Bestalde, atal bakoitzaren eta guztien iraupenari dagokionez, esan behar da hasiera batean hiru orduaurdeneko 23 atal zirela Atxagak idatzitakoak, eta Jose Ramon Zubimendi egokitzaile eta zuzendariak berridatzi eta bihurtu zituela ordu erdiko 45. Horrek ere eragina izango du atalen barne-egitura ketan, aurrerago ikusiko dugunez (ordu erdira iristeko tarte



gehiago bete behar musikaz, esate baterako, horrek bere ondorioak dituelarik hitzak-musika-hotsak nahasteko proportzioetan, kontakizunaren erritmoan eta abarretan).

Orain artekoak eragin extrintsekoak dira. Denboraren tratamenduan eragin intrintsekotzat jo genitzakeenak ere badaude. Bat, atal guztien eta bakoitzaren egitura, denbora partitzeko modua, litzateke. Atal guztietan nabarmentzen da egitura berbera:

- Sarrerako kareta: “Antzoki iluna”ren kreditu-tituluak (ekoizleen, egile egokitzailen izenak e.a., kontakizun eta atal guztietan berbera den musika bereizgarriarekin); “Su-koloreko ilea zuen emakumea”ren musika bereizgarria (kontakizun honetako atal guztietan bat eta bera).

- Aurrerako atalaren laburpena (kontakizun bakoitzeko lehen atalean ez da halakorik, jakina).

- Egunean eguneko atala.

- Bukaerako kareta: kreditu-tituluak (egilea, babesleak, ekoizleak,) bere musika bereizgarriarekin (hasierako kareta-koa ez bezalako).

Denboraren tratamendua erabakitzen duen eraginik intrintsekoena kontaerak berak ezartzen duen kadentzia, tempo litzateke; barne-erritmoa. Barne-erritmo hau batez ere hiru osagai konbinatetik sortzen da: kontalariaren narrazioa, pertsonaien elkarrizketak eta musika-tarteak. Efektu-hotsek ez dute hainbesteko munta erritmoari dagokionez.

Alde honetatik ezaugarri nabarmen bat musika-tarte horien presentzia kuantitatibo aparta aipatu behar litzateke, ia-ia hitzek adina leku (denbora) hartzen dutelarik. Goian aipatu bezala, kanpo-arrazoiaren eragina ukalezina da hori horrela izan dadin: hiru ordu laurdeneko 23 kapitulutatik ordu erdiko 45era pasa beharrak erakarritako ondorioa. Bestetik, zertarako pedagogikoaren lagungarri ere gerta daiteke hau, hizkuntz lanketarako errazbideak eskainiz (hizkuntz materialean elementu jakin batzuri errazago erreparatzeko bidea edo).

Barne-erritmo hori hitzez esplikatzea alfer-lana den arren, honako ezaugarri hauek edo antzeman uste izan ditut:

- Narradorea da nagusi, oro har, lau ataletan zehar. Honek obra hau beste narrazio obra batzutatik hurbilago jarriko luke, esate baterako, antzerkitik baino, nahiz irrati-nobelak irrati bidezko antzerkitzat ere hartu ohi diren.

- Pertsonaien ihardunak laburrak dira gehienetan.
- Musikak sarri eteten ditu bai narradorea bai pertsonaiak, inoiz ez dagoelarik haren edo hauen ihardun luzerik segidan. Honek zatikatu egiten du kontakizuna, monotoni arriskuen kontra, halako mugikortasun bat emanez.
- Txertatzen diren musika-txatalak luzeegiak dirateke aukerara. Eta hitzezko ihardunaren erlazioa sekuentziala da -hitzen segidan musika-, nahiz noizbehinka -hirugaren eta lau-garren ataletan gehixeago- superpozioa ere ematen den: hitzen azpitik musika aditzen da, eta hitzok amaitzean musika hori indartu egiten da.

Idatzizko jeneroekin paralelotasuna eginez gero, puntu eta aparte ugariz betetako kontakizuna bezalakoa litzateke hau. Paper zuriak berez izan lezake funtzioa narrazioaren erritmoa erabakitzean; horrez gainera, irakurketa errazteko modua ere izan liteke. Hauez gainera, jakina, musikak berezko balio espresiboa du, era askotako espresibitatea. Aurrerago (2.4en) azalduko dut hau.

## AHOTSAK

Soinua hitzen esanahia baino indartsuagoa eta eragingarriagoa da, dio Arnheim-ek, hain zuzen elementalagoa, bertatik bertarakoagoa delako. Soinuaren intentsitatean, bolumenean, interbaloetan eta erritmoan datza haren adierazmenarena. Ahotsen kasuan ere, tonua eta espresioa esanahia baino garrantzitsuagoa omen dira soinuaren artean.<sup>5</sup>

Ahotsaren sinbolikotasunaz ere hitzegiten du Arnheim-ek,<sup>6</sup> ahotsa entzun eta pertsonaia osoa irudikatu behar du entzuleak. Besterik ez zaio ematen zuzenki harenik; zeharka bati, kontalariak eta beste pertsonaiek informazioa emango diote hartaz, baina guzti hori harekin egokitu behar da gero.

Ahotsak hala kontalaria nola pertsonaiak karakterizatzen ditu eta, beraz, garrantzi handia du ahotsak pertsonaia-tipoe-kin edo kategoriekin egokitzeko moduak: kontalariaren ahotsa pertsonaia bano hurbilago, tonu bajuagoan iristen zaigu, kontakizunaren beste plano bat dela adieraziz; protagonistaren ahotsa sendoa da ("birila", "noblea",...); neska protagonistarena, ezti dultzea; barregarriarena, berriz, lakartua; nes-

kame zaharrarena, amon-kutsukoa, e.a. Honek zerikusi zuzena du hasieran aipatutako estilizazioarekin: masa-kulturako produktuetan nabarmenak diren konbentzioekin. Komikiari buruz aipatutako *ikonotasunaren* p a rekoa litzateke, nolabait, karakterizatze-modu hau.

Bestalde, ahots bakoitza besterik gabe izaera bati lotuta dagoen aldetik, pertsonaiek zuzenean ekin diezaiokete hitzegiteari, kontalariaren zehaztapenik gabe (“esan zuen Alejandro”, “erantzun zion Inesek” eta antzekoen premiarik gabe; Atxagak berak behin baino gehiagotan aipatu izan du idazlearen morrontza hori); ahotsak bereiztu egiten ditu, idatziak ez. Elipsiak bide gehiago lituzke alde honetatik.

Hemen aipatu beharrekoa da, hala ahotsen tinbrearen nola dikzioaren eta espresibitatearen aldetik lortu den produktu egokia. Bestela esanda, Moragasek<sup>7</sup> aipatu ahalbide erretoriko bat-batekoen erabilpen egokia: intonazioa, azentua eta ahots bidez ematen diren hainbat figura erretoriko (mirespena, ironia, burla,...). Esan bezala, irrati-nobela euskaraz tradizioz gabea izanik, guztiz natural, egoki, entzuteko atseginak iruditzen zaizkigu ahotsok. Hortan egilearen (ahotsa natural entzuteko modukoa izan dadin hitzak ere egoki jarriak izan behar) eta egokitzailearen maisutasuna nabari da, aktoreen lan onarekin batera. Irratiak, kasu honetan ere, (euskal) telebistaren batez besteko baino kalitate handiagoa erakusten du entzutekoari dagokionez.

## MUSIKA

Musikak funtzio desberdinak betetzen ditu irati-nobela honetan. Hona hemen nik bereizi ditudan batzu:

- *Eginkizun mugatzaile eta identifikatzailea*: hau da, irrati-jarioaren kontinuumean zehar irrati-nobela hau datorrela adierazteko funtzioa; aurreko eta segidako programarekiko desberdintasuna, muga, markatzekoa alegia, eta horrekin batera programa konkretu hau identifikagarri bihurtzeko eginkizuna, (eta beraz identitate jakin bat ematearena, entzulearen belarrirako). Hasierako eta bukaerako kareten doinuek lukete funtzio hau. Esan bezala, kontakizun guztien eta bakoitzaren hasiera-bukaeretan musika-doinu bana, beti berberak, ema-

ten dira: hasierako karetan, “Antzoki iluna” sailari Bach-en Brandenburgoko 4. kontzertuko “Allegro”a dagokio; eta bukaerako kareta (Behethovenen adagio bat) honez gainera, “Su-koloreko ilea zuen emakumea”k ere bere musika bereizgarria du hasierako karetan, atal guztiei halako batasun bat ematen diena: Rick Wakemann-en “Dandelion dreams”en zatiak hain zuzen.

- *Funtzio espresiboa eta karakterizatzailea* deituko duguna (beste deitura hoberik otutzen ez eta): esan nahi bait da, narrazioaren harian zehar gertatzen diren gorabeherak, zerak, azpimarratzeko, kolore bereziz jazteko funtzioa luketen musika-tarteek beteko lukete funtzio hori.<sup>8</sup> Musika hitzen ondotik doa; hitzetan adierazten zaiguna azpimarratu, indartu, nabarduraz jazten zaigu.<sup>9</sup>

Alde honetatik aipatu beharrekoa da, oso nabarmena izaki, lehen ataletik besteetarako aldaketa, doinu-motei dagokienez. Lehen atalean, non xelebrea den pertsonaia nagusia, pertsonaia honi egokitzen zaizkion hainbat doinu ageri dira; denak ere Euskal Herriko soinu-tresnaz joak: dultzaina, gaita, musukitarra, irritzia, txalaparta (xelebrea kazetari bezala deskribatu ondoren entzungo dugu hau, berez tresna honek behinola omen zuen mezulari-funtzioa gogoratu nahiz nonbait), alboka, sunpñua, rondalla, tobera, kalko txistua, trikitrixa, txirula. Funtzio karakterizatzailea nabarmena litzateke kasu honetan.

Bigarren atala hasi bezain laster, aldaketa nabarmena dago. Don Alejandro medikua, nobelako protagonista nagusia dugu ekintzaren edo narrazioaren gune, eta neskarekikoak abian jarri direnez, bestelako musika-tarteak agertuko zaizkigu berehala; musika “seriotik”-edo hurbilago leudekeen musikak, hurrengo hiru ataletan zehar: Vivaldi, Brahms, Haendel, Bach, Albeniz, Verdi, Mendelssohn, Strauss,... sokazko koartetoak, pianoa, hemeretzigarren mendeko musika erromantikoaren txataltxoak,... Horrela jarraitzen da hurrengo ataletan ere, maiteminarren istorioaren gorabeherak klabikordioak, organoak, bibolin-soloek, pianoak, sokazko koartetoek eta bibolin-txelo bikoteek adierazkortu nahirik, eta musika-txatal desberdinen erritmo eta mugimendu aldaketek (allegroek, adagioek,...). Azkeneko bukaera ustegabekoarekin batera berriz

ere beste doinu mota bat agertuko zaigularik, musika friboloa deituko duguna, bukaerak halako zerbait eskatzen du eta.

O ro har, musika-txatal bakoitzak doi aurretik doazen hitzek adierazten dutena indartzen du, haren laguntzailea da. Adibide bat: 3. atalean, bat-batean, kontalariak McCullers idazle amerikarrak maitasunari buruz idatzitako gogoeta batzu ematen dizkigu; horri dagokion musika, zein eta Verdiren “Traviata”ko duetoa da, non gizonak eta emakumeak maitasunari buruzko elkarrizketa kantatua duten. Beste adibide bat: azkenean, bukaera ustegabeko eta ironiaz betea gertatu ondoren, Strauss-en “Pizzicato Polka” adituko dugu, egoeraren barre-garria azpimarratuz.

Bestetik, zineko filmeen banda sonoroan, sarri, musikak halako batasun bat izan ohi du, tema nagusi bat eta horren inguruko bariazioen garapena. Hemen, ordea, musikak ez du batasun hori. Maitasun istorioa kolore anitzez betetzen da horrela, maitasunaren pena, neke eta pozen aniztasuna konotatu nahiz agian.

- *Betelana*: funtzio hau ere ukaezina da kontakizun honetan. Eta arrazoia azaldu dugu gorago: eragin extrintseko deitu dugun haren kariaz, hau da, material idatzia 23 kapitulutan ez baina 45etan eman beharrak dakar betelan funtzio hori, nabarmena dena. Kontakizunaren erritmoa geldotu egiten du, gehiegi aukeran, eta entzuleentzat nekagarri gertatzeko arriskua ere baluke, ene ustez.

- *Erritmo-sortzailea* esan dut denboraren arazoaz aritzean, hitzezko ihardunak inoiz ez direla luzeegiak egiten, ez narradorearen ez pertsonaien kasuan, eta horrek lehenengoaren nagusitasuna batez ere eten eta disimulatzeko eragina duela, entzuten ari garenari erritmo arina eta mugikorra erantsiz.

- *Funtzio narratiboa* (hau ere ez dateke izenik egokiena baina): alegia, musika lagungarri ez baina narrazioan bertan, fikzioko beste osagarri bat gehiago denean, narradorearen edo pertsonaien hitzak bezala. Kontakizun honetan ez dago honen adibide peto-petorik; bakarra agian, Alejandro mozkortuta doanean, kalean zehar, maitemin esperantza gabearen kausaz, “Ay, ay, ay, ay, canta y no llores” abestuz; aurreko kontakizunean, ordea, bai: pertsonaietako bat soinu-jolea da eta

obra ren harian soinu jotzen azaltzen zaigu, neska eta mutilari elkarrekin dantzan egiteko aukera eman ez hain zuzen.

## HOTSAK

Efektu-hotsak dira ia irratiak entzuleari gauzak erakusteko, “ikusitako erakusteko” dituen bitarteko bakarrak. Berez, “soinuzko dekoratua” ikusizkoa baino estilizatuagoa da beti, ezinbestean.<sup>10</sup> Baina irrati-nobela honetan azpimarratzekoa da zein ekonomia handiz erabiltzen diren efektu-hotsak. Entzulea ia konturatu ere ez da egiten baina horiei eskerrak irudimenezko geografia eraikitzen du gogoan:

- Espazioaren berri ematen zaio: lehen atalean, ostaturako eszenetan, jendearen barbaroa eta noizbehinka goilaratxoaren edo botilen hotsa entzuten dira.

- Espazio hori aire zabala den ala leku itxi bat, adierazten da: bigarren atalean, Alejandro Ugartenera bazkaltzera joateko itxaron ezinik dagoela, kanpai hotsak eta txorien txio-txioak aditzen dira. Ugartenean, berriz, bazkaltzen ari direnean, kubiertoek ateratzenduten hotsa besterik ez da aditzen, zertan ari direnaren seinalkari.

- Denbora ere adieraz dezake efektu-hots batek: aipaturako kanpai-hotsek eguerdiko hamabiak direla adierazten digute.

- Suspentsea ere lor daiteke: Alejandrok Ines lehen aldiz ikusten duenean, ateak zabaltzean egiten duen kirrinkotsa aditurako dugu.

- Beste hainbat konotazio ere iradokitzen dute hotsek: txorienak ingurune errurala konotaturako luke, kanpai-hotsak herri txiki bat; hirugarren atalean, Alejandro amodio penetan eta ardotan itota ikusten dugu, gauean, kale erdian bakarrik eta zakur-zaunkak aditurako dira urrunean: gaua, bakardadea, urruntasuna,...

Beste efektu tekniko batzu, hala nola durundia (rever), ez dira erabiltzen kontakizun honetan, baina bai Antzoki iluna”ko beste batzutan. Kontalariaren ahotsari eransten zaio, berare n eta kontatzen duen istorioaren artean plano desberdintasuna (denbora dagoke tartean, adibidez) markatzeko.

## NARRAZIOA

### KONBENTZIOAK

Erdaraz irrati-nobelak tradizio handia izan du eta ondorioz jenero ondo kodetua da, beste hainbat jenero herrikoi bezala (komikia, nobela arrosa, fotonobela,...). Euskaraz, “Antzoki iluna”ko irrati-nobelek hain ondo funtzionatu izana, besteak beste, kode horietaz baliatzeari zor zaio. Hain zuzen, Bernardo Atxagak berak behin baino gehiagotan esan izan du, euskal literaturaz ari zela (berdin balio du irrati-nobelarako ere), tradizio faltarena ez dela hainbesteko arazoa, euskaraz tradizioz ez duten jenero, azpijenero eta abarrek beste hizkuntzetatik beregana dezaketela tradizio hori. “Mila gau eta gau bat gehiago” irakurri ondoren, esate baterako, nahiz erdaraz irakurri, euskal irakurlea (eta idazlea) antzina-antzinatik datorren tradizio narratibo batez jabetzen dela alegia.

Hala bada, irrati-nobela hau ere kode horren arauera egina litzateke, eta gure lana kodearen nondik norakoak, osagaiak, ezaugarriak, elementuak bereiztea litzateke. Eta inolako exhaustibotasun asmorik gabe, kodearen agerpide diren zenbait *konbentzio* seinalatuko ditugu.

- *Pertsonaia-tipoak*: hau da, aspaldi-aspalditik datozkigun tipoak aurkitzen ditugu irrati-nobela honetan ere. Mutila-Neska-Barregarria hirutasun nagusia, oker ez banago, Lope de Vegaren garaiko komedietan jadanik funtzionatzen zuen eskema bat da. Gaurregun zineko eta telebistako filmeetan ere erruz erabiltzen da. Masa-kulturaren guztiz sustraituta dago.<sup>11</sup> “Mutilaz” eta “Neskaz” hitzegiten genuen umetan, elkarri pelikulak kontatzen iharduten genuenean (“el Chico” eta “la Chica”z, zehazkiago); estilo garai, atsegin, duin batean ageri ohi zitzaigun bikote hau; horiekin batera, gehienetan mutilaren laguna eta laguntzailea zen Barregarria agertzen zen (“el Amigo del Chico”), gizarajo bihotz oneko bat, zatar samarra, akats nabarmenen bat zuena, zeinen aldamenean beste biak garaiago eta ederrago agertzen bait ziren.

Gauza bera dugu “Su-koloreko ilea...” honetan ere:

– Mutila don *Alejandro*da, medikua, ezkongagia, bi metroko eta 37 urteko gizandia, ahots sendokoa.

- Neska, *Ines* oraindik ez omen ditu 25 urteak beteak; sekula inongo emakumeri ikusi gabeko ilaje eder baten jabea da; ahots eztiduna; ontasun orbangabekoa,...

- Barregarria *Makario* da (ohar hiruren izenei): ahots fin erlatseko xeble bat, herriko konta-katilu lanak bere gain hartzen dituen; ttiki xaxtar bat, ardozalea,... Kontakizun honetan aparteko garrantzia du pertsonaia honek. Ohar bes-tela kontalariak istorioa kontatzen hasteko duen moduari: Xelebrearen arketipoaren deskribapena, bere berezitasun sein-alatuenak emanez; ondoren, Makario xeblearen deskribapena; horren atzetik, musikak kontakizuna eten ondoren, has-ten da berez narrazioa edo kontakizuna: Urizar herrian uda-berria etorri da, ostatua jendez beteta, giro polita,...

Bestalde, Makariok gorpuzten duen funtzioa (hitzaren adie-rarik semiotikoenean, nolabait esateko; J. Romera Castillok irakaskuntzan klasikoa den testuliburu batean<sup>12</sup> darabilen moduan, alegia), narrazioaren eskema abstraktuaren aurre-rabidean, oso inportantea da. Narrazioan dauden jauzi, eten edo elipsietan, adibidez, zenbait aldiz Makariok lotura-egitekoa betetzen du. Hala, berak iragarriko du neskaren etorrera (1. ata-lean); Ugarte indianoaren, gaixorik ia hiltzorian (4. atalean), eta heriotzaren atzaparretatik libratu denekoa (4. atalean, halaber)... Hots, konta-katilu edo herriko kronista eta berrie-mailearen egitekoa betetzeaz gainera, maila abstraktuago batean, aktante gisa (E. Souriauk "*Deux cent mille situations dra-matiques*" lanean darabilen terminologian).

Hiru pertsonaia horiez gainera, Alejandro bizi deneko etxe-koandrea aipa daiteke, amatasuna (ama batek bezala maite du medikua), esperientzia eta zuhurtzia hezur-mamituta (berak erakutsiko dio mediku inozente samarrari neskarekin nola harremanetan jarri; euskal-zelestina gozo bat alegia. "Zein sor-gina zaren, eta zein amona polita!", esango dio Alejandrok eskerronez beterik, bigarren atalean).

Besteak dekoratuarekin konfunditzen dira, arketipo hu-tsak dira, apenas indibidualtasunik gabe (ostatuan karta-jokoan ari direnak, Ugarte "indianoa" -ohar "indianoaren" per-tsonaia topikoari, euskal tradizioan).

- *Amodio-istorio* baten aurrean gaude, eta hau ere hain da topiko non ia esan beharrik ez dagoen. Izan ere, gaurrengungo



masa-kulturako fikzio-produktuetan, ezinbesteko osagaia da, eskema topiko-tipikoenen inguruan betiere Hemen bezala. Egia esan, Atxagak exajeratu ere egiten du pixka bat -apropos, nik uste, horixe behar bait du kontakizunaren azkenean argi-tuko dena argi dadin-: Alejandro, 37 urteko mutilzahar parranderoa erabat inuxente ageri zaigu maitasun kontuetan; hama-bost urteko adoleszente bat dirudi, ilaje eder hartaz maitemintzen da, mozkortu egiten da neska beste batekin ezkontzekotan dela jakitean,... Neska ere, bere ilaje eder eta ahots eztiatz aparte, mundu honetakoa ez den aingerutasun inozoz jantzita ageri da, erabat pasibo, inolako errebeldiarik egiteko gai ez dela (eta gauza heroiko bakarra egin dezanean, ilajea moztu, dena behera etorriko da). Makario xelebrea ere maiteminduta dago Inesez, baina oso era xelebrean, medikuaren maitasunak trajediaren aztarrenak dituen bezala (nahiz erridikulo samar), barregarriarena Inesi begira egotera mugatzen da (“gaur zazpi aldiz ikusi dut!”).

- *Unibertso errurala*: hau Atxagaren ezaugarria eta azken urteotako euskal literaturaren ezaugarria da, *topos* bat, *locus communis* bihurtu dena ia. Eta hain zuzen hortxe funtzionatzen du ondoen Atxagaren euskara bizi pipertsuak. Beste arrazoi bat kontakizuna “natural” irudi dakigun. Baina Atxagak topikoak exajeratzera egiten du alde honetatik ere: lehen ataleko ostatuko eszena da adibiderik argiena: gizonezko koadrila bat kartetan; xelebrea ageri eta adar soinu jatorra, eztenkadak, irtenaldi zorrotzak,... “genuino sabor vasco” duen koadroa, alegia.

## HAUSTURA

Orain arte konbentzioak seinalatu ditugu, baina kontakizun honen gakoa hain zuzen konbentzio horien hausturan dago. Orduantxe hartzen du ber tamaina osoa, ber esanahi osoa. Hari osoan zehar eraiki den istorioak krak egiten du ustegabeko amaian, Ines ile-motz eta Alejandro enamoratua zentzaturik agertzen zaizkigunean.

Ironia azken horretan konzentratzen bada ere, kontakizun osoan zehar pilatuz joan da. Ez nabarmenegi, hala ere, entzuleak neurri batean sinetsi egin behar du entzuten duena, eta istorioa eta pertsonaiak erridikuluegi egiten bazaizkio, dis-

tantziatu egingo da gehiegi. Egileak, bada, ez du agertu behar nabarmenegi kontaktzen denarekiko eta pertsonaiekiko distantziamendua ere. Baina identifikatu ere ez da egiten, jakina. Estrategia bat darabil, erdibide horri tentua hartu eta kontakizunak funtziona dezan.

Batetik, pertsonaia-tipoak karikaturizatzeraz jotzen du, zenbait ezaugarri exajeratuz. Alejandro bi metroko gizon-puska da, baina ume ttiki bat bezala jokutzen du. Hala ageri zaigu, hama-bost urteko mutiko bat bezala maitemintzen denean. Agertu ezezik, beste pertsonaiek nahiz kontalariak behin baino gehiagotan adieraziko dute horixe (Mariak: “berori inuxenteezia da, don Alejandro; hau da dena esan beharra”, 2. at. Kontalariak: “Gizon handi haren barruan haur ttiki bat ezkututzen zen”, 2. at.).

Xelebrearen kasuan ere bai ber jokabideak eta bai pertsonaiek eta kontalariak, behin eta berriz ateratzen dituzte aren xelebretasunaren seinaleak.

Inesen kasuan, ordea, neskaren inuxentea berak ber jokabideaz azaltzen du: ahotsean, esaten dituenetan (“Zein arinak diren gizonak, Ines” esaten dio Ugarteren emazteak, eta neskaren erantzuna: “Ez dakit ba”).

Guzti horiek kontaktetan zehar ongi dosifikatu ondoren, azken erabatekoak dena argitan jartzen du. Euskarritzat hartutako hainbat konbentzio horrelaxe agertzen zaizkigu orduan, konbentzio, itxura huts.

1. Ikus GUBERN, Román: *La mirada opulenta*, Ed. Gustavo Gili, Barcelona, 1987, 223 or. eta hur.
2. MORAGAS, Miguel: *Semiótica y comunicación de masas*, Ed. Gustavo Gili, Barcelona, 296 orrialdean, “caducidad del mensaje radiofónico”
3. MORAGAS, Miguel: op. cit., “Metodología del análisis del mensaje radiofónico” kapituluari sailkatzeko kategoria batzu ematen ditu, “espazioa”, “ereduak” eta “irriti-jeneroak”, besteak beste, baina ez dut uste lanhonetarako hainbesteko zehaztasunetan sartzea interesatzen denik.
4. ARNHEIM, Rudolf: *Estética radiofónica*, Ed. Gustavo Gili, Barcelona, 1980, 12. or.
5. ARNHEIM, Rudolf: op. cit., 24-25 or.
6. ARNHEIM, Rudolf: op. cit., 30 or.
7. MORAGAS, Miguel: op. cit., 276 or.
8. MORAGASek dioenez, horixe da musikaren funtzio nagusia irratigintzan: “La función de la componente musical, en la mayor parte de las ocasiones, es la de euforizar el texto” (281 or.)
9. Ibid.: “... la música... subraya, entona, acentúa, interroga, enmarca, implica admiración...”
10. ARNHEIM, Rudolf: op. cit., 71 or.
11. Ikus ECO, Umberto: *Apocalípticos e integrados*, Ed Lumen, Barcelona, 1985, 213-247 or.
12. ROMERA CASTILLO, José: *Comentario semiótico de textos*, SGEL, Madrid, 1980.
13. SOURIAU, Etienne: *Deux cent milles situations dramatiques*, Flammarion (?), Paris, 1.97(?).

HAINBAT  
ABURU

---

MIKEL HERNANDEZ  
ERREALISMOAREN GAURKOTASUNA

# ERREALISMOAREN GAURKOTASUNA

Saizarbitoriari lagunkiro

*MIKEL HERNANDEZ ABAITUA*

---

**M**unduan ez da ia gauzarik hain eder eta plazentik nola lagunekin literaturaz mintzatzea kafea harturik. Hain zuzen ere, maiz idazten ditugun artikulua lagunei egunkari edo aldizkari bidez igorritako gutunak baizik ez dira. Honako hau ere horrelakoa da ziur aski. Biziki pozgarria bait da lagun batek gutuna jaso duela egiaztatzea, eta areago solaserako gogo duela ikustea. Askotan, ordea, idazten ditugun artikulua, itsasora jaurlikitzen diren mezudun botilen antzora, gutxien espero ditugunek jasotzen dituzte. Halako zerbait gertatu zitzaidan *Euskaldunon Egunkaria*-n agitaratu zidaten artikulua batekin, zeini Saizarbitoriak erantzun zion *Jakin* aldizkarian. Hortaz, jorratu nahi dugun gai aritu baino

lehen, artikulua horretatik ateratako Saizarbitoriaren aipu bat aldatu beharra dago hona:

«Badira Gizakomediaren telefilme errealista burutzeko ezintasuna abanguardiazko espekulazio teorikoen laguntzaz disimulatu nahi luketenak, baina ez uste lortzen dutenik. Errealismoa, egiteko gauza ez delako, abandonatzen duenak ez du inspirazioa handik kanpo aurkituko.

Gainera, zein da literatura errealistak atxeki beharko lukeen errealitatea? Ez dago bizitza errealik, dio maisuak, jenedun idazle batentzat: berak sortu beharko du eta gero ondorioak sortu. Eta lehenago: literatura ez zen jaio aro neanderthalean mutiko bat otso gris bat orpoetan zeramala “Otsoa! Otsoa!” oihuka azaldu zenean; literatura jaio zen mutikoa “Otsoa! Otsoa!” oihuka atzetik otsorik ez zuela azaldu zenean. Mutil gizajoa hainbeste aldiz gezurra esateagatik benetako otso batek jan bazuen akzidente hutsa da. Basoko otsoaren eta historia sinestezineko otsoaren artean bada tarteko puntu distiratsu bat. Puntu distiratsu hori, prisma hori, da literaturaren artea.»<sup>1</sup>

Badakit zer esan nahi duen Ramón Saizarbitoriak, baina beharbada gaizki aukeratu du adibidea. Literatura ez zen jaio mutikoa, atzetik otsorik ez zuela, “otsoa!, otsoa!” oihu eginez azaldu zenean. Zeren pasadizo hori benetan gertatu bait zen, eta hori baino lehen horrelako ziri franko sartuta bait zegoen mutila eta baita jende asko ere bera baino lehen. Literatura sortu zen gertakaria ikusi zuen norbaitek istorioa kontatzeko gogoia sentitu eta, besteei kontatu ahal izateko, bere memorian finkatu zuenean. Kontua da batek baino gehiagok ikusi zuela gertakaria, demagun bik, eta pasadizo berberaren aurrean oso istorio diferenteak “asmatu” zituztela. Eta biek zioten, gainera, beraiek kontatzen zuten istorioa zela ederrena. Lehena, adibidez, ziur zegoen mutikoa tribuko aztiaren semea zela eta aitak prestatutako edari magikoa zeramala otsoa benetan agertu zenean, eta likidoa otsoaren gainean botata erle bihurtu zuela. Bigarrenak, ordea, pasadizo berean oinarriturik, zeharo bes-telako istorioa kontatzen du, eta honek ere politena berea dela dio eta, aurrekoa bezala, sutsuki haserretuko zaizue kontra-koa esaten badiozue, bi-biek uste bait dute, gixajoek, bat ona izateak bestea txarra izatea suposatzen duela. Bigarren honek ez du amets-munduko elementurik erabiltzen bere istorioa

imaginatzeko. “Asmatu” ere egiten du istorioa, baina xehetasun errealez (ikusitakoa eta asmatutakoa nahasten ditu fisikioa sortuz). Beraz, badirudi besteak baino gutxiago asmatu duela, eta lehenak ez dio hori barkatuko, interes handia bait du, gainera, benetako literatura berak egiten duela, eta ez besteak, argi eta garbi gera dadin. Bigarrenak xehetasun errealistak (ez e r realak) maite ditu, eta lehen-lehenik badaki benetan gertatu den istorioa kontatzeko sinesgarria ote den pentsatu behar duela, eta gero xehetasun errealistak “asmatu” behar dituela istorioa behar bezainbeste aldatuz literatura bihur dadin eta sinesgarri gerta dakien entzuleei edo irakurleei. Eta hasten da imaginatzen —esan dezagun umore apur batez, bidenabar— mutiko horri, Zirizaletorix izenekoa esaterako, oso gustatzen zaiola Ombe Astoilvn modako bertsolari famatuaren azken doinua bere txirulan jotzea, eta horretan ari dela etorri zaiola ziri hori sartzeko ideia. Demagun eguerdia dela, baina ez duela oraindik bazkaldu. Brisara xuabe batek laztantzen dio aurpegia, eta bihotza harrapatu dion neska ilehoriaz pentsatzen du, Panoramixa izenekoa, batere jaramonik egiten ez diona. Beharbada, haren atentzioa erakartzeko egingo du bururatu zaion txantxa. Kontalari errealista honek gozamen handiz kontatu nahi izango digu, nahiz eta gezur hutsa izan, mutikoak zer jaten duen eguerdian ziria sartu baino lehen, Idiazabalgo gazta demagun —ba al dago ezer errealistagorik?—, eta ongi dokumentatuko da gezurrezko xehetasun guztiak hobeto “asmatzeko” (“horreur!, horiek arrunkeriak” esango du lehen kontalariak). Bigarrenak ezin du sahiestu, izugarri gustatzen zaio guzti hori horrela kontatzea. Eta bere gozamenaren erdian dagoenean (nahi duena egiteko libertate osoa bait du, gura dituen jostailuak aukeratzeko alegia) lehen kontalaria etorriko zaio festa zapuztera eta esatera hura ez dela benetako literatura, berak egiten duena baizik, eta laguna baldin bada, maitasunez eta on-beharrez esango dio, eta laguna ez baldin bada, haserreantzean beharbada. Eta literaturaren definizioak ematera ere ausartuko da laguna, bigarren kontalaria harri-harri eginda utziz, berari ez bait zaio axola “literatura” edo nahi den etiketa jartzea berak egiten duenari, eta gainera uste du askatasun osoa duela nahi duena egiteko.

## IMAGINAZIOA ETA ERREALITATEA

Komiki moduko nobela bat edo “nouveau roman” tanke-rako zerbait idatziz gero, inor ez zaizu eskandalizatuko, baina badirudi errealismo-motaren batzuk jendea harritzeko ahalmena dutela oraindik. Jadanik ezerekin harritzen ez den gizarte honetan ez da batere seinale txarra. Polemika sortzeko ahalmen hori bera da harrigarriena eta garbi dago orain ehun urte Émile Zolak esandako hitzak polemikoak gertatzen direla oraindik ere:

«Le plus bel éloge que l'on pouvait faire autrefois d'un romancier était de dire: "Il a de l'imagination." Aujourd'hui, cet éloge serait presque regardé comme une critique. C'est que toutes les conditions du roman ont changé. L'imagination n'est plus la qualité maîtresse du romancier.

Alexandre Dumas, Eugène Sue, avaient de l'imagination. (...) Mais personne ne s'est avisé d'accorder de l'imagination à Balzac et à Stendhal. On a parlé de leurs facultés puissantes d'observation et d'analyse; ils sont grands parce qu'ils ont peint leur époque, et non parce qu'ils ont inventé des contes. (...)

J'insiste sur cette déchéance de l'imagination parce que j'y vois la caractéristique même du roman moderne.»<sup>2</sup>

Bai, dirudienez Zolaren hitz horiek eskandalotsuak gertatzen dira oraindik, eta Euskal Herrian, beharbada, inon baino gehiago. Hemen beti ibili gara atzeratuta literatur joerei dago-kienez, eta atzerapenik egon ez denean ezereza nagusitu delako izan da, nobela errealistaren kasuan bezala. Hala ere, badirudi orain dela urte batzuk aski gaurkotuta ibili ginela, gure idazle batzuek orduko abanguardiaz sintonizatu zutela berantkortasun handirik gabe. Baina, beharbada, batzuk abanguardian egotetik ezabanguardian egotera pasatu dira abanguardia zaharrari eusteagatik. Horiek baino modernoagoak gertatzen dira askotan —edo ez hain zaharkituak behintzat— errealismo zaharra berartu dutenak. Marcos Ricardo Barnatánek idatzi duen bezala:

«Hay algunos que se alarman ante un retorno del realismo como si el realismo se hubiera marchado alguna vez. El apego por el realismo es una constante del arte y la literatura espa-

ñola, y un gusto muy acendrado en la cultura occidental. Ahora que todo lo que se creía fenecido vuelve y todo lo que se soñaba futuro se desvanece, el realismo ataca de nuevo porque nunca se fue. (...)

Su último disfraz es el realismo sucio, un estilo que se inventó en el cine, que continuaron los novelistas y que ahora es asimilado por las artes plásticas más jóvenes.»<sup>3</sup>

Ordea, ni ez noa Zola bezain urruti. Badirudi errealismoaren bidez, ezer asmatu gabe, errealitate-zati bat ematen zaiola irakurleari, baina gezurra da. Literatura hutsa da, edozein antirrealismo bezain literatura, eta horregatik, egia eta gezurra aldi berean. Inork ez daki zer den errealitatea. Baina dena da errealitatea, baita mundu onirikoa ere.

## POLEMIKA BAT

Gaurko autore batzuk, ordea, Zola bezain erradikalak dira beren errealismoaren aldeko joeran. Gogoratu orain dela urte gutxi, bere *The Bonfire of Vanities* argitaratu ondoren, Tom Wolfek sortutako polemika, antzerako zerbait esateagatik, eta Anthony Burgessen erantzun gogorra, zeinek esaten bait zuen Wolfere nobela errealista kazetaritza hutsa dela, ez literatura. Burgessen ustez Wolfe ez da konturatzen hizkuntzak duen inportantziaz:

«Una novela está hecha con palabras, al igual que un poema, y no es posible que tanto escritor como lector pretendan que el lenguaje sea una especie de transparencia a través de la cual vemos las cosas.»<sup>4</sup>

Burgessek bere artikuluan ez du Zolaz gaizki hitz egiten, “escritor de gran fuerza” deitzen dio. Ziur aski ez luke gauza bera esango Zolaren beraren hitz hauek ezagutuko balitu:

«Oui, il nous faut de la simplicité dans la langue, si nous voulons en faire l’arme scientifique du siècle. (...) Je voulais bien une composition simple, une langue nette, quelque chose comme une maison de verre laissant voir les idées à l’intérieur; je rêvais même le dédain de la rhétorique, les documents humains donnés dans leur nudité sévère.»<sup>5</sup>



Ene ustez, hizkuntza aldetik, posible da Zolak nahi duena Burgessek nahi duenari eranstea, eta adibiderik onena Flauberten *Madame Bovary* bera da.

Bestalde, Tom Wolferen iritziak aspaldikoak dira. Hona hemen batzuk (badakit aipu hauek luze samarrak direla, baina hona aldatuko ditudan bezala ematea merezi duela uste dut):

«En esta década de los setenta, La Novela celebrará el centésimo aniversario de su canonización como el género eclesiástico. Los novelistas actuales continúan empleando términos como “mito”, “fábula” y “magia”. Ese concepto peculiar conocido como “el sagrado ministerio del novelista” tuvo su origen en Europa a partir de 1870 y no se asentó en el mundo literario norteamericano hasta después de la Segunda Guerra Mundial. Pero no tardó en recuperar el tiempo perdido. ¿Qué tipo de novela debe escribir un ministro sagrado? En 1948, Lionel Trilling apuntó la teoría de que la novela de realismo social estaba acabada porque el tren de carga de la historia la había pasado de largo. El argumento consistía en que tales novelas eran un producto de la ascensión de la burguesía en el siglo XIX a la cumbre del capitalismo. Pero ahora la sociedad burguesa se estaría supuestamente fragmentando, desintegrando. Un novelista ya no podría retratar una parte de esa sociedad en la confianza de captar el *Zeitgeist*; todo lo que le quedaría es una de las piezas rotas. La única esperanza radicaba en una nueva clase de novela (la novela de ideas era su candidata). Esta teoría prendió entre los jóvenes novelistas con una fuerza sorprendente. Carreras enteras resultaron alteradas. Todos aquellos escritores cobijados en los pubs literarios de Nueva York, como la White Horse Tavern, se precipitaron a escribir novelas de todas las clases que quepa imaginar, con tal de que no fuese la llamada “gran novela” de costumbres y sociedad. Lo siguiente que se supo es que se metieron en novelas de ideas, novelas freudianas, novelas surrealistas, novelas kafkianas y, más recientemente, la novela catatónica o novela de la inmovilidad, del tipo que arranca así: “Con el fin de tomar la delantera, se fue a vivir solo a una isla y se pegó un tiro.” (Frase inicial de un relato de Robert Coover).

Como resultado, en los años sesenta, por la época en que fui a Nueva York, los novelistas más serios, ambiciosos y, presumiblemente, de mayor talento habían abandonado el campo más fértil de la novela: esto es, la sociedad, el fresco social, las costumbres y las éticas, todo el conjunto de “cómo vivimos

ahora”, según la frase de Trollope. No existe el escritor que será recordado como el novelista que captó el espíritu de los años sesenta en Norteamérica, o siquiera en Nueva York, en el mismo sentido que Thackeray fue el cronista del Londres de 1840 y Balzac el cronista de París y de Francia entera tras la caída del Imperio. Balzac se enorgullecía de ser “el secretario de la sociedad francesa”. Los novelistas norteamericanos más serios se abrirían las venas antes que ser conocidos como “el secretario de la sociedad norteamericana”, y no simplemente por causa de consideraciones ideológicas. Con fábulas, mitos y ministerios sagrados en que pensar ¿quién desearía un papel tan servil?»<sup>6</sup>

Tom Wolferen eraso, jakina, gehiegizkoa da, azken urteotan errealismoak nozitutako mespretxu biziak sortua behar bada. Ziur aski, Wolfek pentsatzen duen baino gogorrago hitz egiten du, alde batetik errealismoaren kontrako joera konpentsatzeko, eta bestetik abanguardiaren izenean idatzitako nobela kaskarrak irrigarri uzteko. Bestela, dudarik gabe, oso bidegabea litzateke bere kritika, ezen alegiek, mitoeak eta magiak e re errealitateaz hitz egiten bait dute, haren ikuspegi osagarria emanez. Esan dezakegu XIX. mendeko errealismoak oso urrutitik jasotzen zuela errealitatea, pintzelada lodiez, oso altu dabilen hegaziaren antzora edo. Errealismoaren bidea lurre-ratze progresibo antzeko zerbait izan da, Robbe Grillet, Claude Simon eta Nathalie Sarraute bezalako autoreen errealismo-raino iritsiz. Bai, zeren eta, azken finean, horiek ere, batzuentzat oso antirrealistak gertatzen badira ere, inor baino errealistagoak bait dira. Baina horrek ez die errealista tradizionalagoak diren autoreez trufatzeko eskubiderik. Ez da ahaztu behar errealistek beren garaian jasotzen zituzten kritika gogor berberak jasotzen dituela askotan gaurko idazle errealista tradizionalak. Hona hemen Tom Wolferen beste aipu bat:

«(...) Las novelas —y en particular las novelas realistas de hombres como Fielding, Sterne y Smollet (y más tarde Dickens y Balzac)— parecían fracasar en todos los test decisivos. Sus miras eran bajas (“simple diversión”). Se interesaban por las costumbres (“superficial”) más que por las verdades y por el alma. Y resultaban tan abominablemente vulgares... toda esa curiosidad mórbida por las vidas de lacayos, mozas de granja, posaderos, directores de “music-hall”, galanteadores y queri-

das y otras gentes que no tenían talla ni grandeza. El Dr. Johnson desechó las novelas de Fielding afirmando que sus personajes eran tan de la “vida vulgar”, que se pensaría que “el propio Fielding debe de ser un palafranero.»<sup>7</sup>

Errealismo tradizionalak batere atsegina ez den dokumentatze-lana eskatzen du; gogora dezagun Flauberten kasua berriz ere. Lan horretatik ateratako literatura ez litzatete, batzuen ustez, literatura izango. Baina hori ez da egia. Dokumentatzen den literaturak eta kazetaritzak oso modu diferentean islatzen bait dute errealitatea. Entzun diezaigun berriz ere Tom Wolferi:

«Los novelistas [realistas del XIX] habían aceptado la desagradable tarea de documentarse, de ir de un lado para otro, de “escarbar”, con el fin de explicarlo como es debido. Esto formaba parte del proceso de escribir novelas. Dickens viajó a tres ciudades de Yorkshire con nombre supuesto y fingió buscar un colegio para el hijo de una amiga viuda... con el fin de infiltrarse en los notorios internados de Yorkshire y recoger material para Nicolas Nickleby.

Los realistas sociales como Dickens y Balzac parecían complacerse con tal frecuencia en el realismo puro y simple que eso se les reprochó a todo lo largo de su carrera. Ninguno de los dos fue considerado como un artista en vida (...).

Casi todos los novelistas norteamericanos “serios” de hoy proceden de las universidades, y en ellas aprenden a fijarse en modelos tales como Beckett, Pinter, Kafka, Hesse, Borges, y más recientemente Zamyatin (...). El resultado final ha sido un desconcertante género de ficción (...) en el que los personajes carecen de entorno, de historia personal, no se identifican con ninguna clase social, y consuman sus sins en un lugar que no tiene nombre, con frecuencia un terreno elemental y sin tiempo como un bosque, un pantano, un desierto, una montaña o el mar. Suelen hablar, si es que hablan, con frases cortas y más bien mecánicas que, nuevamente, no traicionan ningún entorno específico, o bien emplean una dicción inexplicablemente arcaica (...). ¿Qué tipifican esos procedimientos narrativos? ¡Toma!... mito, fábula, parábola, leyenda.»<sup>8</sup>

Baina Wolfe ez da gaur egun horrelako gauzak esaten dituen bakararra. Azken urteotan errealismoaren aldeko beste ahots asko ere sortu da: adibidez C.P. Snow, zeinek *Errealistak* ize-

neko bere liburuan fizkio errealista “arterik jakintsuena” dela bait dio; edo Stephen Vizinczey, zeinek Heinrich von Kleist idazle alemaniarraz ari dela esaten bait du:

«(...) es un escritor clásico en el sentido griego. El mejor guía para llegar a él es Aristóteles, quien dijo que de todos los elementos de la tragedia, “el más importante es la trama, la ordenación de los incidentes, porque la tragedia no es sólo una representación de hombres, sino de la acción y de la vida, de la dicha y la desdicha... y la dicha y la desdicha están unidas por la acción”. Hay que añadir que el mejor modo de representar a los hombres es a través de la acción, porque, como el propio Aristóteles dice, “el carácter es lo que revela la elección personal... preferencias y aversiones”. Y, naturalmente, no tenemos idea de la fuerza de ninguna preferencia o aversión hasta que una persona actúa en consecuencia. Sólo cuando sabemos qué hace una persona podemos saber qué quiere, qué siente en realidad: sólo la acción verifica el carácter.

Recalco esto porque todavía está muy de moda dar por sentado que la trama es una especie de elemento inferior del arte literario, en vez del más importante y difícil, como insiste Aristóteles. Kleist practicó casi exclusivamente lo más difícil: casi no escribe otra cosa que trama.»<sup>9</sup>

Bai, errealismoak polemiko izaten jarraitzen du idazle eta kritikoen artean, baina irakurleei ez zaie horrelakorik gertatzen, atsegin handiz onartzen bait dituzte lan errealistak. Idazle eta kritiko askorentzat, ordea, errealismoa arruntegia da aintzat hartzeko. Idazle errealistek beti izan dituzte lan handiak bere n liburuak serio har ditzaten. Kasu paradigmaticoa da Dickensena, XX. mendean oraino gaitzetsita zegoena bere herriko unibertsitate handienetan.

## HISTORIA APUR BAT

Errealismoa, lehendabizi, XIX. mendean pinturaren alorrean sortu zela gogoratzea komeni litzateke, nahiz eta izen desegokia izan berau, zeren pintura Pizkunde garaitik gutxienez ari bait zen errealitatea islatzen (betidanik, egia esan). 1885ean gaitzetsi zizkion Gustave Courbet pintore frantsesari

Pariseko Saloiko talde aukeratzailleak *Ornanseko lurperaketa* eta *Pintorea bere estudioan* obrak, “arte frantseserako biziki kaltegarriak izan zitezkeen joera haiek lehen bait lehen lagatzeko” adierazten ziotelarik, pintoreak berak A. Bruyas bere lagun babesleari idatzi bezala. “Duintasunik eza”, “karikatura fedegabe eta doilorra” izatea leporatu zitzaion; areago, pertsonaien gehiegizko zatartasuna egotzi zioten. Izan ere, hau “ez da jadanik begietarako festa” (Delacroix), Erromantizismoaren lurperaketa baizik. Jakina denez, Courbetek ez zuen etsi bere lanek sortutako gaitzespenaren aurrean, eta zurezko erakuntza bat eginarazi zuen Saloiaren Erakusketa Unibertsaltetik gertuan horrela zioen errotulu batez horniturik: “Errealismoaz. G.Courbet”, non bere lanetarik berrogei erakusten ziren. Horrela hasi zen errealismoa, gerora literaturara iraganen zena. Hau dela eta, Balzacen esaldia gogora dezagun, zeinek esan bait zuen jendea “espainolismoz, Ekialdeaz eta Walter Scotten estiloko frantziar historiaz” nazkaturik zegoela.

Harrigarria da errealista eta antierrealisten arteko polemikak gaur arte bizirik irautea. Nahiz eta, dirudenez, bere Madame Bovaryrengatik Flaubert kondenatu zuten bezalako epailerik ez daukagun gaur egun, zeintzuek —hitzez hitz aldatzen dugu hona— “pertsonaien pinturaren errealismo narratsa eta maiz asko higuinagarria” egotzi zioten. Hor dago, ordea, inmoral eta matxista izatea leporatu zaion Bret Easton Ellisen *American Psycho* nobelak Estatu Batuetan sortutako polemika sutsua. Edo beste adibide bat jartzearen, alda dezagun hona Anjel Lertxundik behin idatzitakoa: “errealitateari masailako bat ematen dionean bakarrik hartzen du bere benetako neurria fikzioak. (...) Aitzitik, fikzioaren beharrik ez dauka errealitatearengainetik ogi-apur miserableak jan nahi dituenak”<sup>10</sup>

Bestalde, orain dela hamabost urteko Wolferi entzunda irudi luke ezen XIX. mendeko errealismoa mugimendu kaskarin eta amoralak izan zela. Egia, ordea, oso bestelakoa da. «Erromantikoaren “l’art pur l’art” delakoaren kontrakoa izanik, bere “egiteko sozialaz” kontzientziatu beharra daukan artearen ideia, itzalgaizka, isilka eta poliki agertzen da 1830etik aurrera, mugimendu erromantikoaren itzalpean edo, baina ezingo da

eskola errealistaz berba egin 1848ko errebolta odoltsuek publikoari eta zenbait artistari bere zentzu osoa ulertarazi diezaieten arte, zeintzuek hortik aurrera ulertuko bait dute maisu handien arte-tradizioak eta garaiko errealitate soziala konbinatzeko ezin berandutuzko momentua iritsia zela»<sup>11</sup>. Izan ere, ez da ahaztu behar Courbet eta bere garaiko artista askoren hizkeran “ideia errealistak dituztenak” delako esaldia “progresista”, “demokrata” eta “sozialista” hitzen sinonimoa zela. Tom Wolferen adierazpen batzuk gorabehera, haren lehen nobela errealista luzea irakurtzean, nabarmen konproba daiteke ez dirudiela axolagabea zenbait injustizia soziali dagokienez. Eskuindar izateaz harrotzen da, baina New Yorkeko zenbait dirudenez trufatzeko modua, zenbait pertsonaia beltz txiro deskribatzean erakusten dien sinpatia ez da oso ondo ezkonzen bere ustezko eskuindartasunaz. Errealismoa ez zen jaio eskuindarra izateko asmoz. Courbetek berak esan zuen behin soilki errealismoa zela demokratikoa, eta pintore batek har zitzakeen eredurik nobleenak laborariak eta langileak zirela. Honek ez du esan nahi errealismo sozialista bere egiten zuenik. Erromantizismoaren kontra erreakzionatzen ari zen soilki.

## ONDORIOREN BAT

Bestalde, bizi diren gizarteaz idazteko interesaturik dau den idazleak kritikatzeko dituztenak oker daude nire ustez. Azken finean istorioak oso antzekoak dira beti, aldakin eta konbinaketa ezberdinez beterik egon arren; horregatik dira xehetasunak hain inportanteak. Baina istorioak beti berberak izan arren, azala da aldatzen dena, gizartearen bizitzeko modua etengabe ari bait da bilakatzen. Beraz ez zait hain asmo eroa iruditzen betiko istorioen azpian kostumbrismo garaikidea eraikitzea.

Badaude, oraindik ere, betiko istorioak (aldatuta edo berri-tuta) gaurko moduan kontu diezaizkietela gustatzen zaien pertsonak, idazleak barne. Maitasunak, lukurreriak, gorrotoak, biolentziak, arrazakeriak, eskala handian edo txikian egindako lapurreta legalak eta ilegalak, naiftasunak, materialismoak,

sexuak, heriotzak, injustizia sozialek, jelosiek... istorio berdinak sortuko dituzte funtsean. Azken ideia hau sarri askotan esan izan da literaturaren historian, baina, ziur aski, Flaubert da ongien azaldu duena: "Tout a été dit avant nous, nous n'avons qu'à redire les mêmes choses, dans une forme plus belle, si c'est possible". "Eta gaurkotuta" esango zukeen Zolak Flauberten haserrerako.

Errealismoa, fantasia, literatura eruditoa, herri-literatura, gutxiengoarentzako nobela, gehiengoarentzako... Niri denak gustatzen zaizkit. Arerioak bailiran mutur joka jar ditzaten da gustatzen ez zaidana. Zergatik bata aldezteak inplikatu behar du, nahitaez, besteaz trufatzea? Biek eman dute oso literatura ona historian zehar. Zergatik orduan elkarren kontra jaritze hori? Beharbada, azkenean, batek publiko zabalagoa nahi duelako eta besteak begiramen handiagoa "literaturaren ministro sakratuengandik".

Eztabaida hau Euskal Herrian ez ezik mundu zabalean ere ari da gertatzen, baina gurean inon baino estuagoak garelako iruditzen zait. Ez dut uste *Ehun metro Ene Jesus* baino txarragoa denik. *Banitateen sua Tasunik gabeko gizona* baino txarragoa ez dela esango banu, literaturaren betiko ministro sakratuek eskuak burura eraman ondoren beren jantziak urratuko lituzkete eta gu asko dibertituko ginateteke espektakulu horren aurrean.

Hain zuzen ere, bai gauza miserablea hau hura baino txarragoa dela esaten ibiltzea. Eta ze alperrikakoa benetako literatura zein den aldarrikatzen aritzea.

1. SAIZARBITORIA, Ramón: "Rafael, ez Sanzio, Ruiz Balerdi eta errealismo gainditua: Mikel Hernández Abaituari maitasunez" in *Jakin*, 69 zk. 1992.
2. ZOLA, Emile: *Du roman, sur Stendhal, Flaubert et les Goncourt*. Editions Complexe, Bruxelles, 1989, 33-34 or.
3. BARNATAN, Marcos Ricardo: in *El Mundo del País Vasco*, 92-1-16. (43 or.).
4. BURGESS, Anthony: "La hoguera de la novela", in *El País- Libros*, 90-2-25, 1-2 or.
5. ZOLA, Emile: *Du roman, sur Stendhal, Flaubert et les Goncourt*, Editions Complexe, Bruxelles, 1989. (121. or.).
6. WOLFE, Tom: *El nuevo periodismo*, Anagrama, Barcelona, 1977, 45-46 or.
7. WOLFE, Tom: op. cit. 58-59. or.
8. WOLFE, Tom: op. cit. 61-62 or.
9. VIZINCZEY, Stephen: *Verdad y mentiras en la literatura*, Seix Barral, Barcelona, 1989, 157. or.
10. LERTXUNDI, Anjel: "Dupont eta Dupont" in *El Mundo del País Vasco*, 20-7-92.
11. BORNAY, Erika: *Historia universal del arte. El siglo XIX*. Planeta, Barcelona, 1986, 259 or.

# GUNEN GURPILEAN

---

RAMON SAIZARBITORIA

ORTOGRAFIAZ

HIZKUNTZALARIAK, HIZKUNTZAREN OSASUNA

TRISTURA ALA MALENKONIA?

ZAHARTZE DEMOGRAFIKOA

JAIEN LITURGIA MIRESGARRIA

JESUS GIL MASSA

BERGARAKO PINTURA ITALIAN

IBARROLA GASTEIZKO KALEETAN

ARTISTAK EUSKAL HERRIKO ADISKIDEEN ELKARTEAN

DONOSTIA (ES)KULTUR HIRIBURUA

INAKI IRAZABALBEITIA

LONDRESEKO ZOOA BIDE GURUTZEAN

NO FUTURE!

BAZATOIXAK...

RIO EZ DA IBAIA

BEGOÑA DEL TESO

UDARAKO ERE, ZINEA

JALGI ZAITEZTE PLAZETARA

MUGI ZAITEZ, HAU MUSIKA DUZU

UNIBERTSITATETIK DATORREN ARTISTA NAIZ NI

ISILIK DAGOENEOZ?

PASTORALA AITZAKI

ZEANURIN FESTA



KULTURA  
ARTEA  
ZIENTZIA  
IKUSKIZUNAK

# KULTURA

---

*RAMON SAIZARBITORIA*

## ORTOGRAFIAZ

Alfontso Irigoienen esanetan kontraesankorra omen da grekerazko hitzen grafiak, euskaraz erabiltzerakoan, karaktere latinoetan jartzea eta arrazoi du ziur asko. Ez da ordea grekera ez dakigunontzat behintzat kontraesan astunegia, eta nahiago genuke hori ere, beste askoren artean, soinean eraman behin gehiago euskarazko ortografia ikasgai amaiezinari ekitea baino.

“Ortografiaz kestione ohartu naiz oraino, gure kide Alphontsa Hirigoyhenek (bere hiru Hekin beste batek bezala) aurrera daramala bere orthographia pertsonalaren guerrilatxo pribatu eta antzua” idatzi du berriz umoretsu Piarres Xarritonek. Antza denez argi dago gure hizkuntzalari batzuek antolatzen dituzten gerrilatxoek grekeraz eta latinez ikasiak direla erakusteko baino ez dutela balio. Bedel izan nintzen garaian ere

egiaztatu nuen soziologiako irakaslerik petralenek ere Comtek zientzia horren izena, zientzia bada, gaizki asmatu zuela esanaz hasten zutela kurtsoa, *sozio* latinetik eta *logia* grekeratik, edo alderantziz, datozelako. Baina kontraesana salatuz, bere n jakinduria erakutsi ondoren, inork ez zuen soziologiaren izena aldatzea merezi zuenik aipatu. Ez bait da bidezkoa errurik zuzentzea zuzenketa bera erruaren kaltea baino garestiago bada.

Badirudi edonork uler dezakeela hori, baina Alfontso Irigoienek lortu dituen proselito lerroak ikusita argi dago epe laburrean telefono esateko —*phoneo*, grekeraz ahotsa egitea— telephono esan beharko duzula urrutizkinaren irteera garbizalea atsegín ez bazaizu. *Konfesio* esateko berriz —*confiteri*; *fateri*; *fari*; hitzegitea, baina latinez kasu honetan— zilegi izango zaizu *konfesio* betikoa erabiltzea edo *aitorpen* bestela, gauza bera ote den oso ziur ez banago ere. Noski, gauzak ez zaizkizu beti hain errazak suertatuko eta, bestalde, premia ere izan dezakezu zerbait esateko. Badakigu premia ez dela ona sinonimorik egokiena bilatzeko, ezta azken boladan Ibon Sarasolak gomendatzen dituen perifrasiak burutzeko ere.

Edozein larritasunek harrapa zaitzake, ez ni orain nagoen bezala grekera eta latinezko hiztegi inguraturik, esku hutsik baizik, *profilaktiko* esateko premian adibidez, Edurnek bere senarrari ez ezik lehen nobioari ere eskatu egiten bait dio, behar den moduan, orri hauetan esateaz aspertuko ez naizen bezala, HIESaren prebentzioak promiskuitatea ez baloratzea eta ziurtzat ematea eskatzen duelako. Gauza da berotasun-momentu batean erabat kaltegarri gerta dakizukeela prophilaktiku ala profilaktiku esateko, *phylato*, gorde, —hiztegiarekin ari naiz noski— grekeratik beraz, edo *filetto*-tik, frenutxo, ote datorren pentsatzen jartzea, erabat deskolokatuko bait zintuzke, eta huts egitera eraman besterik gabe.

Mikel Atxaga, bere lumaz idatziriko guztiak bezala, apaltasunez beteriko artikulua batean zera esatera dator, aipaturiko arazoaren konponketa, hizkuntzari loturiko beste guztiak bezala, grekera eta latina ezagutzen dituzten hizkuntzalariei legokiekeela eta ez bera den bezalako kazetari eta itzultzaile gizarajo bati.

Gehienetan asmatzen badu ere ez du arrazoirik oraingoan *Deia* erostarazten digun kazetariak. Latinez eta grekeraz dakiten asko arriskugarriak dira erabat. Grekera eta latina besterik ez dakitenez edozer gauza aztertzerakoan beroiek latina eta grekeraren ildotik jotzen dute gauzak zerikusirik izango ez badu ere. Adibidez, trena Maltzagan hartzea komeni ote zaigun erabakitzeko beroiek *tráhere*, *tráginare* eta horrela hasiko zaizkizu gaia nondik nora doan ulertzera heldu gabe. Ez dago dudarik *rosa rosa rosam/rosae rosae rosa...* deklinatzen jardun zutenek baino izpiritu zabalagoa dugula, hizkuntz gaietan ere, eskola-denbora Rosa lehengusinaz pentsatzeari eman genionak. □

#### HIZKUNTZALARIAK, HIZKUNTZAREN OSASUNA

Jakina da mediku ugaritasuna ez dagoela zuzenki loturik, ez populazioaren osasunarekin, ezta osasun zerbitzuen egoeritasunarekin ere. Begiratu besterik ez dago zer nolako planta ederra duten suediarrek eta zein leku pribilegiatu dagokien osasun estatistiketan —guk baino pare bat puntu gutiago haurren hilkortasunean adibidez—, proportzioan hemengo partean baino sendagile tituludun gutxiago badituzte ere. Beste arloetan ez dakit gauzak nola funtzionatzen duen. Ez dakit esaterako harremanik ba ote dagoen hizkuntza baten arloan sortzen diren hizkuntzalari ugaritasunaren eta hizkuntza horren osasun mailaren artean.

Jakina da baita ere gaitz iatrogenikoen ikerketak —mediku zaintza beraren eraginez sorturiko gaitzenak alegia— gero eta interes handiago duela, gero eta argiago dagoenez, sarritan ematen zaizkigun tratamenduak berak direla gure gaisotasunen iturri.

Parekidetasuna hizkuntzaren alorrean urrutiegi eraman nahiko ez banu ere —ni behintzat konbentziturik nago gizarte arazoan azterketan natur zientziak erabiltzeko ohitura zabalduaren arriskuaz— begi bistakoa iruditzen zait euskarak dituen gaisotasun ugarien artean, asko, hizkuntzalariek errezetaturiko tratamenduen eragina direla. Ez dakidana da nola bataiatu

дутен, bataiatu badute behintzat, beren eragina —genia delakoa— adierazteko erabili beharko nukeen hitza.

Hizkuntzalari asko dago hemen, etimologilari asko batez ere, eta badirudi genetikoki dakargun sena dela, jendeak ez bait du ikasketa berezien beharrik, azken finean ezta euskara jakin beharrik ere edonork, hitz hermetikoenaren aurrean, “viene de casa situada en lo alto del monte bajo la higuera” bere jatorria eta nondik norakoak jakinerazteko.

Aresti bera ere zizipazadun esnatu zen goiz batean —esaten nion nik Calisayk, eta Benedictinek berdin, gozoegiak zirenez mihia loditzen zutela— harrapatzen zuen guztia “C”kin idazten jarri zitzaigun, baina guk zentsuratu egin genuen, orduan leninistak ginenez, problemarik gabe, problema moralik gabe esan nahi dut, zentsurtatu bait genezakeen.

Arestik, jakina, ortografia izorratzerakoan ez zuen helburu linguistikorik, ume bihurriek beren bihurrikeriekin erakutsi ohi duten atentzioa deitu beharra baizik eta bere gorputz surrealistari gustoa eman nahia, surrealista samarra bait zen gizona, Alfontso Irigoien bezala bestalde.

Okerrena da hizkuntzalariek, seriotan hartzen dituzten jarraitzaileak inguratzen zaizkienean, eskola osatzea lortzen dutenean, orduan noraezean gabiltzanok ez bait dugu jakiten zein litzatekeen aukera desberdinen artean legokigukeena.

Beldur naiz gainera hemendik aurrera gauzak ez ote diren gehiago okertuko. Mitxelenaren garaian hitzik ateratzen ausartzen ez ziren guztiak —jeinu ona zuen ba gizonak!— oilo lokak bezala jartzen bazaizkigu, hasiera batean, apenas lutoa gordetzeko adina denboran, bai bait zirudien Ibon Sarasola hornituko zela oilarraren gandorraz, baina ez dakit nik ez ote zaion oilategia nahasten ari.

Nik aintzina Ibon bera izaten nuen aholkulari. Idazten nuen zalanza franko izaten nituen eta berari galdetzen nion, umetan hermano Basiliori ohi nionez. Batean hala batetan? Eta hark bezala zaflada bat eman orde batetan Txillardegiren asmakizun burugabea zela erantzuten zidan eta horrela. Geroztik ordea Bartzelonara aldegin zidanetik, hain kualifikatua ez izan arren, Etxezarre t a rkin moldatzen naiz, duda-mudak *telefono/telephono*z konpontzea ez bait zitzaidan sos baten truke ateratzen.

Bazen, eta bada noski, adiskide ilustratuz hain ongi ez hor-nitu auzat zalantzak argitzeko beste modurik, amari galdetu —nola esaten dezu tristura hala malenkonia?— eta alderantzizko aukera egitea adibidez. Garai batean behintzat, orain, hori ere aldatu egin da.

Ibonek esan duenez ez omen dago tximua jazten ibili beharrik, hitzak, bere horretan, beti izan diren bezala uztea komeni zaigula, tristura beraz eta hitzik ez dagoenean perifrasiaren bidea dela egokiena. Neri ondo deritzait, gauza hauetan, Mikel Atxaga bezala, aginduak betetzeko bait nago, baina aitortu beharko dit Ibonek makina bat tximu jantzitakoa dela bera ere, eta ez setaz prezisamente, orain esango litzatekeen bezala. □

#### TRISTURA ALA MALENKONIA?

Bestela zen jendea euskara kaleratzeko egin ahalean zebilen denboran. “Ze txukun eta dotore, ez du euskara ematen” izaten zen garai batean hizlariak jaso zezakeen laudoriorik hoberena, eta ezin espero zenezakeen arrakasta berdina lortzerik neska bati triste zeundela edo malenkoniatsu sentitzen zinela esaten bazenion. Angustia esistentzialaren garaiaz ari naiz noski. Garai hartan Haranburu Altunak dozenaka folio bete zituzkeen malenkonia hitza aipatzeko helburu hutsarekin. Tristura setaz beztitzeko, esango zukeen berak.

Begi-bistakoa da orain gauzak aldatu egin direla. Inaxio eta Kontxesi ari zaizkie Sorkunde eta Enekeri abantaila hartzen eta, baserriko euskara gaztelerazko esaldi gaizki pronuntziatutakoaz zipriztindua dago modan. Horregatik behar bada ez zaizkigu nere kintakooi horren irrigarri/nardargarriak iruditzen jada, inflexio puntuen paisaia begipean dugulako noski, Mugicaren soluzioak —*megalocéfalo/buruauñdi*—, konplexuak gainditu ditugulako ere bai, eta konturatu garelako gaztelera eta frantsesa hornitzen dituzten edergailu askoren faltotasunaz.

Arrazoi du Ibonek munduko bi hizkuntza kurtsienen artean kokatzeko zorte txarra izan dugula dioenean, eta Koldo Izagirrek ere bai, katalanei nola galegoei baliagarri zaizkien prokotsul erromatarraren soluzioak ez zaizkigula egokitzen esa-

terakoan. Beraz amari galdetu beharrean gaude berriro ere, baina kaso egiteko oraingoan.

Ez legoke gaizki Peggyri ere galdetzea. Peggyk azala garbitzen erabilitako pepino-xerrak sartzen ditu sandwichetan, badu ingelesek ohi duten zentzu praktiko hori, euskaldunok *goitibera* bataiatzeko —izen borobil zehatz adierazgarria— gai izan gineanean bagenuena eta geroztik galdua, ez bait gara gauza, itxura denez, *parkin* esateko, Iboni *aparkaleku* baino aproposagoa iruditu lekiokoen izenik asmatzeko.

Konfidantza handia ematen dit neri nola bihotzerrea adierazteko hitz berdina erabiltzen duten, *heartburn* alegia, horrekin adierazten bait du, noizbait, problema berdinak era berdinean diagnostikatu ditugula, eta beraz, zaindu egin beharko genuke ematen dieten tratamendua ere. Peggyk dioenez sandwichen bihotzerrearengatik gauzarik hobereana —esan bezala *heartburn* esaten du berak— baso-esnea edatea omen da, baina ez dakit nik hobe ez ote litzatekeen sandwichetan pepinorik sartuko ez balu edo xerrak aurpegian jarriko ez balitu behintzat.

Hizkuntzalariek ere hobe lukete beren buruak nabarmentzeko desio ulergarria tiranteak edo pajarita erabiliaz aseko balute, eta ez hitzen ortografia aldatzeko eginahaletan. Jai dute nerekin, inola ere ez bait nago honen edo haren esanak jarraitu ezinik ibiltzeko asmoz. Ni Euskaltzaindiaren esanetara. Orain badakit, adibidez, *Euskera* aldizkariaren separata bitartez jakin dut, erlijio-jaiak eta sainduen izenak letra larrietan idazten direla eta ondo derizkiot.

Dena den ez dakizkidala horiek ere aldaketa gehiegirekin etorri, eta hobe beraien *Euskera* aldizkariaren izena bere horretan gordetzeko izan duten errespetoa eta begiramena gu guztionak diren hitzekin erakutsiko balute.

Izan ere, hitz batzuek, akats ortografiko eta guzti errespetatzea merezi bait dute, zoritxarrez, ortografia besterik ez dakienak, edo ortografikoa baino balio errespetagarriagorik onartzen ez duenak, ezin uler badezake ere. Ez zuen ulertu aberriaren izena aldatu zigunak, gehiago miretsi bait zuen etimologiaren ese zuzena —etimologia: *cheval equus equus*-etik datorrela frogatzeko balio duen zientzia, esan zuen frantsesen batek— igarobide/pasaportearen tapan, nortasunaz harro, gurea izan den diru bakarrean pobre baina hondratu, Paris

hartu zuen tankean libre, fusilen aurrean aldarrikatu zuten herritarren eztarrietan heroikoa bilakatu zen zeta disortografikoa baino. Latina eta grekera baino ez dakien panda horrek, ordea, ez dit neri koma bat gehiago aldatuko. Zin dagiet.□

## ZAHARTZE DEMOGRAFIKOA

Egunkarian gazte baten gutuna irakurtzen dut —egitera-koan, masusta mermelada-tanta bat transaminasaz gainezka legokeen zahar baten odola bezain beltza jausi zait paperera— jubilatuek bidaiatzeko erakunde publikoetatik gazteek ez dituzten laguntzak jasotzen dituztela salatuz.

Soziologoen oharterazi digute frantsesek *ageisme*, britainiar eta amerikanoek *agism*, eta guk ez dakit nola esan diezaiokegun fenomenoaz. *Sterotyping and generalizing about people because of their age*. Zaharrei buruz aurreiritziak izatea beraz, *commonly, a form of discrimination against the elderly*. Zaharrak diskriminatzeke joera.

Izenik baduena esistitzen dela dio tradizioak, baina ez du esaten izenik ez duena esistitzen ez denik. Zaharrei ematen diegun tratuz iritzi ezin hobea dugularik ere —zeinen ongi sentitzen garen edadetuei, badaezpada ere ahotsa altxatuz, eta ez badira ere aitona-amonak bezala kalifikatuz, bizkor dau dela esaten diegunean, haur kakanarruenari zenbat haunditu den esaten diogun bezala. Ez dut ikusten zoritxarrez soziologoen hor zehar egiaztatzen dutenaren salbuespena garelako sines-teko baldintzarik.

Azken boladan era guztietako media espezializatu eta orokorretan eztabaida franko ikusi, entzun eta irakurri ahal izan da gizartearen zahartze edo zahartze demografikoaren izenez ezaguterazi diguten gaiari buruz. Normalki ingurugiroaren kutsadura edo arrisku atomikoaren mailan, ezbehar ikaragarria bezala azaltzen diguten fenomeno hori, badirudi inplizitoki, sublimalki litzateke hitza, agian bizinahi neurrigabe eta berekoiaz beren egunak jubilatuetxeetan dantzari, eta dohaineko txartelez bidaia luzatzeko axolagabekeria duten zaharrei leporatzen zaiela.

Badirudi luze baino lehen jendeak, bizirik iraun ahal izateko haurtxoak jaten dituzten agure zahar gaizto eta atso itsusien ipuinak kontatuko dizkiela umei seaskan, berriro ere *Kronos*-en mitoa, ume jaio berriak irensten zituena, —ez *kronos* denboraren Alfontso ongi dakien bezala— subkonszientetik berreskuratzuz.

Zaharrak ez dira noski zahartze demografikoaren errudunak, eta are gehiago, berez ezin esan dezakegu gure gizartea zahar gehiegi dituelako denik zaharra, osagarriak diren bi faktorek determinatzen bait dute kondizio hori.

Bada piramide demografikoaren oinarrikoa esaten zaion zahartzea, hamabost urtetik beherako populazioak biztanlego osoan arabera duen proportzioak neurtzen duena, eta zahartze goikoa, hirurogeitabost urtetik gorako populazioak biztanlego osoarekin konparatuz adierazten duena. Bi adierazpenen konbinaketak eta bi ikuspegietatik egiten ditu zahar Suedia, Alemania, Suiza edo Luxenburgoko populazioak —%15etik gora, 65 urte baino gehiagoko populazioa; %20 inguru, 15 urtetik beherakoa— eta beste muturrean, Albania adibide, herri oso gaztea goian —%40, 15 urtetik beherakoak— eta erabat oso gaztea behean litzatekeelarik —65 urtetik gorakoak berriz %5 besterik ez—. Bitartean era guztietako konbinaketak. Espainia adibidez, Europako testuinguruan bi alderdietatik gutxi zahartua eta alderantziz Frantzia, bi alderdietan zahartua. Euskal Elkarte Autonomoa berriz, bere populazioan 65 urtetik gorakoak %10,27 direlarik eta %21,60 baino ez 15 urtetik beherakoak, esan daiteke gutxi zahartua dela goian eta zahartua behean edo, beste hitz batzuetan, gure bizilagunen artean ez dagoela zaharrik soberan, baizik eta gazteak falta direla.

Hori da gure problema, birsorkuntze-tasaren urritasuna, Europa osoko txikiena, populazioa berritzeko behar genukeena baino eskasagoa. Azken urteotan ez gara umeak egiteko gauza, umeak egiteko garai biologikoan daudenek ez dituztela besteak beste horretarako subjektiboki beharko litzateketen baldintza sozial eta ekonomikoak aurkitzen esan nahi dut.

Zahartze demografikoa ez da beraz zaharren errua, izatekotan ere gazte eta helduena da edo, hobe esan, umeak egitea



eragozten dieten zirkustantziena. Zirkustantzia horien biktima gara guztiok eta zaharrei erakunde publikoak finantziaturiko bidaietan parte hartzea tokatu bazaie zirkustantzia horien aginduz izan da noski. Krisian dagoen ostalaritza-saileko enpresariak, langabezia denboralditxo baterako abandonatzen duten kamareroak, komisioak kobratzen dituzten antolatzaileak, beste denboralditxo baterako zaharretaz libratzen diren gazteagoak, gehiago edo gutxiago, guztiontzat dira bidaiak irabazbide. Eta gutun petral hori idatzi duen gazte ez solidarioak ez uste arren, justizia eskatzen dien politikoentzat dira onuragarri batez ere. Edelmanek esaten duen bezala -*The symbolic uses of politics*- politika sozialak, azken finean, irabazi sinbolikoak ematen bait dizkie usadioei eta errealak berriz antolatu eta aplikatzen dituztenei. □

#### JAIEN LITURGIA MIRESGARRIA

Sinbolikoaz ari garenez, gure herrietako jaien zentzua era bat galdua zegoela uste nuen, ez ziotela ezeri erantzuten, betekinik gabeko liturgia hutsa zirela. Zein da ihauteriaren zentzua? Galdetzen nion neure buru handi eta inuzenteari, garizumak eskatzen duen tenperantzarekin oreka beharrezkoa aurkitzea ez bada.

Aitortu behar dut ez nuela deus ulertzen. Claude Rivièrek erritu profanoei dedikaturiko azken *Cahiers internationaux de sociologie*-n ongi esplikatzen du zenbateraino gauden elizaren monopolio erabatekoaren eraginaren menpe, oraindik, fenomeno horien aurrean, nereak bezalako galdera ximpleei eusten diegunok.

Azterketa fina merezi dute dudarik gabe perfekzioaren bidean erritual gero eta adierazgarriagoa, aberatsagoa, osatzen ari diren gure herrietako festa gureak. Nafarroako hiriburuan bi gaztek egin dute beren bizien eskaintza aurten, ez antzinako liturgia zaharkituan bezala zezenen adarren puntan, baizik eta Udal Garbiketa Zerbitzuen makina baten gurpilpean lehenak, eta —ezin sinbologia aberatsagorik aurkitu— bere goitikinetan itoa bigarrenak.

Gasteizen, hiriburuetakoz arduratzen da batez ere prentsa, arrakasta ikaragarria izan omen du “el día del gorrino” edo izendaturiko egunak, zeinetan jendea elkar zikinduz dibertitzen da, eta kultur zinegotziaren gomendioa zera izan da, ohizko abarketen orde, oinetako sendoak erabiltzea txanpain botailen kristal hautsiekin horrenbeste zauritutako gerta ez dadin.

Donostiako Aste Nagusia, badakigu ez dela hain gurea, merkatarien asmakizuna, azken finean, eta gainera donostiarrak ez gara parte hartzaileak. Ahaleginik ez da falta ordea eta duela urte batzuetako emankizunik lortu ez bada —oroitu izan direla hildakoak— aurtengo polbora erretzearen errituak ere badaramatza hiru edo lau zauritutako honez gero. Dakitenek diotenez, giro hobea izaten omen da Bilbon. Esango dizuet.□

## ARTEA

---

JESUS GIL MASSA

### BERGARAKO PINTURA ITALIAN

Badira herri batzuk, lekurik egokienera jo eta gero, kontutan hartzeko ondare artistiko bat eraiki egin dutenak, eta ekoizle baino gehiago kontsumitzaile izan arren, une jakin batean beren ohizko joerari buelta ere eman diotenak. Hala-koxea dugu Bergara, non —Arkitektura ez bezala, Aintzinako Erregimenaren mendeetan garapen haundia izan zuen eta— pintura ez bait da inoiz iharduera garrantzitsua izan. Gure mende hau iritsi arte ez, bederen. Bergarako artistarik ezagunena J. de Tellaetxe izan badaiteke ere (+1957), benetako eskola sortu zuena, ordea, Simón Arrieta da (+1969), honek ezohizko iharduera piktorikoa eragin bait zuen herrian; pintore franko agertu ziren orduan, ez eskola bezala eratuak hitzaren zentzurik hertsienean, baina bai beren burua Bergarako pintoretzat gogoz jotzeko behar bezain elkartuak.

Orain, Ortonovo herria (Karraratik gertu) eta Deba Garaiko herriak senidetu dituen elkartze kultural bitxi horren kariaz,

hogei pintore bergarar baino gehiagok Italian jarri dute ikusgai beren obra. Erakusketak belaunaldi desberdinetako lanak jasotzen ditu, hasi Simón Arrietaren garaikideengandik gazteenenganaino, eta joerarik ezberdinenak ere mirets daitezke bertan, hala pintura tradizional zainduaren adibideak (Okina edo Leturiaren lanak, kasu), nola Alberdi, Iza, Azkargorta edo De Pedro bezalako artisten joera berriak, hainbat pintorek optika desberdinetatik aurkezten dituzten paisaia goxoak ahaztu gabe, M<sup>a</sup> Paz Alustiza (taldeko emakume bakarra), Arrillaga, Lazpiur edo Juaristi bertan direlarik.

Pintura inportatzaile izatetik esportatzaile izatera pasa da Bergara. Legezkoa litzateke zer dela eta aldaketa hori nork bere buruari galdetzea, baina gertatu ohi den bezala, eta hurbilpen bat edo alderdi eragileak salbu, ez genuke erantzun zehatzik aurkituko. Eragile horien artean, Simón Arrietak ardatz bultzatzaile gisa burutu duen lana eta Bergarako pintoreek azaldu duten borondate artistikoa alde batera utziz gero, bat azpimarratu beharko litzateke bereziki: Bergarako herriak bere artistei une orotan eskaini egin dien laguntza, eta are garrantzitsuagoa, laguntza hori erakundeetatik luzatua izana; Bergararen kasuan, duela urte askotatik bihurtu da Udala artegintzaren sustatzaile, eta ez ohizko mezenazgo horren emaitza Italian dugu gaurregun. Ea balio digun horrek eredu gisa. □

#### IBARROLA GASTEIZKO KALEETAN

Badira beste zenbait udal sorkuntza artistikoaz kezkatu-rik, herri edo hiria osagai artistikoren batez hornitu dutenak habitagarriagoak egin nahian. Gasteiz adibide garbia dugu zentzu horretan. Urte dexente dira hiri honetako kaleak eskultur lan ugariz jazten ari direla hiri-espazioa aldatzen, arautzen eta ederreztatzen, eta aldi berean, artea —kultur adierazpenik jatorrena izanik— berezko jabeei hurbiltzen. Esan dezagun, horri lotuta, Gasteizko herri-eskultura garaikidearen bilduma aberastua izan dela arestian Agustin Ibarrolaren bi lanekin.

Esandako hori azpimarratzekoa da berez, baina ez dakar inongo berritasunik, eskultura publikoak hiri askotan kokatu

bait dira, baita egile berberaren eskultur lanak ere; kasu hau, dena den, berezia gertatzen zaigu, eta horren arrazoia Gasteizen kokaturik dauden lanetarik bat bizkaitar eskultorearen harrizko lehen obra izatean datza.

Burdina eta egurra lantzen denboraldi luze bat eman eta gero, Ibarrolak harriari heltzea erabaki du. Xabier Laka eta Javier Cruz eskultoreak lagun izan dituela —ez bait du, berak aitortu duenez, harri-tailaketaren teknika menperatzen— tamaina haundiko obra bat burutu du Lasturreko marmol grisean, “Begirada” izena emanaz. Zulatua agertzen den monolito honek, hiriaren ikuspegi berria eskainiko du hemendik aurrera, hauxe bait da, izan ere, Ibarrola biziki bila dabilena, hots, artea, bere artea, jendeari hurbileraztea, paisaiarekin bat egin eta parte izatea eguneroko bizimoduan. Ibarrolaren obra hau hiriaren zati aberasgarri izateaz gain, orekatu eta osatu egiten du berrogeitamar bat metrotara kokatzen den eta burdinez landuta dagoen bere beste lan bat, “Elkarren ondoan” izenekoa hain zuzen.

Gizakiak begira egiteko daukan premia biziarekin jolasten du artistak “Begirada”n; obraren, monolitoaren, garrantzia zuloak hartzen du; bertatik hiriaren zati bat berriro ikusten du hiritarrak, alde batetik eta bestetik berraurkitzen du hiria, eskultura hau hiri-espazioan zedarrri berri eta aktibo bat bihurtzen dela konturatu gabe ia.

Gasteizko Udalaren kezka neurri batean dator bat egilearen kezkarekin: haientzat hiria aberastu behar da, eta honentzat, berriz, espazioa jantzi, zeren eta —berak esan bezala (D.V. 92-VI-19)— “Bizi kalitatearen oinarria artean eta kulturaren dago”.

Mezua, aspaldikoa honez gero, ulertu egin da azkenik. Horixe dugu nola “Europistas” enpresak eskultur lehiaketa bat antolatu duen Bilbo-Beobia autopistaren mugak “mobleztatzeko”, Europako beste hainbat autopistatan egin den bezalaxe. Lehiaketa Oier Villar eskultore gazteak eskuratu du “Badugu zer ikusi” izenpean korronte minimalistaren barruan sartzen den proiektua dela medio —izenburua enblematikoa ia—. Egin dezagun otoitz proiektua luzamendutan gehiegi atzera ez dadin —ohizkoa erakunde eta enpresetan— eta hemendik lasterre a a gure espazioak tarte berri bat mobleztatua izan dezan. □

## ARTISTAK EUSKAL HERRIKO ADISKIDEEN ELKARTEAN

Nahiz eta jada bere jaiotzatik, 1756. urtean, Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak berebiziko garrantzia eman zien arte plastikoei, erakunde honek jasan duen fosilizazio prozesuak, gero eta akademizaleagoak, murriztu egin du apurka apurka artisten sarrera. 1992. urtea, ordea, okerrak zuzentzeko urtea izan da; Eduardo Txillidaren sarreraz gain bi eskultore eta pintore bat egin dira elkarkide uda honetan: Nestor Basterretxea, Rikargo Ugarte eta Frantzisko Sagarzazu.

Sarrera hitzaldirako “hizketaldi” plastiko bat aukeratu zuten, Donostiako San Telmo Museoan ospaturiko erakusketa hirukoitzan gauzatu egin dena gero; arauak, hala ere, arau dira eta tradizioak tradizio, eta “ahozko hitzaldia” egiteari ezin ukorik egin. Rikardo Ugartek hartu zuen, hiruren izenean, azalpena egiteko ardura; han hemenkako pusketaz eraikita, bere hitzetan esanda, eta aipamen historiko ugariz hornitua, artistak gaurko gizartean jokatu behar duen paperaz mintzatu zen Ugarte.

Sarrera hirukoitz hori aprobetxatuz, Euskal Herriko Adiskideen Elkarteak bi ekitaldi antolatu ditu arestian: alde batetik, erakusketa batez ere dokumental bat, “Artea eta Euskal Herriko Adiskideak” gaia hartu zuena, eta bestetik, hitzaldi sorta bat “Arte Ederrak Euskal Herriko Adiskideen Elkartean” izenburupean. Badirudi 1992ko urte honetan garai berria hasi dela Elkartearentzat Arte Ederretako munduarekiko harremanetan, eta halako indarrez gainera non hitzaldi sortari amaiera ematen zion mahai inguruan fundazio bat sortzeko posibilitatea planteatu bait zen.□

## DONOSTIA, (ES)KULTUR HIRIBURUA

Euskal eskultorerik unibertsalenak aukera izan du, azkenik, bere obra bere hirian erakusteko, Donostia, uda partean eta aldi labur batez bada ere, munduko eskultur hiriburu bihurtu duelarik. Gijonen lehenik eta Bilbon gero egin diren erakusketa antologikoen ostean, Eduardo Txillidaren obra Donostiako Miramar Jauregian dago ikusgai. Erakusketaren komisarioa den Kosme Barañanok adierazi duen bezala, erakutsi-

tako 330 obrek (eskultorikoak eta grafikoak) egileari eskaini zaion atzerabegirako erakusketarik osoena eta garrantzitsuena eratu dute.

Miramar Jauregiak Txillidaren traiektoria artistiko osoa jasotzen du: gazte garaian egindako marrazkietatik abiatuta, bere obrarik berrienak ikus ditzakegu, baita burdinez buruturiko lan haundiak ere, hala nola, “Basoa” edo “Lucca Pacioli irinmahaia”, edo-ta obra arinagoak, “Grabitazioak” kasu, momumento publikoetarako proiektuak edota oso gutxitan erakutsia izan den “Barneko Txillida” (dominak, marrazkiak, eta abar, denak famili gauzekin lotuak) ahaztu gabe, bertan dauden lanetarik asko egilearen bildumakoak dira eta. Beste batzuk Europako herrialde desberdinetatik iritsi dira (Alemania, Suiza, Frantziatik,...), arazo tekniko, ekonomiko eta kronologijoak direla eta zenbait makroeskultura Estatu Batuetatik ekartzea ezinezkoa gertatu delarik.

Topikoa eman badezake ere, erakusketarako aukeratu den lekua ezin hobea da; burdinez eginiko obra haundiak, jauregiaren lorategietan sakabanatuak, paisaiarekin uztartzen dira; X. Saenz de Gorbeak zioen bezala, “Txillida lehian dabil naturarekin, eta irabazten du”. Formato txikiagoko obrei eta marrazki zein grabatuei eman zaien kokapena bestelakoa izan da ordea; barnekaldean eskainitako espazio urriak, Joaquín Montero arkitektoak altxaturiko poliestilenoazko harresia eta guzti, obrak pilatuta izatearen itxura eragiten zuen; Txillidak gehiago merezi zuen.

Gisa honetako ekitaldi batean antolakuntza eta muntaketa akatsak beti aurki badaitezke ere —barnekaldean Txillidari emandako espazio eskasa, esaterako—, erakusketa egitea lorpen haundia da berez. Eta lorpen hau bere sustatzaile izan diren guztiei zor diegu —Donostiako Udalari, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari—, hain denbora gutxian antolatzea lortu duenari —Kosme Barañanori— eta, nola ez, baita artistari berari ere, erakusketa bat bere hirian egiteko ametsa beteta ikusi bait du azkenik.

Txillida, dudarik gabe, profeta izan da bere herrian, bere eskultur lanak kalean egotea horren froga nabaria da, baina erakusketa honekin guztiz merezia zuen onespena eman zaio azkenik. Odon Elorza Alkateak “donostiarrik unibertsalena

izateagatik” eskultoreari hiriko urrezko domina ematea proposatu du. Azken bultzadatxoa baino ez da falta orain, alegia, erakundeetatik behar den laguntza eskaintzea Eduardo Txillidak eta Pilar Belzuncek “Txillida Fundazio” bat eta museo monografikoa Hernaniko bere Zabalaga baserrian sortzeko agertu duten proiektua egi bihur dadin. Baina amets hau ez da Txillida familiarena soilik, Donostiak ere, kultur mailan hiriarri ekarriko liokeen aberastasunaz jabeturik, bat egin du amets horrekin; eta hau ez omen da bideraezina, Ardanda Lehendakariak ere bere nahia azaldu bait du proiektua aurrera eman dadin (DV, 92-VI-30), oztopo bakarra eskultorea eta erakundeen arteko kolaborazioa lortzeko behar den formula juridikoa aurkitzea dela adieraziz.

Aldi labur batez —uda batez— Donostiak “kultur hiriburu” izatearen rol antsiatua eskuratu du, zeren Txillidaren eskultur erakusketa, Sorolla-ren pintura, Boubaten agazkiak, eta abarrez gain, hortxe izan bait dira ohi bezala Jazzaldia eta Musika Hamabostaldia, etortzear diren Zinemaldia eta Zume-ta-ren antologikoa ahaztu gabe. Aurtengo hau puntako udaldia izan da, hemendik hasieratzat, ez parentesitzat, hartzen duguna. □

Euskaratzailea:  
JUAN MARI BECERRA

## ZIENTZIA

INAKI IRAZABALBEITIA

### LONDRESEKO ZOOA BIDE GURUTZEAN

Londresko bihotzean, Reagent’s Park-en mutur batean lekutzen da Londresko zoo ospetsu eta famatua, urtean zehar milioika bisitariri mundu osoko animalia erakusgai jartzen diena. Egia aitortu behar badut, Londreseratzen naizenetan, Ingalaterrako hiriburu zoragarrian egun batzuk igarotzeko parada dudanean hain justu, Reagent’s Park oinez zeharkatu eta zooraino hurbiltzeko aukera ez dut galtzen eta, bertan,

ordu atsegin batzuk pasatzen ditut munduko faunaren ager-  
gai haren artean. Horrexegatik, ene barnearen zati bat hil egi-  
ten zela sentitu nuen ekainaren erdialdean, Londresko Zoologi  
Elkarteak irailetik aurrera zooa itxi egingo zuela iragarri zue-  
nean. Arazo ekonomikoak ziren kausa.

Gauza jakina zen Londresko zooak arazo ekonomikoak izan  
dituela azken urte hauetan. Izan ere, gaizki bideratutako ges-  
tio ekonomikoak kinka larrian jarri du zooaren etorkizuna.  
1988an britainiar gobernuak bideragarritasun komertziala  
bermatzeko emandako £10 milioi airean xahutu ditu kudeaketa  
txar eta ganorabakoak. Sarrera-txartelen salneurri altuegiak  
esaterako, uxatu egin ditu zooaren bisitari fideletako batzuk,  
haurrak alegia. Bisitarien kopuruak beherantz egin du eta  
1955ean 2.000.000 lagunek bisitatu bazuten, 1991n 1.000.000  
baino ez ziren izan. Bestetik, 1988an lortutako akordioaren  
arabera, Zoologi Elkartek ez dauka gobernuarengana diru  
gehiagoren bila jotzerik. Hala eta guztiz ere, Londresko zooa  
bezalako erakunde ospetsu eta urtetsuaren (1826an zabaldu  
zen) iraupenari leihoak ixtea (horixe egingo luke gobernuak  
1988ko akordioaren hitzari letraz letra eutsita) oso erabaki  
larri eta arriskutsua dirudit. Kontaezinak dira zoologiari, ani-  
malien jokamoldeen ezagutzari, arriskuan egondako espezieen  
iraupenari eta, oro har, gure ondare kulturalari (Arabiako ori-  
xaren berreskurapena, esaterako) Londresko zooak eginiko  
ekarpen paregabeak.

Nahiz eta zooaren gaurko egoeraren erantzule nagusia eta  
bakarra zooaren kudeaketa-estafa eta ez beste inor dela jakin,  
guztiz neurritz kanpokoak ikusiko nuke erakunde publikoek  
zooa hiltzen uztea. Nere aburuz, erakunde publiko britainiarrek  
lehen-lehenik, eta europarrek bigarrenik (Londresko zooa euro-  
par guztion ondareztat jotzen bait dut) zooa salbatzeko neurriak  
hartu eta bideak jarri beharko lituzkete. Negargarria irudituko  
litzaidake lau urteko kudeaketa kaxkarrak 170 urteko lan  
bikaina ahantz araz dezan.

Horrelako baieztapenak egiten ditudanez, garbi duke ira-  
kurleak zoon aldekoa naizela. Arrazoiak? Hori beste ezta-  
baida bat da eta etorkizunean, hala suertatzen bada, plazara-  
tuko ditut.



Bukatzeke, Londreseko zooari esperantzarako zirrikitu bat zabaldu zaiola azpimarratu nahi dut; alde batetik, itxiera-iragarpenetik aurrera bisitarien kopuruak ikusgarri gora egin duelako eta bestetik Kuwaiteko emirrak £1 milioiko donazioa agindu diolako. Alabaina, ezer zehatzik jakiteko uztailaren 13an Zoologi Elkarteak egingo duen bileraren zain egon beharko dugu.

*Oharra:* Bilera horrek gauzak argitu eta konpondu ez eta ilundu eta nahasi egin ditu. Izan ere, Zoologi Elkarteko kideek eginiko bozketan Zuzendaritza-Batzordearen dimisioa eskatzen zuen jarrerak aisa irabazi du. Batzordekideek, ordea, batek ezik, ez diote jaramonik egin eta ez dute postua laga gura. Batzordeak, bileran egon ez ziren kideen artean laguntza aurkitu nahi du eta Elkarteko 2.000 kideen artean postazko bozketak egin nahi du uztailako bileran erabakitakoa pilaz goiti bidaltzeko asmotan. Aferak kulebroi hegoamerikarra dirudi!!□

NO FUTURE!

Etorkizunik ez! Horixe da bederen Aberdeengo unibertsitateko fisika sailari, garai bateko Filosofia Naturaleko sailari alegia, gertatzen zaiona, aurtengo urte akademikoaren amaierarekin ia 500 urteko historiari bukaera emango bait zaio. Ondoeza sortzen dute horrelako berriek. Are gehiago Aberdeengo unibertsitateak fisika-alorrean *pedigree*-a baduela ohartzen garenean, Nobel sari bat eta guzti! (George Thomson 1937an).

Aberdeengo unibertsitatea 1494.ean jaio zen King's College sortu zenean. Garai hartan, fisikako ikasketak *curriculum*-ean sakabanatuta zeuden eta ez ziren XVIII. menderarte ikasgai konkretu bilakatu. Filosofia esperimentalak esan zitzaion.

Mende horretan bertan gailurretako bat lortu zuen Aberdeengo unibertsitateko fisikak Patrick Copland-en fisika esperimentalezko klaseekin, bera izan bait zen zientzia esperimentuen bidez azaltzen aitzindari.

XIX. mendeko fisikaririk handiena, James Clerk Maxwell hain zuzen ere, bertan aritu zen 29 urte izan arte, baina elek-

tromagnetismoaren ekuazio ezagunak beste nonbait eman zituen. XX. mendea George Thomson-en, elektroiauren aurkitzailea izan zen J.J. Thomson-en semearen, itzalpean igaro da. Gainera, 1960ko hamarkadan bultzada handia izan zuen fisika-sailak laborategi eta adar berriak zabaltzeko. Eta azkenik, ia 500 urteko garra amatatu egingo dute.

Aberdeengo unibertsitateak hartutako erabaki horren arrazoiak eta oinarriak ez ditut ezagutzen eta pisuzkoak izan daitezkeela ez dut, beste daturik barik, zalantzan jartzen. Alabaina, min ematen dit bost mendetako historia harriska botatzekoak. □

#### BAZATOIXAK...

Hauek dira datuak:

- Martitz eta Jupiter arteko orbitan milioika asteroide daude.
- Horietako batzuk Lurraren orbita zeharkatzen dute.
- Asteroide batzuk Lurra jotzen dute.
- 10 eta 100 m bitartekoak atmosferan erretzen dira eta ondorio kaltegarriak ez dute eragiten normalean.
- 100 m baino handiago diren gorputzek 5.000 urtetik behin jotzen dute Lurra.

- 1 km baino handiago 300.000 urtetik behin etortzen dira eta talka zibilizazioa suntsitzeko adinakoa izan daiteke.

- 5 km inguruko objektuek milioi urtetik behin jotzen gaituzte eta bizidunen masa-iraungipena ekartzen dute.

- Animalia eta landare zelulanitzen iraungipenaren %60 asteroide-inpaktuari zor omen zaio.

Eta hauxe da EEBBetan zenbait zientzilarik egiten duten proposamena:

- 2 edo 3 m-ko irekidurako sei teleskopioz osatutako jago-terre-antolatzea asteroide eta kometa arriskutsuak detektatzeko. Hasierako inbertsioa \$50 milioikoa izango litzateke eta urteko mantenimendu-kostua \$10 milioikoa.

- Espazio-gorputz arriskutsua detektatuz gero, bera Lurraren orbitatik urruntzeko edo espazioan suntsitzeko bideak aztertu eta garatzea. Buru nuklearrez hornitutako 1.200 misiletako armada proposatzen da.

Ondorioak:

- Barne-etsaia deuseztatua gertatu ostean langabeziaz beldur edo, kanpo-arterioaren bila hasi dira, antza, arma nuklearraren industria eta ikerlariak.

- Nork babestuko gaitu, gu babesteko omen diren 1.200 misil nuklearraren aurka?

- Nork bermatzen du misil-saldo horrek asteroidearen arriskua deuseztuko duenik? 25 km/s-ko abiaduraz dabilen mendibaten tamainako objektu baten energia zinetikoa berealdikoa, neurritzanpokoak, da. Egizu kalkulua:  $E = 1/2 m v^2$ .

- Zenbat animalia eta landare-espezie ari dira desagertzen gizakiaren zarrastalkeria basatiaren ondorioz?

- Ez egidazue adarrik jo!

- Abrarakursix-ek bezala, zerua gure buruen gainera erorikoden baledizko egunean, ezkutuari azpian babestu eta jasari aurre egingo diogu. □

RIO EZ DA IBAIA

Ez nuen gogorik, egia esan, Rioko Lurraren Gailurrari buruz mintzatzeko, gehiegi hitz egin dela, mass mediek jarraipen soberakoa eman diotela uste bait dut, ondorioak zeintzuk izan diren ikusita batez ere. Dena dela, haragia ahula izanik, tentaldian jausi naiz eta, bi hitz baino ez bada, zerbait izkiriatuko dut. Ez gogo handiegirik, dena den.

Izutzekoa gailurrari buruz idatzi dena; milaka artikulua, milioika lerro, bilioika letra... eta oraindik asko idatziko da, alajaina! Alabaina, testu-masa horretan maneiatu den informazioa urria eta eskaxa izan dela esango nuke. Gainera, bilerari buruzko analisi sakonik ez dut irakurtzeko paradarik izan. Informazioa eta analisia bileraren tamainakoak izan direla baietsiko nuke nik.

Ondorio batzuk, dena dela, erauzi daitezke infomazio-oihan horretatik:

- Ekologiaz ez eta diruaz gehiago hitz egin da.

- Munduan G77 izeneko estatu taldea osatu da eta estatu garatuaren aurrean pisua hartzen ari da.

- Norberaren epe motzerako etekina negoziazio eta eztabaidetan oso present egon da. Lekuko, Katar-eko ingurugiro-minis-

trariaren jarrera: desforestazioa zigortzeko neurriak proposatzen zituen bitartean, petrolioaren erabilpena murriztuko lukeen energi zergaren aurrean, petrolio-enbargoaren mamua erakusten zien Europako estatuei.

- Ehun eta berrogeitamar estatuk Bioaniztasun-Hitzarmena sinatzea arrakasta handia da, nahiz eta EEBBek uko egin.

- Gainpopulazioaren kontrolean akordiorik ez lortzea puntu beltza da.

- Karbono(IV) oxidozko eta beste berotegi-gasen isuriei buruz akordio eragingarririk ez hartzea Gailurraren punturik beltzena da. Kalkulatzen denez, karbono(IV) oxidoen isuriak ahalik eta azkarren %60 murriztu behar dira atmosferan dagoen kontzentrazioa eta klima egonkortzeko.

Ez dirudi beraz, Rio oreka ekologikoaren itsasora eramango gaituen ibaia izango denik.□

## IKUSKIZUNAK

---

### BEGOÑA DEL TESO

UDARAKO ERE, ZINEA

Urteetan zehar, uztailan eta abuztuan hala holakoak ziren filmeak iristen zitzaizkigun. Ekoizleek, banatzaileek eta pantailen jabeek oporretan geundela uste zuten. Beraz, hautsez beteriko biltegietatik ateratako zineaz betetzen ziren gure aretoak. Apurka-apurka, uste hori ezabatu egin da takilako dirua kontatzen dutenen buruetatik. Abuztuaren erdian, ia leku guztietako Aste Nagusiak amaitzear zaudelarik, Bilbon, Donostian, Gasteizen eta Iruñean estreinatu zen “Instinto básico”, sexu dotore eta maltzurraz jantzitako filmea, edo hobeto esanda, zeludoidezko lehergailua. Sekulan ikusi ez diren iladak sortu ziren aretoetako atarietan. Zineek arau zorrotzak jarri behar izan zituzten sarre ren legez kanpoko salmenta galerazteko eta nonahi izanda ere, Paul Verhoeven zuzendariaren lanari buruzko hitz aspertuak entzuten zenituen, zein ahopeka, zein ozenki.

Zinearen Historian zehar izandako emakume kriminal guztien islada den Catherine Tramell pertsonaiak —Sharon Stonek antzestuak— iraulikatu egin ditu saio komertzialetan ikusi ohi diren hainbat eta hainbat filmek begirune osoz gorderiko arauak. Emakumezkook, berak gizonezkoei botatzen dizkion amuak geuk jaurtikitzen ikasteko asmoz eta grinaz joanak gara zinera. Gidoia ahula du istorioak baina berdin dio. “Instinto básico” jada ez da filme bat gizartean sakon erroturiko legenda baizik. Eta hori, udan gertatu zitzaigula. Uda ekaiztsu batean, Donostiako Zinemaldia hurbil genuelarik, zinea ametsetarako, amets debekatuentzako gordeleku eta aterpe bilakatu zen. Udako goiz nabar batean ere, Donostiako Zurriola pasealekuan izan genuen zine-magiaren froga. Julio Medem, “Behiak” en egilea, bere bigarren luzemetraiaren filmaketan ari zen. Bertako lan-taldea, hondartzan etzanda zegoen aktorea, ondoan belaunikaturik zuen zuzendaria... denak ziren artisaunen mundu magiko baten partaide. Une batez, Sharon Stone azpijoko bero eta adimentsuak ahazturik, ordu luzeak eman genituen errodate horri begira. 1992 ditxoso hau pasa orduko, aurrean izango dugun emaitza, udako fantasia baten oparia izango dela ezin da ahaztu. Aurrerantzean ere badaukagu beste ezinbesteko zita. 1993ko urtarrilean, Alex de la Iglesia zinegile ganberroaren “Acción mutante” izango da ikusgai. Bertan, Almodóvar anaiek kontrataturik lan egin duten euskal teknikariak etengabe mintzatzen dira han ikusi duten zeluloide-mirariez. Bazeuden hiru orduko lanaren fruitua ziren planoak. Bazegoen eguneko 750.000 pta. kostatzen zuen kamara arina, “steady cam” izenekoa. Bazegoen ere... gaizki ordaindutako langile-multzoa... Hori guztia gertatu izan zen pantailaren aldeetan udako gau izartsuetan. Bitartean, teatretroak... kalean. □

#### JALGI ZAITEZTE PLAZETARA

Uda partean “probintzietara” datozen Madrilgo konpainiek hartzen dituzte hiriburuetako antzokiak. Kasu gehienetan, bertako komedianteei kaleak eta plazak besterik ez zaizkie geratzen eta hortik dabilta jira eta biraka, goitik behera. An-

tzerkia Boulevarderaino, Arriagaraino, ospe handiko eraikuntza horretaraino, heltzen da hala.

Aste nagusietan denetik ikusi izan dugu gure karriketan. Arriagak berak hartu zuen sua eta Karraka talde beterano, bizkaitar peto-petoak piztu zuen gezurrezko pospoloa.

Karrakakoak ere, dotore jantzita, Donostiako Hamabostaldi musikala zela medio eta aitzakia, sartu ziren “Tren Rossini” ize-neko FEVEren bagoietan. Hortxe, “L’Italiana d’Argel”en egilearen bitzta goxo eta oparoa birbiztu zuten burla-burlaka.

Alde guztietatik dira etorriak. Jaiez jai dabiltza. Katalunia-koak dira “Circ Perillós”en partaideak. Bilbon eta Donostian aurkeztu zuten “¿Es ese pájaro una roulotte?” lan arriskutsu eta benetan ikusgarria. Komikiari lapurturiko eszena ezinezkoek dago gainezka saioa. Errenteriako hiru teatrero, Donostian lanean... “Trapu zahar”ekoak. Maila handiko hotel bateko terraza hartu zuten eszenatoki. Han zegoen uda-jende guztia *yuppie* eta modernoaren papera, planta eginez. Ez da harritzekoa Sevillako Expon izan duten arrakasta eta Canadako jaialdi baterako deitu izanak. □

#### MUGI ZAITEZ, HAU MUSIKA DUZU

Donostiako Hamabostaldi musikalean dastatzeko izan genuen Rossiniren “L’italiana d’Argel” operak ederto erakutsi zizkigun mundu horretan gertatzen ari diren aldaketak. Orain arte guganaino iritsi izan diren muntaiak mugiezinak ziren. Ibilgaitzak, aldaezinak. Pèssaron, Bayreuthen, Salzburgon eta beste leku askotan hasi da egoera aldatzen. Operaren gorputzaren ardura dutenak emakume eta gizon antzerkian adituak, trebatuak dira. Ikusle-entzule garenok bi alde dituen ikuskizunaz gozatzen dugu. Istorioak indarra eta abiadura hartzen ditu. Abeslariak ez dira “divo” lodikote ohizkoak, ezta “prima donna” handitzar horiek ere, egiazko komediantek baizik. Ahots paregabea duten antzesleak.

Orain arte geldi-geldirik ihardun izan duen abesbatzak ere mugitzeari ekin dio. Eszenatoki osoa korritzen du martxa eta umoreonez. Iraultza honen erantzukizule bi, Milango “muns-

troa” den Luigi Pizzi eta ondoan, Victoria Eugenia, laguntzaile izan zuen emakume donostiarra: Maribel Belastegi.□

#### UNIBERTSITATEK DATORREN ARTISTA NAIZ NI

Hasi berria dugun kurtso honetan, antzerkia sartuko da Unibertsitatean, LOGSE legeak hala eskatua, hala eskainia. Horrek iraulketa ikaragarria ekarriko die han-hemenka, Euskal Herrian barrena sakabanaturik dauden teatro-eskolei, Antzerti famatua barne. Tamaina hartu behar “karrera” berriari eta gero, neurri beharrezkoak...□

#### ISILIK DAGOENEOZ?

Badirudi 92ko festak eta ospakizunak bukatuak, honi eta hari kendutako dirua kontatuz gero eta han eta hemen gordetako sosa inbertitu orduko, Eusko Jaurlaritzak diru-laguntzak eskaparatean jarriko dituela... Hala bedi zeren, egon badaude 18 milioiko zorrak dituzten zori gaiztoko taldeak eta.

Halere, kurioa da askoren isiltasuna. Txanponen iturria berriro ireki omenenez jada ez bide dago Kultur Kezkarik.

Denok dakigu 1.500 milioiko mozketaren atzean zegoena kulturarekiko arrotasun bat, harrokeria iraingarria eta mesprezua zela.

Hori bagenekien askok. Edota asko ginela uste izan genuen batzuek. Hitz egin dezatela lehen hitz-jario polita zutenak bestela penaturik, engainaturik sentituko gara zeharo.□

#### PASTORALA AITZAKI

Modan daude pastoralak. Bai Iparrean, baita Hegoan ere. “Santa Kruz”, “Etxahun”... Batzuetan gaizki dago aukeratua pertsonaia, “Xalbador” kasu.

Bertsolari iaioa zela nork ukatuko du? Baina bizitza arrunta izan zuen eta eszenatoki gainean hari buruz kontatutakoak ez du ikusgarritasunik. Beste askotan, zaila zaie taulan ger-

tatzen ari dena mugimenduz hornitzea. Baina jendeari, egia esateko, bost axola. Jendea Santa Engrazira erromes gisa doa, eskurtsioa egitera. Giro jator eta euskaldun batean asteburua ematera. Pastoralak dago modan. Autobusak antolatzen dira haraino. Koadrilak Iparraldera joateko biltzen dira. Han begiratu bat bota, tabernara jaitsi edota zelaian etzango dira. Ez da plan txarra... Pastoralak berezkoa duen tonua galtzen ez duen bitartean, jakina. Herrikoia zena denen begi-aurrean dagoena konturatzean... harrotuko ote? Dotoretu bide? Ez bedi horrela gerta!□

#### ZEANURIN FESTA

Abuztuaren 14 eta 15ean, Zeanuriko herri osoak “Iparragirre hegalaria” antzerki musikalean hartu zuen parte. Hiru orduko saio horretara Euskal Herriko alde guztietatik etarria zen jendea.

Zeanuritarrek ondo baino hobeto egin zuten lana baina ez dut gauza bera esango ofizioz teatroko jendea zen Jose Miguel Elvira eta Gontzal Mendibili buruz. Izugarri txarto mugitu zuten ikuskizuna. Zerbait berri egiteko irrikaz, hankaz gora jarri nahi izan zuten dramaturgia baina kontakizuna ohizko ildotik zihoan, tradizioak markaturiko bidetik aldendu ezinik. Ate askotan joz, kostata, lorturiko 9 milioiak pilatu zituzten orkestan, abesbatzean, jantzi eta *atrezzoan* baina ez zuten lortu bakoitzarentzako lekua eta tonua aurkitzea.

Indarrak ahulduz joan ziren eta bazirudien ez Jose Miguelek, ez Gontzalek, ez zekitela noiz, non, zeintzuk ziren istorio horren gailurrak. Lan on bat eginez gero, Iparragirrek Madril-en lehenengo aldiz “Gernikako Arbola” kantatzen duenean ikuslegoa zutitu egingo zen emozioak hunkituta. Ez zen hala gertatu, emanaldia hotz, aldrebes, baldarra suertatu zelako nahiz eta ponposoa eta dizdiragarria ere zenbait pasartetan. Herriak, emaitza ikusirik, ez zuen bi “profesional” aspertu horien beharrik. Bene-benetan.

Portzierto, soberan zegoen abertzaletasun merkea. Iparragirre eskainitako erretratua libertatearen gudari gisa, “super-



man” bailitzan, komentariarik gabe utziko dut. Hala eta guztiz, polita eskurtsioa, izugarria herritarren ahalegina eta konpondu beharrekoak ikuskizuna gaiztotu zuten anitz gauza.□

#### OHAR GISA

Badakit telebistaz zer edo zer idatzi beharra nuela baina badirudi kate guztiak oporretan izan direla, hondartzan, mendian ala Bahamas irletan. ETB gaixoa salbu. Etxean geratu da sosik ez duelako eta eskaini digun programazioak 625 lerroak estaltzeko baino ez zuen balio. Inoiz udazkenerako agindutako berrikuntzez mintzatuko gara luzaro eta patxadaz.□

TOLOSA HIRIBIDEA. 103-1. C  
TEL.(943) 21 80 92  
FAX (943) 21 82 07  
20009 DONOSTIA

